

Jentilbaratz



CUADERNOS DE FOLKLORE

JENTILBARATZ, 15, 1 227, DONOSTIA, 2013, ISBN: 978 84 8419 257 2
ISSN: 1137 859X, eISSN: 2341 0035

**Performantza eta erritua Gernikako Marijesietan.
Identitaterako ahotsak**

**Performance y rito en los Marijeses de Gernika.
Voces para la identidad**

Daniel Rementeria Arruza

15

Jentil
baratz

Zuzendaria:

Emilio X. DUEÑAS. Eusko Ikaskuntza. Bilbo.

Erredakzio Kontseilua:

Josu E. LARRINAGA. Eusko Ikaskuntza. Bilbo.

Pablo A. "Aritz" MARTIN BOSCH. Txorierrri BHI. Derio.

Karlos SÁNCHEZ EKIZA. Univ. del País Vasco / Euskal Herriko Unib. Gasteiz.

Argitalpen Idazkaria:

Eva NIETO. Eusko Ikaskuntza. Donostia.

Batzorde Zientifikoa:

Jon BAGÜÉS ERRIONDO. Eresbil. Errenteria.

Joaquín DÍAZ GONZÁLEZ. Fundación Joaquín Díaz. Uruña.

Kepa FERNÁNDEZ DE LARRINO. Univ. Pública de Navarra / Nafarroako Unib.
Publikoa. Pamplona-Iruña.

José I. HOMOBONO MARTÍNEZ. Univ. del País Vasco / Euskal Herriko Unib. Bilbo.

Iñaki IRIGOIEN ETXEBARRIA. Eusko Ikaskuntza. Bilbo.

Fermin LEIZAOLA. Aranzadi Zientzia Elkartea. Donostia.

Ramón A. PELINSKI TEMINSKI. Universidad de Montreal. Montreal (Canadá).

Joan PRAT i CARÓS. Univ. Rovira i Virgili. Tarragona.

Juan J. PRAT FERRER. IE University. Segovia.

Kazuyuki TAKETANI. Universidad de Kobe. Kobe (Japón).

Gomendatutako fitxa bibliografikoa

Performantza eta erritua Gernikako
Marijesietan. Identitaterako ahotsak =
Performance y rito en los Marijeses de
Gernika. Voces para la identidad / Daniel
Rementeria Arruza. – Non: Jentilbaratz.
Cuadernos de Folklore / Eusko
Ikaskuntza.– Donostia. –
15. zkia (2013).

227 or. : ir. ; 24 cm

Irregular

ISSN: 1137-859X

eISSN: 2341-0035

ISBN: 978-84-8419-257-2

Aldizkari honen artikulua **ISOC** (Centro de
Ciencias Sociales, CSIC): <http://bddoc.csic.es:8080>, data basean indizatuak izango dira.
Hurrengo hedatze atarietan ere euskargari
daude: **Dialnet**: <http://dialnet.unirioja.es>; eta
Latindex: www.latindex.org

Eusko Ikaskuntzak bere eskerrona adierazi
nahi die ale honetan parte hartu duten autore
guztei, eta ohi duen gisa guzti hauen erizpideak
errespetatzen ditu, honek ez duelarik esan nahi
bereziki horiekin bat datorrenik.

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos
muestra su agradecimiento a los autores que
han colaborado en este volumen y de acuerdo
con su tradición, respeta todos sus criterios y
opiniones, sin que ello signifique que asuma en
particular cualquiera de ellos.

Eusko Ikaskuntza-Société d'Etudes Basques
remercie les auteurs qui ont collaboré à ce
volume et, selon sa tradition, respecte tous leurs
opinions. Cela ne signifie par pour autant qu'elle
assume l'une d'entre d'eux en particulier.

Con el patrocinio de: Diputación Foral de Álava,
Diputación Foral de Bizkaia, Diputación Foral de
Gipuzkoa, Gobierno de Navarra y Gobierno Vasco.



**EUSKO IKASKUNTZA
SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS
SOCIÉTÉ D'ETUDES BASQUES**

1918an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta
Nafarroako Foru Aldundiek sorturiko
erakundea.

Miramar Jauregia.
Miraconcha, 48. 20007 Donostia
Tel. 943 31 08 55
Fax 943 21 39 56
www.eusko-ikaskuntza.org
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

ISSN: 1137-859X; eISSN: 2341-0035
Depósito Legal: SS 1766-2013
Fotocomposición: Michelena artes gráficas

**Performantza eta erritua Gernikako Marijesietan.
Identitaterako ahotsak**
**Performance y rito en los Marijeses de Gernika.
Voces para la identidad**
Daniel Rementeria Arruza

15

Performantza eta erritua Gernikako Marijesietan. Identitaterako ahotsak

Hitzaurrea	9
1. Sarrera	13
2. Testuinguru teorikoa. Estructura eta historia	17
2.1. Marko teorikoa. Antropologia soziala eta kulturala eta Historia. Antropologia sinbolikoa	17
2.2. Kontzeptuak: ekintza errituala eta performantza, tradizioa, folklorismoa eta berpizketa	18
3. Erritua: ezaugarriak, aktoreak, egitura	29
3.1. Ikergaira hurbilduz	30
3.2. Gernikako Marijesien garapen erritualaren exegesi deskriptiboa	31
4. Gernikako Marijesiak irudietan	42
5. Aurreko ikerketak	53
5.1. Gernikan abestutako koplak	53
5.2. “Marijes” hitzaren polisemia	55
5.3. “Kopla-zaarrak”. Manuel Lekuona. Marijesien kantuen ikerketa filologikoak	56
5.4. Gabonetako zikloa: beste Marijesiak. Gernikarren berezitasuna tokiko identitatea ezberdintzeko indize bat bezala. Aspektu kronologikoak	57

5.5. Juan de Irigoyen. Marijesiak, “Las Posadas” mexikarrak eta Onbiderako Antzerkia (<i>Teatro edificante</i>)	60
5.6. José Antonio Arana Martija. Marijesien antzezkiak	63
5.7. Vicente del Palacio, Gernikazaharra eta mikrohistoria	66
5.8. Xabier Icobalceta. Berreskuratze, sekularizazioa eta politizazioa	67
6. Tokiko identitatearen berreraiketa	68
6.1. Ondare kulturalaren berreskurapena Gernikan	68
6.2. ELAI-ALAI taldea	69
6.3. Marijesien berpizketa 70eko hamarkadan: errituaren berri-tzaileak edo identitatearen egileak	71
6.4. Birkontestualizazioa eta esanahi berria	72
7. Espazioa ibiliz eta erabiliz	74
7.1. Erritualizatutako tokian tokiko espazioak. Lekuak	74
7.2. Espazioak ibiliz eta erabiliz	75
7.3. Gelditu, espazioa mugatu, ausenteak gogora ekarri	79
8. Emaiza modura. Erritualaren estetika, <i>ethos</i> -aren performantza	81
9. Bibliografia	83
10. Eranskinak	89
11. Grafikoen aurkibidea	110

Página

Performance y rito en los Marijeses de Gernika. Voces para la identidad

Prólogo	115
1. Introducción	119
2. Marco teórico. Estructura e historia	123
2.1. Marco teórico. Antropología social y cultural e historia. Antropología simbólica	123
2.2. Los conceptos: acción ritual, <i>performance</i> , tradición y folclorismo, revitalización	124
3. El rito. Características, actores, estructura	136
3.1. El acercamiento al objeto de estudio	136
3.2. Exégesis descriptiva del desarrollo del ritual de los Marijeses de Gernika	138

4. Los Marijeses de Gernika a través de fotos	150
5. Estudios precedentes	161
5.1. Los textos cantados en Gernika	161
5.2. El término “Marijés” y su polisemia	163
5.3. Las coplas o <i>Kopla-zaarrak</i> . Manuel Lekuona. Estudios filológicos de los cantos de Marijeses	164
5.4. El ciclo navideño: diferentes Marijeses. La particularidad guerniquesa como índice diferencial para la identidad local. Aspectos cronológicos	165
5.5. Juan de Irigoyen. Los Marijeses, “Las Posadas” mexicanas y el Teatro edificante	168
5.6. José Antonio Arana Martija. La teatralidad de los Marijeses	171
5.7. Vicente del Palacio, Gernikazaharra y la microhistoria	175
5.8. Xabier Icobalceta. Recuperación, secularización y politización	175
6. La reconstrucción identitaria local	176
6.1. Recuperación del patrimonio cultural en Gernika	176
6.2. El grupo ELAI-ALAI	178
6.3. Revitalización de los Marijeses en los setenta: los recreadores del rito o artífices de la identidad	180
6.4. Recontextualización y nueva significación	181
7. El espacio ritual	183
7.1. Espacios ritualizados en lo local. Lugares	183
7.2. Recorrer el espacio	184
7.3. Pararse, marcar el espacio, hacer presentes a los ausentes	188
8. Conclusiones. Estética ritual y performance del <i>ethos</i>	190
9. Bibliografía	193
10. Anexos	199
11. Índice de gráficos	225
Bibliographic Section	227

Performance and rite in *Marijeses* from Gernika. Voices for the identity

Daniel Rementeria Arruza

15

Summary

	<u>Page</u>
Prologue	9
1. Introduction	13
2. Theoretical framework. Structure and history	17
2.1. Theoretical framework. Social and cultural anthropology and history. Symbolic anthropology	17
2.2. The concepts: ritual action, performance, tradition and folklorism, revitalization	18
3. The rite: features, actors, structure	29
3.1. An approach to the subject	30
3.2. Descriptive exegesis of the development of the <i>Marijeses</i> of Gernika's ritual	31
4. The <i>Marijeses</i> of Gernika through pictures	42
5. Previous studies	53
5.1. The texts sung in Gernika	53
5.2. "Marijés", the term and its polysemy	55
5.3. The couplets or <i>Kopla-zaararak</i> . Manuel Lekuona. Philological studies of the <i>Marijeses</i> songs	56
5.4. Christmas cycle: different <i>Marijeses</i> . The particularity of the <i>Marijeses</i> of Gernika as an index for differentiating the local identity. Cronological aspects	57
5.5. Juan de Irigoyen. The <i>Marijeses</i> , mexican "Posadas" and the edifying theatre	60

5.6. José Antonio Arana Martija. The theatricality of the <i>Marijeses</i>	63
5.7. Vicente del Palacio, <i>Gernikazaharra</i> and the microhistory	66
5.8. Xabier Icobalceta. Recovery, secularization and politicisation	67
6. The reconstruction of local identity	68
6.1. Gernika's cultural heritage recovery	68
6.2. The ELAI- ALAI company	69
6.3. Revitalization of the <i>Marijeses</i> in the 70s: the reenactors of the rite or the authors of this identity	71
6.4. Recontextualization and new significance	72
7. The ritual space	74
7.1. Ritualized spaces in local areas. Places	74
7.2. Examine the space	75
7.3. Stand still, set the space, make absent people present	79
8. Conclusions. Ritual aesthetics and the performance of <i>ethos</i>	81
9. Bibliography	83
10. Annexes	89
11. Index of graphs	110
Bibliographic Section	227

**Performantza eta erritua
Gernikako Marijesietan.
Identitaterako ahotsak**

Hitzaurrea

Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore bilduman oraintxe argitaratzen den monografikoa nire eskura heldu zitzaidanean, eta irakurketa sakona egin ondoren, orain dela urte batzuk hainbat herritan zehar egin nituen ibilaldiak nire gogora etorri zitzaizkidan. Izan ere, urte haietan, neguko beste jai batzuk ez ezik, “Marijesiak” edo “Abendua” ohitura¹ ere ikustatu nuen, aldi berean jai horiei guztiei buruzko berriak eta informazioa biltzen nituelarik².

Hori guztia gogoratzen dut, nire lehen bisitaldia izango balitz bezala. Egileak egiten duen bezala Gernika aipatzen duenean, niri dagokidanez, Ea izan zen lehen bisitatu nuen herria. Gaua, abenduaren 24arena, alegia, ez zen oso hotza; ume talde bat, bi emakume gaztek zuzenduta, Ea herriko gune nagusian zehar zebilen makilekin asfaltoen aurka jotzen eta ahapaldiak abesten. Gauaren isiltasuna apurtzen zuen horrek guztiak denboran atzera eramaten gintuen giroa sortzen zuen.

Halaber, beste batzuetan leku berera joan nintzen, baina Gautegiz-Arteagan, Belendiz (Arratzu), Ariatzan (Muxika), Muxikan, Ibarrurin, Mendatan, Lekeitio, eta, nola ez, Gernikan ere egon naiz; herri horiek guztiak Busturialdean kokatuta. Durangaldeari dagokionez, Mendiolan (Abadiño), Berman (Amorebieta-Etxano) edo lurretan ere egon naiz.

Herri guztiek ez dute bederatziaurrea ospatzen; aldi berean, protagonisten adina eta sexua ez dira beti berdinak. Zortzi gauetan egiten den ibilbide finkoa ez ezik, azken egunean (abenduaren 24an, hain zuzen ere), goizean burutzen den eskea ere kontuan hartzekoa da. Gehienetan egun bakar batean – abenduaren 23an, goizean edo arratsaldean, edo 24an, goizean– egiten da.

Inolako zalantzarik gabe, Gernikan ospatzen den ekitaldia da ezagunena, lekua erreferentzia-puntutzat hartuta, eta antza denez osoena eta ekandua arearauei hobeto lotzen dena, denboraren gaineko desberdintasun txikiak alde batera utzita, noski. Beste alde batetik, arauak oinarritzkoak dira ekitaldi horietan. Idazlan honen egileak ongi azaltzen duenez, arauen barruan

1. Gaur egun erritua egiten den herrietan bi izen horiekin ezagutua da antzezpena. Herri batzuetan “Marijesiak” izena darabilte; beste batzuetan, ordea, “Abendua” izena. Bi izen horien gaineko esanahia landua izan da idazlan honetan.

2. Informazioa biltzeko lana, ahozko testigantzen bidez jaso dena, 1985 eta 2005 urte bitartean burutu zen. Bizkaian inauteriei eta neguko jaiak buruzko ikerketa da. Josu Larrinagak eta Emilio Xabier Dueñasek buruturiko ikerketa da, gaur egun plazaratzeko lanetan dagoena.

erritualaren ezinbesteko zatia kokatzen da. Erritu-zati horretan konnotazio desberdinak aurkitzen dira, ahapaldi erlijiosoak gainditzeko direnak. Aldi berean, denboraren poderioz talde mistoa sortzen joan den taldea, edo ikuslegoa –bai zuzenean bai etxetatik ikusita– ere gainditzeko ditu erritu-zati horrek.

Errituetan guztiz sustraituta eta aldi berean etenik gabe berreskuratuta izan diren arau horiek guztiak eta ohituraren beste elementu batzuk XX. mendearen erdira arte Busturialdeko herri gehienetan, eta neurri txiki batean Bizkaiko beste merindade euskaldun batzuetan egin dira, hala nola Durangaldean, Uribealdean eta Arratian. Askoz zabalduagoak aurkitzen diren ahapaldiak Gipuzkoan edo Aramaidxo Haranean (Araba).

“Marijesiak” zaharren jarrerak, ekitaldiaren zentzuak eta egoera zere-monialak agian azken mendeetan zehar aldaketak izan dituzte, baina zalantzarik gabe, bere antzezpenarekiko taldearen eta pertsonen identitateak ez diote defendatzen duten funtsa kentzen; tradizioa bizirik mantendu duten pertsonen osaturiko taldeak ez ezik, herriko biztanleen ikuskerak ere funtsa hori bere horretan dihardute.

Iragana eta orainaldia nahasten dira eta nahasketa horretatik ispilu bat sortzen da; ispilu horretan agureek bere burua ikusten dute. Denboraren kurtso hori eta antzezpenen testuinguru soziala ikerketa espezializatuetan landua izan da; bai nazioarteko mailan antropologia, mitologia, erlijioa, eszenografia eta abarreko arloetan lan egin dituzten –eta idazlan honetan aipatzen diren– ikerlariak (V. Turner, D. Sperber, M. Eliade...), bai musika eta hizkuntza alorretan aritu diren bertako ikerlariak (J. A. Arana Martija, R. M. de Azkue...) dira ikerketa espezializatu horietan sakondu dutenak.

Hala ere, nire asmoa ez da antropologia arloan sakontzea, helburu hori hemen aurkezteari ari den idazlanarena baita. Baina defentsa bat egin nahi dut, alegia, urtero –eta ahalegin handia eginda– belaunaldiz belaunaldi jaso dituzten zenbait balore antzeztzen duten herrien aldeko defentsa. Ezin da eta ezin ditugu gizon-emakumeak alde batera utzi, batik bat gizon-emakume horiek orokorrean gaurkotua dagoen ohitura biziaren sostengatzaileak direnean. Folklore izenarekin (zientziazat edo irakasgaitzat kontuan hartu gabe, ohituren multzotzat baizik) ezagutu ohi denak ez du bakarrik jatorria eta bakarra azpimarratzea bilatzen, oinarritzko lehengaia ahazten delarik. Telebistagatik edo zenbait erreportajeengatik izango ez balitz, “Marijesiak” ez lirateke jai hori egiten den lurraldeetan ere ezagutuko.

Beste garaietan herri-identitateari atxiki zitzaiona, denboraren poderioz zerbait harrigarria bihurtu da, bai kanpoko zein barruko beste elementu batzuen aurrean bataila galdu duten herrietan, bai neguko solstizioaren eta Gabonetako beste ohitura eta pertsonaiekin lehian daudelarik beraiekin bateratu egin diren herrietan. Horrelaxe gertatzen da gure “Olentzero” maitearekin. Izan ere, hain ezaguna den izaki mitologikoa gabonsariekin edo “Marijesie”kin pare-parean jarri da, baita bertako ekandua zahar horiek atzerriratzea lortu ere. Ikertzeke dagoen egoera horrek Euskal Herriko ikerketa soziologikoetan zalantzarik gabeko garrantzia dauka.

Hala eta guztiz ere, Daniel Rementeriak burutu dituen ikerketa etnografikoa eta azterketa antropologia badira mota horretako ikerlanetan sakontzen hasteko gakoak. Horrexegatik merezi du liburu hau argitaratzea. Horrela, bai agirien bidez, bai ahozko testigantzen bitartez, agerian geratuko da herriak mantendu duen ohitura, nahiz eta ohitura hori, aldaketa soziokulturalak direla medio, XX. mendearen erdialdetik gaur arte, batik bat Bizkaian, indarra galtzen joan.

Emanaldian sartuta dauden sinboloen *Perfomance* edo antzezpen-formularen bitartez, identitatearen zentzuaren bidez, benetakoa edo berezia ere, eta izaera erritualaren bitartez, egileak “Marijesiak” ohituran sartzen gaitu, batez ere ikerketa eta idazlana burutu zuen urtean, alegia, 2005. urtean arreta jartzen duelarik. Bide horri jarraiki, esan nahi dugu argitalpenaren atzerapena ez dela egilearen akatsa izan; aldi berean, jakin badakigu, urteak igaro badira ere, idazlanak ez duela bere gaurkotasuna eta freskotasuna galdu.

Emilio Xabier Dueñas
Jentilbaratz. Cuadernos de Folkloreko Zuzendaria

1. SARRERA³

Lan honetan, gaur egungo gabonetako zikloari dagokion ekintza erritual (Geertz, 2003) baten azterketa antropologikoa aurkezten da. Gernikan (Bizkaia) Marijesiak⁴ izenarekin ezagutzen den errituarena, hain zuzen ere.

Erabilitako marko teoriko nagusia beraz, antropologia soziala eta kulturalarena izan da eta, zentzu honetan, ikerketan garatu izan ditudan oinarritzko gaiak hauexek izango lirateke: ekintza soziala, egitura soziokulturala eta kode sinboliko komunitarioak. Bestalde, ikergai nagusia errituan adierazitako tokiko identitatearen elementuak dira.

Hasieran, galdera batek eragin zuen erabili behar izan nuen planteamendu teorikoaren aukeraketa: ikertzeraz nindoan fenomeno hau noraino zen denboran baitan egitura zehatz bat mantentzen duen zerbait objetibagarria, eta noraino etengabeko aldaketak bizitzen dituen errealitate bat, eta beraz, prozesu bati buruz baino ezin izan nuen hitz egin. Edo, agian, nolabait alde biak betetzen dituen fenomeno bat ote da? Hau da, alde batetik, denboran irauten duen egitura objetibagarri bat dagoela eta, bestetik, egitura honek etengabeko aldaketak ere jasaten dituela.

Lan etnografiko eta dokumentalean bildutako datuen azterketa egiteko interesgarri iruditu zitzaidan, antropologia sinbolikotik V. Turner-ek (1988) eta C. Geertz-ek (1992) ekintza erritualei buruz egindako ekarpen teoriko eta metodologikoak erabiltzea. Baita ikuspuntu materialista batetik A. R. Rappaport-ek (1979) errituen elementu sinbolikoei eta indexikoei buruz egiten dituen hausnarketak ere, nolabait aurrekoei kontrapuntua emanez. Eta nola ez, ildo horretan doazen euskal antropologoek lanek, bai espazio, denbora, edo identitate kontzeptuak artikulatzeko egiten dituzten ekarpenei dagokienez, bai nire kasurako erabilgarriak izango diren datu etnografikoei dagokienez. Adibidez J. Zulaika (1987), T. del Valle (1988), K. Fernandez de Larrinoa (1993), J. I. Homobono (1982) edo J. Martinez Montoya (2002). Dena dela, nire proposamena deskriptiboa barik, interpretatiboa izango litzateke eta xede horrekin lehen aipatutako autoreen lanetan oinarritzen naiz.

Planteamendu horretatik bilatu nuen ikerlanaren gida eta abiapuntu izan ziren alde aurreko oinarritzko hiru galderei erantzunak ematea. Alde batetik,

3. Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2003. urtean ikerketa laguntza jaso zuen eta 2005. urtean Agustin Zumalabe Beka.

4. Aurrerago azalduko dudanez, Marijes hitzak moldez azaltzen diren esanahi anitz ditu. Bai errituari berari, bai kantuari, bai abeslari bati dagokienez, beti maiuskulaz idaztea aukeratu dut, uste baitut une bakoitzean zertaz ari naizen argi geratzen dela testuinguruaren arabera.

lan etnografikoaren emaitzek errituaren sekularizazioaren hipotesia planteatzera eraman ninduten, hau da, esanahi sekular berriek esanahi erlijioso tradizionalak ordezkatu dituztela. Beraz, zera jakin behar nuen: zeintzuk ziren errituari atxikitutako esanahi berriak; bestalde, nola hedatzen diren komunitate osora, eta azkenik, nortzuk diren esanahi berri horiek asmatu dituzten aktore sozialak.

Erabili izan nuen metodologia funtsean bi mailetan ezberdintzen da. Alde batetik, landa lan antropologikoa, hau da, behaketa partehartzailea, elkarriketak eta solasaldi informalak, bai zuzenean parte hartzen dituztenekin, bai etxetik kantuak entzuten dituztenekin. Horretarako, hamaika galderaz osatutako gidoi txiki bat idatzi nuen. Galderak, gehien bat, errituaren ezaugarriei buruzkoak ziren: ibilbideak, iraupena, partehartzea, taldearen barne dinamika, ekintzaren xehetasunak, jatorria, aktoreentzako daukan esanahia. Landa lanaren dinamika bera zela eta, askotan aurkitu nuen neure burua berriemaile batekin patxadazko elkarriketa batean grabagailuaren presentzia gogaikarririk gabe. Elkarriketa espontaneo hauetan jaso nuen informazioa, bestea bezain aipagarria izan zen azterketaren orduan.

Ekintza honen estereotipia, errepikapena eta aldizkakotasuna direla eta, fitxa etnografikoak egiteko erraztasun handia izan nuen. Bertan errituaren ezaugarriei buruzko eguneroko datuak bildu nituen, esate baterako: gizon eta emakumeen partehartzea; ibilbideak; tenperaturak; egun bakoitzeko bakarlariak edo ustekabeko gorabeherak (telebisten eta irratiaren bisitak, adibidez). Zentzu honetan, laguntza estimagarria izan nuen beraiegandik, hamarkada batzuk baitira partehartzearen datuak biltzen dituztela eta, batez ere, partehartzaileen izenak.

Bestalde, bederatziurrenean zentratuturik egindako landa lanak, berrikuspen bibliografiko eta dokumentalerako denbora dezente utzi zidan. Batez ere, gai bera landu izan dituzten autoreen lanak berrikusteko: J. A. Arana Martija, J. de Irigoyen, V. del Palacio, eta X. Icobalceta. Baita joan den mendeko euskal etnografo klasikoen bilketa lanetan errituari buruzko aipamenak biltzeko ere: Barandiaran, Azkue edo Lekuona. Eta ildo horretan, errituaren aurrekariak, alde historikoa eta euskal eremuan zein atzerrian izan diren itxuretan eta esanahietan antzeko ekintzak aztertzeko aukera izan nuen.

Lan dokumentalaren beste arlo garrantzitsu bat tokian tokiko iturriak izan ziren. Zentzu honetan, iturri anitz aztertu nituen: herriko eta eskualdeko aldizkariak, udalak argitaratutako jai egitarauak edo banketxeek folklorari buruz kaleratutako triptikoak. Adibidez, herriko *Aldaba* aldizkaria lagungarri izan zen eta baita *Busturialdean Bagabiz* eskualdeko aldizkaria ere. Era berean, *Deiadar* aldizkaria eta *Busturialdeko Hitza* egunkaria.

Halere, ikergaiaren azterketa egiteko kontzeptu teoriko baliagarriak bilatu nahian, lan bibliografiko gehiena antropologiaren alde teorikoetan garatu nuen, batez ere herriko kultura eta “sozial drama” edo ekintza erritualaren kontzeptuen inguruan, eta nola ez, kontzeptu hauei lotutako hainbat aspekturen inguruan: identitatea, tradizioa, tokiko ondare kulturalaren berpizketak, esate baterako.

Prozesu guzti horren emaitza honako testu hau da, jarraian azalduko dudanez antolatuta. Bigarren puntuan errituaren inguruan gertatzen diren fenomenoak azaltzeko ikerketan erabili nituen teoria eta paradigma antropologikoak eta oinarrizko kontzeptuen azalpena egiten dut, zein zentzutan erabiliak izan diren, hain zuzen.

*Performantza eta ekintza erritualaren kontzeptuak eta errituei buruz garatu izan diren teoriak oso baliagarriak izan ziren, ekintza erritualen ezaugarriak betetzen dituen ekintza tradizional baten aurrean baikaude. Era berean, sinbolo eta indize artean bereiztea ere interesagarri iruditu zitzaidan, ikerketan zehar kategoria horiei dagozkien ekintzak, keinuak eta elementuak aurkituko ditugulako, eta bakoitzaren presentziak errituaren ezaugarriari eta izaerari buruzko informazio zehatza emango digu. Ohituraren eta iraganaren erabilera aztertzeko beste kontzeptu batzuk ere erabili nituen: *berpizketa*, *tradizioa*, *folklorismoa*, esate baterako. Baita *tokiko identitatearen* kontzeptua ere, ikerlanean saiatu nintzelako aztertzen nola errituaren berpizketa prozesuan, tokiko identitatearen elementu batzuk adierazten ziren.*

Hirugarren puntua Gernikako Marijesiak zertan dautzan azaltzeko atal monografikoa da. Landa lanean jasotako lehenengo inpresioak biltzen dituen narrazio batekin hasten da. Bertan, honen ezaugarri nabarmenak aurkezten dira. Horren ondoren, antropologoak (neronek) egindako errituaren deskribapena aurkezten dut. Gero, bai gaur eguneko, bai iraganeko partehartzaileen amankomuneko ezaugarrien aipamen labur eta orokor bat dator, eta jarraian gaur eguneko abeslari batek Marijes ohi bati egindako elkarrizketa bat, aktoreek beraiek errituari buruz egiten duten narrazio bat bezala aurkeztuta. Antropologiaren erretorikari buruzko ikerketek planteatzen duten bezala, bai antropologoei egindako deskribapena, bai aktoreen eta berriemaileen kontakizunak, interpretatutako deskribapenak bezala har ditzakegun kontakizun etnografikoak ditugu, nahiz eta interpretazioa ustekabekoa izan⁵. Puntu hau, elkarrizketa horretan agertzen diren elementuen azterketarekin bukatzen da.

Laugarren puntuan, aurkezpen etnografikoa egiten dut argazkien bidez, errituaren ezaugarri batzuk azpimarratzen dituzten eta hausnarketara eramaten gaituzten azalpen txikiak erantsiz. Bosgarrenean, Gernikako Marijesien alde ezberdinak aztertu izan dituzten autoreen lanak aurkezten ditut. Autore horiek ohiturari eman dieten esanahien bidez eta zientifikoki azpimarratu izan dituzten aldean bidez, errituaren ezaugarri desberdinak ezagutuko ditugu. Horretarako, Gernikan abesten diren testuen bilduma egin dituzten autoreek aipatuz hasiko naiz. Gero “Marijes” hitzaren polisemia eta dituen esanahi anitzak argitzeko aipamen txiki bat egiten dut. M. Lekuonaren ikerketa filologikoen bidez, hots, autore honek kantuez egin zuen bilduma eta sailkapen lanaren bitartez, kopia zaharrak direla ikusiko dugu eta baita zeintzuk diren hauen ezaugarriak ere. Jarraian, erritua urteko jai egutegian kokatzen dut, gero Marijesien bariante

5. Ikusi: Clifford J. eta Marcus G.E. (1991).

ezberdinak ikusteko eta ezaugarri kronologikoak direla eta, Gernikakoak dituzten berezitasunak aipatzeko.

Era berean, J. de Irigoyenen lana, Marijesien eta Las Posadas de San Jose y La Virgen jaiaren arteko harreman estu eta filialaz mintzo zaigu, gernikar errituaren bereizitasuna eta paregabetasuna zalantzan jarritz. Kontuan eduki behar da hauexek direla hain zuzen tokiko identitatea eraikitzeke erabili izan diren ezaugarri nagusiak. J. A. Arana Martijaren lanaren bidez Gernikako kantuen alde filologikoak ezagutuko ditugu, bederatziurrenean abesten diren hiru melodia ezberdinak, keinuen antzekizun nabarmena edo abeslarien kokapen espaziala. Bestalde, V. del Palacioren lan etnografikoak errituaren mikrohistoria arakatu du. Azkenik, X. Icobalcetaren lanak, 70eko hamarkadan gertatzen den sekularizazio prozesuaren berri ematen digu. Prozesu honetan, herriak asmatutako kopia laiko berri batzuk eranstean zaizkie kantuei.

Honek bidea ematen du seigarren puntuan, 70eko (XX. m) hamarkadako berpizketa eta berreskuraketa prozesuaren zehaztasunak azaltzeko. Hurrengo bi galdera hauei ere erantzuna ematen saiatuko naiz: alde batetik, zeintzuk diren errituari eranstean zaizkion esanahi berriak eta, bestalde, nortzuk diren esanahi horien eragileak. Berreskuraketaren fenomenoaz aztertzeke, Gernikako ondare kulturalaren berreskuraketa prozesu zabalago batean kokatzen dut, jarraian Elai-Alai taldeak prozesu historiko honetan izan duen garrantzia azpimarratzeko, eta era berean 70eko hamarkadako Marijesien garrantzia, beraiek izan baitira errituaren berritzaileak eta, zentzu honetan, gaur eguneko identitatearen eragileak⁶. Arestian aipatutako hamarkadan, errituak hartzen dituen esanahi berrien eta bizitzen duen birkontestualizazioaren azterketa eginez bukatzen dut.

Zazpigarren puntuan, hasieran planteatutako hirugarren galderari erantzuna ematen saiatuko naiz, alegia, nola hedatzen diren esanahi berri horiek. Horretarako, espazioaren erritualizazioaren azterketan oinarritzen naiz. Abeslariak egiten dituzten ibilbideak eta geldialdiak aztertuz eta, batez ere, ibilbide horietan ikusten den sekuentzia estrukturalaren azterketa eginez saiatuko naiz azaltzen identitatea nola berreraikitzen den eta komunitatea nola birkonpontzen den konpartitutako esanahi berri horien inguruan.

Azkenik, emaitzen modura aurkeztutako puntu batekin bukatzen da testua. Bertan, errituak jasan izan dituen aldaketen mapa bat osatzen dut eta saiatzen naiz haren ezaugarri performatiboak azpimarratzen, tokiko identitatea berreraikitzeke lanabes pribilegiatuak baitira. Baita errituaren estetika eta transmititzen duen etikaren arteko harremana azaltzen.

6. "Artífices de la identidad" edo identitatearen eragileak. Kontzeptu hau P. Jimeno Salvatierraren (2002) lanetik hartu dut, oso egokia iruditu zaidalako egoera hau deskribatzeko.

2. TESTUINGURU TEORIKOA. ESTRUKTURA ETA HISTORIA

2.1. Marko teorikoa. Antropologia soziala eta kulturala eta Historia. Antropologia sinbolikoa

Gaur eguneko ikerketa antropologikoetan historia kontuan hartzeko gaia bilakatu da. Joan den mendean (XX. mendean) gehien bat erabiliak izan diren funtzionalismoaren edo estrukturalismoaren paradigmek, errealitateari hurbiltzeko ikuspuntu sinkronikoa planteatzen zuten, historiari bizkarra emanez. Horren ondorioz, ikuspegi horien menpean ikertutako errealitateak isolaturik agertzen ziren, hots, konfliktotik eta aldaketatik at.

Kultura herrikoien elementuei buruz, ikuspuntu historiko batetik hitz egiterakoan joera nagusi bi bereizten ditut. Alde batetik, *supervivencias* edo iraganeko arrastoak kontzeptuarekin lan egiten dutenen joera, nolabait iraganeko bizitzaren moduak berreraikiz. Zentzu honetan, ikertzaileak, desagertzeaz dauden edota gaur egun bizitzeko era hegemonikoen arrasto periferiko bezala agertzen diren adierazpen kulturaletan jartzen du arreta berezia. Bestetik, fenomeno kulturei buruz asmakizun edo eraikin modura mintzo dena. Ikuspuntu honek zera suposatzen du, kultura herrikoia ez dela berez existitzen kanpotik begirada edo definizio baten menpean ez bada, alegia, une historiko zehatz batean, bai ikertzaile-behatazaileak, bai aktore sozialek egindako eraikin edo kreaio bat dela, tradizioa eraikitzen baitute gaur eguneko eta iraganeko ezaugarri soziokultural zehatzak aukeratuz eta nahastuz.

Lan horietariko batzuek, inplizituki zein esplizituki, nolabaiteko nostalgia dute. Halere, aktore sozialek egun bizi diren harreman sozial eta politikoen testuinguruan hartzen dituzte beraien erabakiak. Eta ikertzaileak hortxe bertan bilatu behar ditu. Alegia, interesatzen zaidan historiak ez du zer ikusirik historialariak egiten duen iraganeko berreraiketarekin edo iragan zehatza ezabatzen duen antropologoaren denborarekin. Beraz, historia eta honek kulturekin duen harremana interesatzen zait, harreman sozialen, adierazpen kulturalen, eta bilakaera eta garapen politikoen arteko lotura bezala ulerturik.

Marijesien ikerketarako historia kontuan hartuko dut, ikertzen nabilen gizarte hau prozesu historiko zehatz batean murgildurik dagoen neurrian. Hots, ikerketa hau berebiziko ezaugarriak dituen garatutako gizarte historiko batean egiten da. Baina oinarrian interesatzen zait, tradizioarekin eta herriko sorkuntza kulturekin duen harremanagatik, testuinguru politiko eta ekonomiko zehatz batean bizi diren gizabanako zehatz batzuen sorkuntza den neurrian. Azken finean, ikusi nahi nuke nola ekintza kultural bat tradizioa bilakatzen den.

Asmoa ez da ohiko komunitate ikerketa bat egitea, non komunitatea isolaturik eta denboraz at dagoen unitate oso bat bihurtzen zaigun. Asmoa, aldiz, bai ikuspuntu diakroniko-historikotik, zein ikuspuntu sinkroniko-estrukturalatik aztertzea da. Alegia, nahiz eta errituaren alde historikoak

kontuan izan, ikerketaren oinarria orainaldi etnografikoa izango da. Baina ez orainaldi etnografiko mugiezin bat, baizik eta bere historian kokatuta. Beraz, estrategia metodologikoa, kulturaren segmentu edo adierazpen zehatz batetik abiatuz, komunitatearen alde globaletan eta testuinguru geo-politikoetan sakontzea izango litzateke. Horrela, erritua, prozesu historiko-sozial baten barnean gertatzen den beste prozesu bat izango litzateke, eta zentzu horretan gaur egun duen egitura eta historian bizi izan dituen aldaketak aztertuko ditut. Horretarako beharrezkoa da tokiko eta testuinguruaren egoera soziala, ekonomikoa eta kulturala kontuan edukitzea.

Lanaren xedetariko bat, historiaren eta tradizioaren erabilpen kontziente edo inkontzientearen bidez sortzen den identitatearen eraikuntza prozesua nola garatzen den antzematea da.

2.2. Kontzeptuak: ekintza errituala eta performantza, tradizioa, folklorismoa eta berpizketa

2.2.1. Ekintza errituala eta performantza

Beraz, saiaturiko naiz adierazpen kultural hau aztertzen, tokiko identitatea eragiteko gai den ekintza sozio-sinboliko bat izango balitz bezala, identitatearen berreraikuntza fenomeno zehatz bat eragiten baitu. Horretarako, antropologiatik errituari buruz garatu izan diren teorien itzalpean nahi izan dut kokatu, gaur egun ekintza horietan erabiltzen diren esanahi eta adierazleak aztertzeko. Iraganean produkzioari eta izadiaren zikloen birsorkuntzari loturik izan diren aldizkako ekintza hauek, gaur egun, berriz, tokiko berreraiketa identitarioari loturik aurkitzen ditugu, identitatearen kontzientziaren tokiko berreraiketa bezala ulertuta, batez ere inkulturazio edo akulturazio prozesuen ondorioz identitatea desagertu, desorekatu edo ahuldu denean.

Identitatearen berreraiketa hau errituen funtzio identitarioaren bidez osatzen da, ekintza tradizional horietan erabilitako sinboloen eta indizeen bidez talde baten edo espazio baten kide izatea ospatzen baita, eta gaitasun performatiboa nabarmena baitute, hots, gizakiak talde eta lurralde baten kideak bihurtzea lortzen dute.

Errituei eta ekintza erritualei buruz hitz egiterakoan, egoera eta arau zehatzei loturiko portaerei buruz ari naiz zehazki (hitzak, ekintzak, keinuak eta egituratutako sekuentziak), hau da, errepikapena, formalitatea, konbentzioa, estereotipia, formen finkapena eta maila sinbolikoan baloreen eta sinesmen kondentsazioaz markaturiko portaerak hain zuzen. Beraz, gehien bat ekintza sinbolikoak dira, hitz, jarrera edo keinuen bitartez, errealtate sumatuezin bat oroitzen, irudikatzen eta baldintzatzen baitute, batez ere, sumatu ezin bitartekaritza sinboliko horien bidez ez bada. Baina gainera estruktura, barneko sekuentzia eta forma eduki behar dute.

Informazioa komunikatzen duen ekintza erritual bati buruz ari garen neurrian eta kontuan harturik zeinu batek era berean indize (index) eta

sinbolo bezala funtziona dezakeela ematen zaion erabileraren arabera⁷(Ch. S. Peirce, 1931; J. R. Pierce, 1962; Ch. Morris, 1962; F. de Saussure, 1982), Gernikako Marijesietan, alde batetik, ekintza eta elementu sinboliko oroiterazleak aurkituko ditugu (espazioak eta denborak, keinuak, mugimenduak, jarrerak, etab.). Bestalde, berpizketa eta sekularizazio prozesu bat bizi izanik, gainazaleko azterketa bat egitea errazten duten elementu indexikoak eta autoerreferentzialak agertuko dira, komunikazio elementu fidagarriagoak baitira (partehartzea, partehartzaileak, adinak eta sexuak, janzkerak, etab.).

Errituen azterketan, hermeneutika kriptikoetatik egindako sinboloen azterketei darien anbiguitasuna (Sperber, 1988) ahalik eta gehien ekiditeko, autore batzuk indizeak erabiltzen dute, esaterako, A. R. Rappaport-ek (1979). Indizeak erreferenteak dira eta, batik bat, autoerreferenteak, errituari buruz mintzo baitira zuzenean eta klabe binario batean. Rappaporten arabera, bai ekintza finkoak (hau da, kanonikoak), bai indizeak, elkarrekin doaz keinuen, mugimenduen eta jarreraren mamian. G. Bateson-ek (1991) teoria zibernetika (sistemak, komunikazio analogiko/digitala, etab.) giza zientzietan orokorrean aplikatu zuen neurri berean, Rappaport-ek ere errituen ikerketan aplikatuko du, horien alde binarioa azpimarratuz. Honen iritziz, formalismoa eta ekintza dira errituen ezaugarri nagusiak, eta beraz konputazio sistema digitala izango balitz bezala ulertzen da (Rappaport, 1979: 186), marko erritualak anbiguitasuna, kontraesana eta iruzurra deuseztatu egiten baititu.

Antropologiaren historian zehar errituaren tratamendurako izan diren proposamenen artean Durkheim-en *Las Formas Elementales de la Vida Religiosa*, lana dugu. Bertan, denbora sailkatzeko (sakratu/profano) modu bat bezala aurkeztzen du erritua, eta baita egitura sozialaren isla bezala ere, bizitza soziala sendotzeko eta kohesionatzeko duen funtzioa azpimarratuz. Asko izan dira autore honi jarraituz jai-denbora ideia horri ekin dioten autoreak, errituen denbora ohiko denboratik at kokatuz, eta era berean eguneroko denbora sekularra eta profanoaren aurrean, sakratutzat hartuz. Ikerketan, errituaren alde kronologikoen garrantzia planteatzen dut, espazioen eta denboren erabilpen zehatza izaten baita: bederatziurrena, gaua, urteko aldizkakotasuna, ordu eta erdiko iraupena, ez dira inola ere ezaugarri neutroak.

Denbora eta espazioa edozein fenomeno sozialaren oinarritzko dimentsioak ditugu, alegia, azterketa antropologikoaren menpean elementu semantiko edo indexiko bilakatzen diren esperientziaren baldintzak edo kategoriak. Beraz, Marijesiek espazioan egiten duten erritualizazioa (markatuz, bereiztuz, eta esanahiez hornituz) erabiliko dut, identitatearen eta komunitatearen berreraiketa zein elementutan oinarritzen den azaltzeko.

7. Zeinuan esanahi eta adierazlearen arteko harremana naturala eta intrintsekoa izaten da. Sinboloan aldiz harreman hau guztiz arbitrarioa izaten da. Hemen badago atribuzio eta irudikapen bat. Beraz, sinboloak esanahi eta adierazlearen arteko harremana arbitrarioa eta konbentzionala izaten dituzten zeinuak dira (Morris, 1962). Turner-ek, eta Sapir-ek (1975) berak uste dute zeinu guztiak seinaleak (indizeak) edo sinboloak direla erabileraren arabera, hau da, erabilera erreferentziala izaten baldin badute edo, aldiz, erabilera esanahiak eta baloreak kondentsatzen baldin badituzte.

Bestalde, igarotze-errituen estruktura aztertzen zuen A. van Gennep⁸ folkloristaren lanak, korrante estrukturo-funtzionalista eta V. Turner⁹ ekarpenak bultzatu zituen. Turner-ek, igarotze-errituen estrukturaren azterketatik liminalitatearen kontzeptua hartzen du. Autore honen arabera, erritu guztietan izaten diren une hauetan, estruktura soziala ahuldu egiten da, eta anti-estruktura azaltzen da, komunitatearen oinarrian dauden iraganeko baloreei eta mitoei paso emanez eta *communitas* izenarekin ezagutzen duen hori eraikiz. Alegia, erritua kontrolatzen dituzten agureen autoritatea onartzen duten indibiduo berdinekin osatutako komunitatea dugu *communitas*, hain zuzen. Horrela azaltzen digu hitzaren zergatia: “prefiero la voz latina *communitas* a “comunidad”, para distinguir esta modalidad de relación social de un ámbito de vida en común” (Turner, 1988: 103).

Baina aldi berean, nekazal (artzain, etab) komunitate eta hirikoen artean bereizketa bat egitea ere proposatzen digu. Nekazal komunitateetan erritua topatuko genuke, eta, aldiz, hirikoetan performantza. Turner⁹en arabera, aldaketa sozialaren nozioa kontuan edukiz gero, adierazpen kultural liminaleen eta liminoideen artean bereiztu beharko genuke (Turner, 1974). Nekazal gizarte tradizionaleko testuinguru erlijiosoetan ikusten ditugun adierazpen erritualak liminalak izango lirateke. Egutegiaren ziklo biologikoekin duten harremana eta gizartearen gehiengoaren derrigorrezko partehartzea dira adierazpen horien ezaugarri nagusiak. Marijesien erritua interpretatzeko, liminalitatearen kontzeptu teorikoak aukera ugari ematen dizkigu¹⁰, baina dituzten ezaugarri performatiboan azterketaren bidez beste ikuspuntu berri bat saiaturiko naiz ematen.

Teknologikoki garatutako komunitate industrialetan, errituak barik, performantzak ditugu, alegia, hiriko bizitzan aisialdiaren propio diren gertaera erritual liminoideak, hain zuzen. Adierazpen horietan talde sozial zehatzen indibiduoak batzen dira, ez da izaten partehartzearen derrigortasun hura eta fenomeno liminaletan partehartzeari egotzen zaion karakter sakratua ere ez dute.

Linguistika arloan pragmatikaren ikuspegitik egindako aurrerapenek, errituen performatibitatearen ikerketak bultzatu dituzte. N. Chomsky-k (2002), eskuratze gramatikaren oinarri kognitiboa bila zela, erregularitate linguistikoa benetako mintzamenean, alegia *performance*-an bilatu beharrean, *competence* abstraktuan bilatu zuen. Horren aurrean Ipar Ameriketako folkloristek, (Hymes, Abrahams, Dundes, Ben-Amos, Lomas) mintzamenaren etnografiatik zera planteatzen dute: performantza bere testuinguruan hartzea izango dela, hizkuntza ekintza bat bezala ulertzeko gakoa (Sánchez Carretero, C. y Noyes, D. Eds. 2000: 26).

8. A. van Gennep (1986).

9. V. Turner (1988).

10. Hurrengo bikote hauen guztien arteko muga: hiria/elizaurrea, udazkena/negua, eguna/gaua, joan den urtea/datorrena, pribatua/publikoa, nerabezaroa/gaztaroa, sakratua/profanoa. Liminalitate harreman hauetariko batzuk Icobalzetak (1994) aztertzen ditu.

Zentzu honetan, garrantzitsuena ekintza komunikatiboaren zentralitatea izango litzateke, eta aldi berean performantzarekiko gainontzeko elementu formalak testua barne, birtualitateak baino ez direla. Ekintza horiek, ikus-entzuleengan emozio zehatzak eragitea dute helburu. Hau dela eta, kontzeptu honetan oinarritutako ikuspuntuak tradizioaren alde dinamikoak eta kreatiboak agerian ipintzea uzten digu.

Performantzaren kontzeptua, partaideek elkarrekintzan eraikitzen duten testuinguruari dagokio, une zehatz batean, egoera apartekoa eta esanguratsua dela komunikatuz. Ikuspuntu honetatik aztertuta, folklorea balore eta kode estetiko kulturalen irudikazio publikoak dira. Beraz, komunitate batek performantza on bat edo erritu bat behar den moduan egiteko jarraitzen dituen erizpide eta arauak aztertzeak, estetikoki estimatuta dagoenaren eta onartutako baloreak zeintzuk diren berri emango digu (Bauman, 1977).

Antropologian, B. Malinowski-ri (2000) aspaldian otu zitzaion erritualetan ikusten zuen lengoaia performatiboa zela, alegia, hitz “magikoe” zerbait transmititzen (eta egiten) zutela. Hau da, errituetan erabiltzen den lengoaiaren egitura eta erabiltzeko baldintza sozialak direla eta, zerbait esaten denean eraginkortasuna transmititzen zela. Eta zehazki, V. Turner-ek *social drama*-ri buruz egindako lanak ildo honetatik ere badoaz, lengoaia errituala komunikatibotzat jotzeaz gain (sintaxia-estruktura; semantika-esanahia), performatibotzat ere jotzen baitu (erabilera eta hizlari/entzulearen arteko harremana, performatibitatea, erritualak finkatu egiten du ekintzaren bidez).

Ikuspegi hau garatu duen antropologoa S. J. Tambiah dugu (1985). Honen ustez, errituaren lengoaia urria, formala eta estilizatua da autoritatea ematen diona. Hau, oso arkaikoa eta indartsua da, eta ez du eztabaidarik onartzen. Beraz, esanahia formetan aurkitu behar dugu (keinuetan, jarreretan, tonuetan, etab.), hots, gauzak nola egiten diren kontuan hartu behar dira. Lengoaia honek komunitatearen zimentarriak adierazten duen legitimatutako autoritate bat sortzen du, autoritate tradizionala alegia. Hitz eta jarrera batzuen erabilerak eta formak dira, erritualetan gauzatu eta indibiduoetatik at datorren autoritatea berreraikitzen dutenak. Horregatik, lengoaia eta keinu erritualak errepikakorrek eta iragarriak dira. Tambiah-ek, proposatzen digu erritua komunikazio sinboliko sistema bat legez ikustea, ordenaturiko sekuentziaz, hitzez, eta ekintzez osaturiko sistema, alegia. Ordenamendu horren ezaugarriak hauexek izango lirateke: formalitatea (ohizkotasuna), estereotipia (zurruntasuna), kondentsazioa (fusioa) eta erredundantzia (errepikapena) (S. J. Tambiah, 1985). Hitzek eta aipamenek duten eragiteko gaitasunari Austin-ek (1981) indar ilokuzionaria deituko dio.

P. Bourdieu-k, hitzen indar ilokuzionaria horretatik haratago doa eta hitzek berez performatibitatek ez dutela proposatzen du. Ekintza erritualetan bat performatiboa eta eraginkorra izan dadin, hitzak ondo esan behar dira, baina gainera beharrezkoa da autoritatea duen norbaitek hitz horiek esatea (konpetentzia esparru baten posizio zehatz bat duen norbaitek). Eraginkortasuna, beraz, hitzetik at dago eta legitimatutako autoritate batetik dator. Bourdieuren arabera (1982: 71-75) aipamen performatiboen benetako magia “ministerioaren

misterioan” datza, hau da, delegazio horretan. Era berean sinbolismo erritualak ez luke berez eragingo, delegazio hori irudikatzen duen neurrian baino (antzertiaren zentzuan).

2.2.2. Tradizioa

Aktore sozialari galdetzen diogunean errituan parte hartzera bultzatzen duten motibazioei buruz, beti aipatzen du esplizituki tradizioaren arrazoia eta inplizituki tradizio horren preserbatzearen interesa.

Baina “tradicional” hitzaren azpian kontzeptu konplexu bat aurkitzen dugu. Tradizionalizazioaren prozesua, hau da, adierazpen kultural herrikoi bat tradizional bihurtzea eraikin prozesu bat da. Bertan faktore askok hartzen dute parte; alde batetik, folklorista batzuek duten kulturaren kontzeptu esentzialista eta denboraz kanpoko erromantizismoaren herentzia dela eta; bestetik, elite burges eta intelektual batzuen jardura eta, azkenik, aktore beraiek duten adierazpen horren jarraipenaren pertzepzioa.

XIX. mendearen erromantizismoak “herriaren aurkikuntza” ekartzeaz gain, hainbat transformazio sozio politiko ekarri zituen: industrializazioa, nekazal exodoa, nazionalismoen agerpena edo berreraiketa identitarioaren prozesuak non ordutik aurrera folkloreak garrantzia gero eta nabariagoa izango da. Ikuspegi erromantiko honek herrikoi kontzeptua izaditik gertu zegoen adierazpen kultural bat legez ikusten zuen. Are gehiago, herriaren izpiritua, alegia, gerora eraikin nazionaletan erabiliko zen izpiritua gordetzen zuela proposatzen zuen. Adierazpen kultural herrikoi jakin batzuen zinezkotasuna aldarrikatzen duten hainbat ikertzaile eta folkloristen eskutik heldu zaigun ikuspuntua dugu hauex. Diaz G. Vianaren iritziz, adierazpen kultural horiek ezaugarri zehatz batzuk dituzte. Esate baterako: “herrikoi jatorria izatea; autore jakina ez izatea; ahoz transmititua izatea; bariante eta bertsio ugari izatea; aspaldikoa izatea nahiz eta hasiera zehatz ezina izatea; eta bertoko izatea” (1999: 12). Aukeraketa prozesu hori beteko zutenak, herriminez jota zeuden elite burges batzuk izango ziren, herri kanten eta dantzen biltzaileak, autore honek asmatu zuen *guardianes de la tradición* irudi horren eredu ezin hobea (1999: 77-80).

Tradizioa eta haren interpretazioa, identitatea legitimatzeko beharrezko tresnak izango dira beti. *La invención de la tradición* liburuan, E. Hobsbawm-ek eta T. Ranger-ek¹¹, manipulazio politikoak erritu tradizional hauskorretan dituen ondorioak erakusten dituzte. Hobsbawmek planteatzen du, tradizioa elite batzuen eskutik orainalditik asmatuta izaten dela beti; beraz, honelako ikerketei aurre egitean bi arazoren aurrean erri jarri beharra dugu.

Alde batetik, aktoreen interpretazioetatik biltzen dugun informazioaren fidagarritasun eskasa, etengabe tradizioari eta iraganari jotzen baitute primordialismo ariketa batean. Bestalde, ondasunaren galera inguruan egiten

11. E. Hobsbawm eta T. Ranger (1983).

den erreflexibitateak edo hausnarketak, folklorismo eta kontserbazionismo joera nabarmena dakar, hau da, ekintza tradizionalak fosilizatzeke joera, J. Martí i Pérez-ek planteatzen duen zentzuan (1996).

Gernikako Marijesiei buruz aktore sozialek beraiek, auzotarrek eta errituaren ikertzaile batzuek egiten dituzten deskribapenetan agertzen den ezaugarrietariko bat iraganerako joera hau ere badugu (aspalditik/desde tiempo inmemorial). Joera honek gaur egun identitatea bermatzen duen lokarri bat legeztun funtzionatzen du. Baina zentzu honetan, esan behar da identitate guztiek erreflexibitatea dutela oinarri, eta beraz, behatzaileak sarritan aurkituko ditu aktore sozialak hau berreraikitzen tradizioaz baliatuz; alde batetik, denbora historikoaren eraginpean eta, bestetik, tradizioaren eta jarraipenaren artean eraikitako tranpa baten erdian, hots, folklore bizia eta folklorizazioaren artean.

Adierazpen kultural guztien ezaugarrietariko bat aldakortasuna izaten da. Gaur eguneko antropologiak bereziki azpimarratzen du kultura dinamikoa dela eta oso arrunta izaten dela adierazpen zehatz bati eduki eta esanahi berriak ematea. Bestalde, bizirik dirauen kultura tradizional baten ezaugarrietariko bat, kultura horren partaideek antzematen duten jarraipenaren ideia hori izaten da, abestu eta dantzatu egiten baita gutxi gorabehera arbasoek egiten zuten moduan, hau da, tradizioaren etengabeko ildo bati jarraituz.

Jarraipenaren¹² ideia horren aurrean folklorismoak suposatzen duen etena dugu, azken honek beste garai bateko errealitatea eskaintzen baitigu. Zentzu honetan, pertzepzio subjektiboa izango da erritu bati denboran jarraipena ematen diona, ekintza erritualak estereotipikoak izaten badira ere, denboran eta espazioan aldaketak izaten dituztelako. Baina preserbatu behar den tradizio baten kontzientzia dagoenean, galdu litekeenaren kontzientzia eta berreskuratzeko nahia, formetan, funtzioetan eta edukietan finkatzearen tentazioa sortzen da askotan eta folklorismoa bere dimentsio osoan agertzen da.

Horrela “folklorismoa”, modu erraz batean esanda, herrikoi edo tradizional deritzen kulturen gaur eguneko gizarteak duen interesa izango litzateke, bai aktiboki bai pasiboki adieraz litekeen interesa. Beraz, kontzeptu honek, tradizio kontzientzia bat, hasierako balorazio positibo bat eta tradizioari eman nahi zaion erabilerako asmo zehatz bat suposatzen du. Asmo hau oinarrian estetikoak, komertzialak edota ideologikoak izan liteke. Beraz, folklorismoaren alde aktiboak, “manipulatzea”, “manieiatzea”, inplikatzeko du (Martí i Pérez, 1996: 19).

Todos los intentos actuales de revitalizar o recuperar tradiciones perdidas, ya sean de cariz erudito, por amor al país, con finalidad lúdica o comercial, tienen que ser consideradas como expresiones del folklorismo[sic], ya que per definitionem implican una manipulación directa o indirecta del legado tradicional mediante las soluciones artificiales con las que se pretende resucitarlo o mantenerlo con vida. (Martí i Pérez, 1996: 207).

12. Folklorismoa eta jarraipen kontzeptuei buruz sakontzeko, ikusi Martí i Pérez (1996: 24).

Folklorismoak gure galdutako tradizioa nola ikusten eta ulertzen dugun erakutsiko digu eta adierazpen kulturalak biztanleriatik beratik urrundu egingo ditu nolabait, goi mailako ondare sinboliko bilakatuz, oroitu nahi den hura (kultura tradizionala, alegia) inoiz lortu gabe, eta azken finean bigarren eskuko kultura bilakatuz.

Marijesietan abesten den testuan hainbat aldaketa ditugu, beraz, esan dezakegu autoretza anitza dela, denboran baitan kopia berriak erantsi eta beste batzuk, aldiz, kendu egin baitira. Folklorizazio prozesuetan agertzen den ereduaren ezaugarri bat testu tradizionalen sinplifikazioa izaten da luzeegiak izaten ohi direlako. Hauek ere nolabait eredu honi jarraitu diote, gaur egun ezagutzen diren 78 kopletatik 28 baino ez dituztelako abesten, baina aldi berean kopia berriak ere erantsi dituzte, esate baterako 70eko hamarkadan asmatu zituztenak. Beraz, funtzional, ideologiko edota morfologiko mailan izan diren aldaketak (emakumeen partehartzea, ibilbideetan, testuetan, etab.) saihestezinak dira; halere, aurrean dugun kasuan folklorizazio fenomeno bati buruz ari garen ala ez planteatzea interesgarria iruditzen zait.

Maila morfologikoan bizi izan dituzten aldaketek ez dute inolaz ere errituaren folklorizazio prozesu baten aurrean gaudenik adierazten. Aldiz, errituaren dinamika propioaren ondorioak direla esango nuke (esentzializazioa eta erreifikazioa dira folklorizazioaren ezaugarrietariko batzuk). Egia esateko, hauek hausturaz baino, jarraipenaz mintzo dira. Baina planteatu ahal duguna zera da: tradizio baten preserbazio nahiaren kontzientziari erantzuteko, oinarri ideazionalan gertatzen den aldaketaren posibilitatea egon badagoela.

Zentzu honetan, folklorearen eta oinarri ideazionalako folklorismoaren artean egongo lirateke, aktore sozialen diskurtsoan argi eta garbi agertzen baita kontserbatu behar den ondasun kultural tradizional baten aurrean gaudela. Bertan parte hartzen dutenen begi bistako motibazioa “tradizioa mantentzea” da, hots, tradizioagatik joaten dira. Beraz badago, erreifikaziorako joera errazten duen tradizioa mantentzeko kontzientzia sendo bat, neurri batean edozein adierazpen kulturalen berezko bilakaera eta aniztasuna oztoka dezakeena.

Bestalde, argi dago edozein ondare mota konpartitzea deseroso izaten dela, eta, zentzu honetan, Marijesien inguruan eskusibitate eta jabetza kontzeptuek argi funtzionatzen dute. Zeinu bereizgarri bilakatu den ohitura hau kontu handiarekin gordetzen da, eta denbora aurrera joan ahala garrantzi sinboliko zehatza irabazi du, alegia irudikapen kolektiborako zama semantiko berri bat. Erljiotasun tradizionalaren trazu morfologikoak mantentzen dituzte; halere, oinarri ideazionala nolabait aldatu egin da. Baieztapen kultural eta identitarioaren beharrak eraginda, tradizioaz jabetu ondoren sortu den kontzientziak, erritua ideazional mailan folklorismoz blaitu du eta errituaren semantika berria bilakatu da. Maila honetan gertatzen den folklorismo fenomeno hau, bestalde, unibertsala izaten da, batez ere, baieztapen identitarioaren behar garrantzitsua daukaten kulturetan. Eta gaitzesteko fenomenoak izan barik, zalantzarik gabe horietako ohitura asko bizirik mantentzeko baliagarria izan da. Haatik, ematen duen kulturaren ikuspegi estatikoa eta metagarria nolabait desegokia da.

Adecuar la tradición a nuestra sociedad actual implica transformarla en algún sentido, quizá en el aspecto morfológico, pero sobre todo en el semántico y funcional, para así poder acomodarla a su nuevo contexto. Aunque estos cambios son inherentes a toda manifestación folklórica [sic], no siempre somos conscientes de ello, algo que es fundamental e imprescindible para todo intento de conservación dinámica de nuestro legado popular. No debemos pues, tener reparos en modificar conscientemente lo que, en realidad, solo es inalterable a los ojos de algunos folcloristas. (Martí i Pérez, 1996: 220).

Erabiltezin bilakatu diren adierazpen kulturalak ahaztu egiten dira edo, bestela, egoera berrira egokitu behar dira, eta, azken kasu honetan, usadio eta funtzio berriak eman behar zaizkie. Nire ustez, Marijesien benetako balioa ez da soilik duten ustezko antzinatasuna, ezta itxura sekularrari gordetzen duten fideltasuna ere, baizik eta bizirik mantentzen dutela entzuleak sakonki hunkitzeko gaitasuna. Horretaz gain, ekintza erritual liminala izaten jarraitzen dute. Hau da, ez direla ekintza liminoide bilakatu V. Turner-ek kontzeptu horiek planteatzen zuen zentzuan¹³, eta beste hainbat adierazpen kulturalekin gertatu den bezalaxe, esate baterako Fernandez de Larrinoaren iritziz, Zuberoako Maskaradetan gertatu izan den bezala:

[...] este género de teatro de carnaval ha pasado de ser un fenómeno o actividad ritual *liminal*, (ligada a los ciclos y calendarios agrícolas, estructuras de autoridad precisas, límites de participación bien definidos) a consagrarse en los últimos años como fenómeno ritual *liminoide*: actividad de domingo o vacación ligada a divisiones y estructuras espacio-temporales mas propios de acuerdos socio-económicos provenientes del mundo urbano-industrial, que de las propias concepciones campesinas europeas tradicionales. (Fernández de Larrinoa, 1997: 85).

Hobsbawm eta Rangeren proposamena, (XX. mendeko) 60ko eta 70eko hamarkadako propio izan zen dinamika antirritualistikoan kokatzen da. Baina 1992 urtean, J. Boissevain-ek¹⁴ jai-erritualei buruzko lan bilduma bat argitaratu zuen. Bertan zera planteatzen zuen: ez sekularizazioak, ez produkzioaren arrazionalismoak, ez mugikortasuna, ez mass mediek, ezta Hobsbawm eta Ranger-ek (1983) egin zituzten asmatutako tradizioei buruzko kritikek, ez dutela jai-errituekin amaitu mendebaldeko gizartean. Alderantziz, ikerketa hauek horien berpizketa eta ugalketa azpimarratzen dute.

2.2.3. Berpizketa. Kontzeptua, ezaugarriak eta aldaerak

Modernitateak tradizioaren eta kolektibitatearen autoritatea ahultzen duen ideiak denbora luzean iraun du. Globalizazioaren ikerketa batzuek, aldiz, eragin hegemonikoari kultura mailan ematen zaizkion erantzunak anitzak direla planteatzen dute (García Canclini, 2001; Berger & Huntington, 2002; Tomlinson, 2001). Batzuetan kultura globala onartzen da, baina tokiko berezitasunari moldaketa esanguratsuak eginez; beste batzuetan

13. Ikusi Turner (1988).

14. *Revitalizing european rituals*. J. Boissevain (1992).

alde arrotzen eta bertokoen arteko hibridaziora jotzen da, eta azkenik, eragin globalek bertoko adierazpenen berpizketa ere eragin dezakete. Azken joera hau interesatzen zait bereziki, Marijesien kasuan 70eko hamarkadan (XX. m.) hasten den berpizketa prozesu bat aurkitzen baitugu. Halere, aktore sozialen ustean gaur egun ere, prozesu hau bizirik mantendu beharra dago.

Dinamika horien barne, krisiak gainditzeko identitatea etengabe berreraikitzen da. Eta horren abiapuntua galeraren konzientzia dugu. Erreflexibitatea, kasu honetan, norberaren kulturaren ezberdintasunaren kontzientzia bezala ulerturik, identitate guztien osagarria dugu eta gaur eguneko gizartearen oinarritzko ezaugarria. Ikerketan, errituaren barneko aldeak zein kanpokoak erregulatuz eta planifikatuz erabiltzen diren identitate adierazpenen erreflexibitate maila zein altua den ikusiko dugu.

Bestalde, identitate kolektiboaren iturri tradizionalak, lana, erlijioa, ideologia politikoa, etab., eduki izan duten gaitasun hori galdu egin dute eta, zentzu honetan, iturri berriak bilatzen dira bai nazio mailan, tokiko mailan, zein indibidualki (mugimendu sozialak, GKEak, ekologia, etab.)¹⁵. Kasu honetan batez ere, tokiko identitatea interesatzen zait. Maila honetan, tradizioan bilatzen baita, hau da, iraganean ainguratuak dauden tokiko elementu kulturalak berpiztuz. Eta zenbat eta urrutiago izaten bada, hobe, zeren eta tokiko identitatearen berpizketa prozesu horren ezaugarrietariko bat, iragan urruti baten etengabeko erabilera izango baita. Horrela, ekintza tradizional horien erabileran neurrigabeko kontserbazionismora eta fosilizaziora jotzen da eta alde marjinalak eta hutsalak funtsezkoak bilakatuko dira identitatea berreraikitze eta beste talde batzuegandik bereizteko.

Tokiko erritu hauetan erabiltzen diren tradizioaren propio diren elementu sinbolikoei esanahi berriak ematen zaizkie. Errituaren sinbolo eta elementu estetikoak berrinterpretatu egiten dira selektiboki, testuinguru sozio-politikoaren arabera. Bertan erabiltzen den kapital sinbolikoa oso interesgarria izaten baita monopolizatuz saiatzten diren talde askotarako, eta, ondorioz, kutsu politiko nabarmena hartzen dute. Ch. Bromberger (1989) eta A. Cohen (1974) tokiko ekintzei buruz ari direnean, identitatea eraikitze ekoizleen zeinu sistema izango balira bezala mintzo dira, egitura eta narratiba globalek inposatutakoaren aurrean. Kasu askotan berreraikitako identitate honek dimentsio politiko nabarmena izaten du eta ezartzen diren muga sinbolikoak tokiko esparrua gaindituz, esparru zabalagoetara hedatzen dira. Zentzu berean, hurrengo autoreek jaien erabilera politikoari buruz ikertu dute: C. Geertz (2003), D. Kertzer (1988), R. Da Matta (1991).

50eko eta 60ko hamarkadetan Europan zehar tradizioen galerak modernizazio- eta sekularizazio-prozesuak eragin zituen, baina 70eko eta 80ko hamarkadetan prozesua alderantziz egiten da. Arreta ingurumenean, errituetan eta bizitza naturalean ipintzen da. Horrela, identitate berriak

15. Zentzu honetan ikusi, Melucci (1994) edo Castells (2002).

bilatu nahian, modernitateak dakarren homogeneousunari aurre egiten zaio. Bizitza tradizionala arautzen zuten espazioak eta sasoiak (elizateak, bederatziurrenak, esate baterako) ikuspuntu identitario batetik berreraikitzen dira. Susperketa eta berpizketa horiek, modernitateak dakarren hutsun-sentimenduari aurre egiteko jarduera neorromantikotzat hartu ezean, jai eta erritu horiek, gizakia kultura zehatz batekin identifikatzearen funtzioa betetzen dutela azpimarratu behar da. Horren emaitza identitatearen eta tokiaren mugen kontzientzi hedapena da. Hots, historia, ohiturak eta tradizioekiko interesaren hazkuntza.

Azken urte hauetan Europa osoan, errituen eta tradizioen berpizketa eta berreskuratzeari buruzko ikerketak ugaltu egin dira, batez ere, alde identitarioa azpimarratuz. Kontzeptu hau lehendabizi A. Wallace-n lanean aurkitzen dugu (1956) mugimendu erlijiosoei aplikatuz, baina garrantzia hartu izan du ikergai moduan batez ere, J. Boissevain-ek europar erritu sekularren berpizketei buruz egindako ikerketez geroztik. Europar antropologoei, denbora luzez “bestea” osatzen zituzten urrutiko herriak eta kulturak begiratzen bazituzten ere, orain beraiei kultura propioa ikuskatzen hasi dira eta horrek eragin handia izan du zentzu honetan. Gure artean J. Boissevain-ek planteatutako ildoari jarraituz, hainbat autore ditugu: A. Díaz de Rada, F. Cruces, H. Velasco eta A. Ariño Villaroya¹⁶ (VVAA, 1996), P. Jimeno Salvatierra (2002), K. Fernandez de Larrinoa (2000) edo J. Martinez Montoya (2002).

Autore horiek, postmodernitate garaiko Europa osoan hedatutako fenomeno horri buruz ari dira. Tokikoaren esnatze (“despertar de lo local”) bezala izendatu duten fenomeno horren ezaugarri nagusia, modernitateak ekarri zuen desengainuari aurre egiteko ikuspegi identitario batetik sortzen diren tokiko tradizio eta ohituren berpizketak eta berreskuraketak ditugu (J. Boissevain, 1992; J. Mac Clancy y R. Parkin, 1997; K. Fernández de Larrinoa, 2000; J. Martinez Montoya, 2002). Honi jarraituz, P. Jimeno Salvatierra antropologoak, *Rituales de identidad revitalizados* (2002) izeneko ikerlanean, Madrilgo mendi aldeko herrietan, trantsizio demokratikoaren aldaketa politikoaren garaian, erritu sekularren agerpena aztertzen du. *La Vaquilla* izeneko berpiztutako erritu identitario horien azterketan, autore honek berreraiketa kultural horiek eta egitura ekonomiko eta politikoa harremanetan jartzen ditu.

Bestalde, modernitate aurreratuan jaiaren bilakaeraren ikerketari eskainitako liburu batean, A. Ariño Villaroyaren eta H. Velascoren lan interesgarriak aurkituko ditugu (VVAA, 1996). Espainiar estatu mailan jai ikerketan aitzindari izan den *Tiempo de fiesta* izeneko lanaren autoreak, H. Velascok alegia, F. Crucesekin eta Díaz de Radakin¹⁷ batera artikulua bat sinatzen du. Bertan, sekuentzia denboralak eta erabilera espazialak abiapuntu hartuz, gizarte

16. Autore horien lanak hurrengo erreferentzian aurkituko ditugu: VVAA. “La utopía de Dionisios: Las transformaciones de la fiesta en la modernidad avanzada”. In: *Antropología. Revista de pensamiento antropológico y estudios etnográficos*, 11 zkia. Madrid: Grupo Antropología Ed., 1996.

17. *Fiestas de todos, fiestas para todos*. VVAA (1996).

modernoen jaien ezaugarriak aztertzeke oinarriak planteatzen dituzte. Ariño Villaroyaren¹⁸ iritziz, aldiz, jaiaren berpizketa ikertzea barik, kronologian, semantikan, sintaxian eta jaietako subjektuan gertatzen diren bilakaerak aztertzea interesgarriago izango litzateke.

Boissevainen proposamenak kontzeptuaren planteamendu teorikoa baino ez du jorratzen, politiko eta ekonomiko arloarekin erlazionatu barik, eta errituen berpizketa eta berreskuraketa fenomeno ezberdinei ezaugarri desberdinak emanez, esate baterako: asmakizuna, berrikuntza, susperketa, bertradizionalizazioa eta folklorizazioa (J. Boissevain, 1992).

“Asmakizuna”, espazio edo denbora berrien erabilerak eraginda ekintza erritual berriei dagokien kontzeptua dugu. Batzuetan kasu berean alde bat asmatua izaten da eta beste bat, aldiz, errepikatua. Bestalde, “berrikuntza”, erritualaren hazkundearen eskutik gertatzen da, batez ere, garapen sozial eta ekonomiko garaietan. Ilbilbideen eta partehartzearen aldaketak, ezaugarri honi dagokie.

Berreskuratutako jai eta erritu horiek ikertzen dituen antropologoa segidan konturatuko da, ohikoa izaten dela berriemaileen kontakizunetan iragan urrutiko existentziari buruzko erreferentziak agertzea, horren frogak eta guzti ematen baitituzte. Zentzu horretan, “susperketa” ezaugarriak adierazten du, erritu berriak iraganeko erritu horien berreskuraketak izango liratekeela.

“Bertradizionalizazioa” edo iraganera bueltatzeko nahia, atzerakoi (retro) elementuen erabileraren bidez adierazten da. “Folklorizazio”ari dagokionez, esan behar da orokorrean jantzien eta mozorroen antzeko elementuen erabileraren bidez agertzen dela eta P. Jimenoren (2002: 98) iritziz, ematen du askotan benetako errituaren falta ordezkatzeko duela. Hau da, erritu baten folklorizatutako denbora, hutsik edo galdutako erritua betetzeko denbora izango litzateke. Ezaugarri hau, fenomeno identitario hauetan guztietan zerbait deigarri egiteko izaten den beharraren ondorioa da.

Hauexek izango lirateke antropologoen berpizketa ideiaaren azpian biltzen ditugun adierazpen kulturalen formak. Halere, kontzeptua ahalik eta gehien zehaztu nahian, zentzu honetan, errealitatean aurki ditzakegun fenomeno ezberdinak sailkatzeko J. Nagel-ek (1997) proposatzen duen terminologia ekarri nahi dut gogora. Autore honek hurrengo kasuak bereizten ditu: berpizketa, zaharberritzea, berrikusketa eta berrikuntza. Kontzeptu teoriko hau, sormen kultural eta identitarioari dagokionez, egungo eta iragan historikoaren arteko loturak ikusteko erabilgarria bada ere. J. Nagelen¹⁹ ustean, globaltzat hartzen diren mota horietako prozesuetan, ondare tradizionalaren erabilpen ezberdinak egiten dira. Alde batetik, talde sozial batek aspaldian baztertutako, galdutako edo ahaztutako adierazpen kultural bati berriz ekiten diotenean, esan dezakegu

18. *La utopía de Dionisios: Sobre las transformaciones de la fiesta en la modernidad avanzada*. VVAA (1996).

19. J. Nagel (1997). Fernandez de Larrinoa-n bilduta (2000).

“berpizketaren” prozesu baten aurrean gaudela. Bazterketarako era askotako arrazoiak izaten dira: belaunaldi berrien kontserbatzeko desinteresa edo arrotz talde menperatzaile batek adierazpen iraupenari espresuki jarritako debekua, adibidez.

“Zaharberritze” kontzeptua ere proposatzen digu, gogo eza denboraldi baten ostean taldearen partaideek adierazpen bati berriz gogoz ekiten diotenen kasuan. Bestalde, folklorearen edo kulturaren osagai bizi bat egoera berri bati egokitzen denean, “berrikusketa” baten aurrean aurkitzen gara. Azkenik, talde baten elementu kulturalen “berrikuntzaren” kasua planteatzen du, hau da, talde horren partaideek adierazpen tradizionalai ekintza eta forma berriak gehitzen dizkietenean.

J. Nagelen planteamenduari zehazki jarraituz, Gernikako Marijesiak errituari ondare kulturalaren berrikusketa (*revisited*) kontzeptua egokitzen zaiola esango nuke, joan den mende osoan bizirik iraun denaren ziurtasun dokumentala baitago, guda zibilean gertatu zen bonbardaketaren osteko hiru urtetan izan ezik. Berriemaileen kontakizunetan urrutiko iraganaren erreferentzia etengabe agertzen da (dokumentatutako baino urrutiago), eta baita ohituraren jarraipena denboran ere. Errituaren formak, egiturak eta esanahiak gordetzeko ahalegina nabarmena izan da, baina testuinguru berriei egokitzeko jasan dituen aldaketak ezinbestekoak izan dira, esate baterako arestian aipatutako ibilbideen aldaketak, emakumeen partaidetza edota partaidetzaren hazkundera batez ere 70eko hamarkadatik aurrera. Halere, nire ustez berrikusketa kontzeptua ez zaio oso egoki moldatzen ikertutako errealitateari; beraz, testuinguru berri bati egokitutako folklore biziko kasu honi buruz aritzeko, nahiago dut berpizketa kontzeptua erabili, eguneroko erabileran lehendik bizirik dagoen zerbaiti buruz ari garela adierazten baitu, nahiz eta egoera ezin hobean ez egon.

3. ERRITUA: EZAUGARRIAK, AKTOREAK, EGITURA

Bederatzi gau tristetan
ibili gara otzetan
emoten bazu limosnatxu bat
sartuko dogu poltsetan

Puntu honetan aktoreek beraiek eta neronek egindako deskribapenetan oinarritutako errituaren monografia aurkeztuko dut. Horietan hainbat ezaugarri aurkeztuko ditut, hauek izango baitira ikerketa egiteko erabiliko ditudan oinarritzko dimentsioak: herrian barrena egiten den ibilbidea; elizetara egiten diren bisitaldiak; geldialdiak; abestutako 28 kopia; ordu erdiko iraupena; bederatziurrenean baitan aldatzen doan melodia; diru-bilketa eta horren helburua, besteak beste. Bestalde, herritarrek abeslariekin komunikatzeko erabiltzen dituzten argiak, azken eguneko gosari komunitarioa, edo bederatziurren osteko afaria. Gainera bederatzi gauz ibiltzea suposatzen duen esfortzua, sekularizazioaren prozesua, partehartzaileen profil erlijioso anitza, edo errituari buruzko interes eta kontzepzio ezberdinak.

Gero, hurrengo puntuan, alde batetik, erritua ikertu duten autoreek eman dizkioten esanahiak eta zein ezaugarritan kokatu izan duten beraien arreta zientifikoa ikusiz, beste ezaugarri batzuk erakutsiko ditut, esate baterako: gau-gaeuzkotasuna, urritasuna eta seriotasuna, aktore sozialen janzkerak, etab.

3.1. Ikergrafia hurbilduz

B. Malinowski-ren esperientzia abiapuntutzat hartuz, landa lana eta lekuan lekuko ikerlana antropologiaren tresna edo lanabes garrantzitsuenak bihurtu dira. Aspalditik, ikasle batek ez zuen akademikoki antropologoaren statusa hartzen beharrezko *rite de passage* hori betetzen ez bazuen eta, gainera, bere kulturatik ahalik eta urrunen izaten bazen, hobe. Azkenaldi honetan, aldiz, landa lanaren garrantzia zailtzat jarri izan da, batez ere, norberaren habia kulturaletik at egitearena; dena dela, diziplina honetan dugun lan egiteko metodo garrantzitsua izaten darrai (L. Diaz G. Viana, 1999; M. Cátedra Tomás, 1991).

Zentzu honetan, nire ikerketa egiteko orduan oso garrantzitsua izan da, beraz, dokumentazio lantxo bat egin ondoren, abendu 16 baten gaueko lauretan (hau da, 15 eta 16 arteko gauean) Gernikako Andra Mari elizaurrera joan nintzen. Larunbata zen eta horrek, gau-pasa eginez nirekin erritua ikustera eta parte hartzera etorriko zen kide baten laguntza lortzea erraztu zidan.

Beraz, laurak laurden gutxi ziren eta elizaurrearen ondoko banku batean eserita geunden abenduko hotz umela jasaten. Esan ziguten garaiz hasten zela, baina laurak jotzeko ziren eta kalean ez zegoen inor; beraz, urduritzen hasi ginen ea ez ote ginen egunez nahastu. Mentalki bederatzi gau zenbatu nituen abenduaren 24tik atzera, eta ez, ez ginen nahastu, hura zen teorien lehenengo gaua. Bat-batean, elizako kanpandorrean laurak entzun ahala, Pase-Lekuaren aldapatik gora zetorren berrogei pertsonaz osatutako talde bat (gizonak eta emakumeak) han agertu zen. Geroxeago, konfirmatu nuen taldea Pase-Lekuaren (Txiki eta Otaegiren plaza) arkupean biltzen dela elizara igo baino lehen.

Bakarlaria taldetik bereiztu zen eta elizaren atzeko apirikuan belaunikatuz, agurraren ahalaldia hasi zen abesten. Haren atzetik, denok belaunikatu ginen. Taldeak, zutitzen zen ahala, ahalaldi bi bota zituen erantzunez. Horrela, Mestika auzoan dagoen San Frantzisko elizarantz abiatu ginen. Bertan, atsedenaldea hartu eta kafe eta likoreak banatu zituzten eta, ondoren, belaunikatu eta abiatu ginen berriz. Horrela jarraitu genuen herria zeharkatuz hasierako elizara bueltatu arte. Gero, jendea banatu egin zen; batzuk, lan egitera joan ziren, beste batzuk, gosaltzera, eta gu lo egitera.

Lehen hurbilketa honetan, oso kutsu erlijioso nabarmena zuen erritu baten aurrean nengoela ikusi nuen, alegia, nik aldeztu aurretik suposatu nuena baino askoz erlijiosoagoa, abastera joaten ziren lagun batzuk ezagutzen baintuen eta ez ziren bat ere praktikanteak, ezta sinestunak ere. Halere, partehartzaile guztiek ez dute profil erlijioso berdina, hots, zentzu horretan laginean ez dago homogeneotasunik, ezta lokalitatean ere, batzuk, erritura baitoaz eta, beste batzuk, aldiz, ez. Beraz, partehartzeak nolabait, kode binario baten bitartez

(bai/ez) komunikatzen duen indize bat bezala funtzionatzen du, tokiko mailan indarrean dagoen sailkapen modu bat seinalatzen duen indizea, hain zuzen (G. Bateson, 1991; A. Roy Rappaport, 1987)²⁰.

Bestalde, partehartzaileen artean kontzepzio eta interes desberdinak daude. Batzuk sinestunak eta praktikanteak dira, eta partehartzea fede ekintza bat bezala ikusten dute. Beste batzuk, aldiz, ez dira sinestunak eta parte hartzen dute beste arrazoiengatik, tradizioa preserbatzearekin zer ikusirik duten arrazoiengatik, hain zuzen.

3.2. Gernikako Marijesien garapen erritualaren exegesi deskriptiboa

Puntu honetan, errituan egindako lekuan lekuko behaketan eta dokumentazio lanean jasotako informaziotik abiatuz, nik egindako Gernikako Marijesien exegesi deskriptiboa aurkeztuko dut, jakinez deskribapen guztiak nahi eta nahiez interpretazioak direla. Horregatik, interesgarri iruditzen zait jarraian, aktoreak beraiek errituari buruz aritzen diren elkarrizketa bat aurkeztea, *emic* ikuspuntua emango baitigu.

3.2.1. Antropologoaren narrazioa

Azaro aldean hasten dira bederatziurreneko prestaketak, herri osoan ipintzen diren kartelen bitartez, hileko azken ostiralean egiten den alde aurreko batzarrera biztanle guztiak gonbidatuz. Kartelak euskaraz idatziak dira eta oso erraz ikusten dira, gehienetan Marijesiek logo bera erabiltzen dutelako. Aldez aurretik, Udalera igorritako izkribu baten bidez bederatziurrena egiteko baimena eskatzen dute, beste egoera batzuetan izan diren gaizkiulertuak ekiditeko asmoarekin, batez ere, herrira etorri berri diren autoritate polizialen ezjakintasunagatik, Ertzaintza eta Guardia zibila²¹.

Aldez aurreko batzar honetan²², beharrezkoak izango balira, entseiuak prestatzen dira, edo egunero egingo diren ibilbideak planifikatzen dira.

20. G. Bateson (1991); A. Roy Rappaport (1987: 253). Bi autore horiek erritua alde binarioa ikertu dute. Baita J. Zulaikak (1990) ere, euskal kulturaren elementuak aztertuz biolentziaren fenomenoaz azaltzeko. Errituaren alde binario kontzeptuaren azalpena 2. puntuan.

21. Gaizkiulertu horiek adierazten duen pasadizo bat marijes ohi bati egindako elkarrizketa batean jaso nuen: *...Ertzaintzaren kuartela jarri zutenean mobida bat eduki genuen. Badakizu nola Santa Klararuntz irteten dela eta Arbolatik pasatu behar dela. Beno bada, Juntetxea jagoten zegoen bikoteak goizeko lauretan hogeit bat lagun ikusi zituztenean ikaratu egin ziren eta kuartelera abisatu zuten. Gutxira Ertzaintzaren kotxe bat agertu zen gure atzetik eta megafonotik esaten ziguten "circulen por la acera". Pentsa ezazu zelako algarak eta barreak egin genituen, ez zekiten zertan zetan historia hura, ez zeukaten idearik ere.*

22. Entsaioak orokorrean taldeari jende berri asko gehitzen zaionean izaten dira. Adibidez, 2003 urteko entsaioen helburua emakumeen tonuak egokitzea izan zen, gero eta emakume gehiago joaten dira abastera eta tonu altuago baten abesten dute. Internet-en ere iragarri ziren: *El próximo martes, las mujeres y los bajos que participan en Marijesiak tienen ensayo. El jueves día 11, la prueba será general. Ambas sesiones tendrán lugar a las siete de la tarde en la biblioteca vieja y actual local de la coral. Lataberna.net-en.*

Tabernek uzten dituzten botilak eta ogia batzeko ardura norbaiti ematen zaio eta eztabaidatu egiten da noiz eta non egingo duten bederatziurren osteko afaria. Gainera, azken eguneko diru-eskaeran bildutako dirua zertara bideratuko den erabakitzen da botazio baten bidez, aurkezten diren proposamenetik bat aukeratuz. Barne funtzionamendua asanbladan antolatzen da eta erabaki guztiak esku altxatuz bozkatzen dira.

Abenduaren 16aren gauean, Gabon gaua aurreko hurrengo zortzietan bezala, laurak minutu pare bat gutxiago direnean, 50 bat lagun Andra Mari elizaren ondoan dagoen Pase-leku arkupetan biltzen dira. Laurak eman ahala elizaren atzeko apirikura doaz eta bertan belaunikatuz agurraren lehenengo kopia abesten dute.

Taldetik aurreratuta, bakarlariak koplaren lehenengo bi ahapaldiak abesten ditu eta jarraian taldeak koplaren gainontzeko bi ahapaldi osatuz, denak zutunik jartzen dira eta Santa Klara komenturantz abiatzen dira. Horrela, erlojuen orratzen noranzkoaren aurka, kaleetan zehar ibiliko dira, herriko gainontzeko elizak bisitatuz. Errondek lauretan hasi eta ordu eta erdi gutxi gora behera irauten dute. Tarte horretan, abeslariak euskaraz eta buruz²³, kantuak gaur egun dituen 28 kopia horiek abesten dituzte, erdaraz abesten den kopia bat izan ezik. Kopletan Kreazioaren historia sakratua kontatzen da, Adanetik hasita eta Jesukristoren Jaiotza eta Enkarnaziora arte.

Ibiltzen diren bitartean, bakarlariak taldetik pare bat metro aurreratuta, kopia bakoitzaren lehenengo bi ahapaldiak abesten ditu eta taldeak erantzuten dio koplaren beste bi ahapaldiak osatuz²⁴. Hasieran, Andra Mari elizan egiten den moduan, herrian dauden beste elizetan eta Kristoren irudia duten kaperetan (Santa Klara, Josefinak, Kaltzada zaharren egoitza, Mesedetako konbentua, San Frantzisko eta karmeliten San Fidel Ikastolan) taldea gelditu egiten da eta belaunikatuz agurraren koplaren lehen bi ahapaldiak abesten dituzte: "*Sakramentu Santu Jauna...*". Ondoren kopia osatuz martxan jartzen dira berri.

XX. mendearen hasieran, egunero herriko alde zaharrera mugatzen zen ibilbide bera egiten zuten. Baina azken hamarkadetan Gernikak bizi izan duen hazkunde urbanistikoa dela eta, ezinezkoa da herri osoan ibili tradizioak markatzen duen ordu eta erdi horretan. Beraz, urte batzuk dira oraingo abeslariak herri osoa osatzen duten ibilbide ezberdinak egiten dituztela egunero. Gaur egungo ibilbide ezberdin horien azterketa hurrengo puntu batean egiten dut.

Ibilbidean, elizen aurrean gelditzeaz gain, lagunen, senitartekoen eta Marijes izandakoen etxeen azpian ere gelditzen dira, baina indarrak hartzeko

23. XX. mende hasierako testu baten azpitituluak honelaxe dio: *Burus euquiteco direnac*.

24. Taldeak, ahapaldiak gogoratzeko duen baliabide mnemoteknikoa. Bakarlariari, aldiz, kantuak gogoratzeko ardura ematen dio.

ere hainbat geldialdi egiten dituzte, kafea eta ogiaren geldialdiak, hain zuzen (Ferialean, Gurutz Gorrian, Labakoa okindegian).

1. Taula. Marijesiek beraiek 2003. urtean, egunero bildutako tenperaturak, anbulatorioaren aurrean dagoen ortopediaren termometroan

Abenduaren egunak	16	17	18	19	20	21	22	23	24
Tenperaturak	+5°	+10°	+14°	+10°	+13°	+11°	+10°	+6°	+11°

Ordu txiki horietan ohearen epeltasunetik kantua entzuten dituzten auzotarrek etxeko pertsianak altxatu eta argiak piztu eta itzali egiten dituzte, taldea pasatu ahala abeslarien konpromisoa eskertuz eta solidaritatea eskainiz.

Bederatziurrenean baitan kantuen melodiak aldatuz doaz. Lehenengo lau gauetan melodia serio batekin Kreazioaren eta Famili Sakratuaren irudiak aurkezten dituzten koplak abesten dira, *“Maria, José, Jesus, María”* leloarekin. Hurrengo bost gauetan melodia alaituz doa eta Jesukristoren irudiari buruzko koplak abesten dira, *“Adoratzen zaitugu, Jesukristo”* leloarekin.

Azken egunean, abenduaren 24an, hau da, Gabon goizean, beste erronda bi egiten dira segidan eta melodia alaiago egiten da, Jesukristoren jaiotza gauean izan baita eta horrela iragartzen da erabiltzen den leloan *“Bart Belenen jaio da Jesus Nazaren”*. Erronda bi horietako lehenengoan (goizeko 7etan) abeslariak elizara sartzten dira eta bertan hasten dute kantua. Azkenik goizeko 10etan izaten den errondan abeslariak eskean ibiltzen dira ehun metro aurretik doazen txistularien laguntzarekin. Eskaera erronda amaitu eta gero, denak elkarrekin, *txikiteoa* egiten dute herriko tabernetan.

XX. mendearen hasieratik ia 70eko hamarkada arte dirua euren artean banatzen zuten, baina urte hauetan, errituan aldaketa batzuk gertatuko dira eta horietako bat bildutako diruaren helburua izango da; gaur egun, aldiz, beste helburuetara bideratzen baita, esate baterako: Kaltzada zaharren egoitza, Karitas, Gurutz gorria, DYA errepideetan laguntzeko elkarteak, Gernikatik Mundura (Nazioarteko Laguntza elkarteak), Mundakako errefuxiatu Bosniarrak, Etorkintza (droga menpekotasunaren aurkako elkarteak), Busturialdeko preso eta iheslari politikoak, Iñurrategi Fundazioa, Euskalerrian Euskaraz, etab. 2005 urtean bildutako dirua (2.500,00 €), Busturialdeko katekesiak bultzaturiko proiektu bati zuzendu da, Lihuk Panaghinsa tokiko Gobernu Kanpoko Erakundeak Filipinetako Cebú herrian emakumeak babesteko duen Selter izeneko zentrora hain zuen. Horrela erabaki baitzuten aho batez alde aurretik egindako batzarrean.

Azken egunean, abeslariak gernikar guztiak gonbidatzen dituzte egun horretako bigarren errondan partehartzera eta jarraian Pase-Lekuan egiten den *“Tortimortxi-Txokolatadara”*, hau da, odolosta tortillarekin eta edateko txokolatearekin egindako gosari komunitario batera.

Gabonak pasatu eta udalak ematen dien diru kopuru txiki batekin, errondetan parte izan diren guztiek afari bat egiten dute. Orain dela gutxi arte, mahaikidetza ekintza txiki hau Gabon egunean egiten zuten, baina gau osoa abestuz eman eta goizeko *txikiteoa* egin ondoren, egun horretako etxeko afari tradizioaletara heltzea oso nekeza izaten zen; beraz, gaur egun Gabonak pasatu eta gero egiten dute.

3.2.2. Iraganeko eta orainaldiko aktoreak

Marijesien historian badira dokumentatutako epealdi batzuk (del Palacio, 2000). XIX. mendearen bukaeratik 1936ko guda arte doan lehenengo epe honetan abeslariak dozena erdi bat baino ez ziren. “Auzotxu” (Anastasio Bidaguren) izan zen talde honen lehen bakarlaria, nahiz eta “Estebanillo”k (Daniel Ibarzabal) txanda hartuko zion 1912 urtean eta guda heldu arte abestuko zuen. Gero, herriak gerra zibilean sufritu zuen bonbardaketan hil zen 1937an.

Gerraren ondorioz egon zen hiru urteko etenaldiaren ostean, bigarren epealdi bat dugu 1940 urtean hasi eta 70eko hamarkada arte. Taldearen kopurua dozena erdian mantendu zen eta bakarlari moduan Walter (José Meaza) ibili zen. 1960 urtean Jose Antonio Oar-ek Meazaren txanda hartu zuen bakarlari moduan. Talde honek tradizioa mantenduko zuen 70eko hamarkadaren bukaera arte.

Epe honetan ibili ziren ia abeslari guztiak Herriko Musika Bandakoak ere baziren, XX. mendearen hasieratik harreman oso estua baitago Andra Mari Korala, Herriko Musika Banda, Elai-Alai dantza taldea eta Marijesien artean. Gaur egun ere abesten ibiltzen diren gehienak herriko beste talde batzuetako partaideak ere badira. Beraz, entseietarako lokala konpartitzeaz gain, partaideak ere konpartitzen dituzte kantu eta musika erregelatua lantzen baitituzte. Bestalde, Elai-Alai taldeak Marijesiak eskenatokietara eraman zituen bai XX. mende hasierako Lore-Jokuetan, bai guda garaiko erbestean.

Gero ikusiko dugunez, belaunaldi aldaketarekin erritua herritarrengan zabaldu egiten da eta aldaketa nabarmenak eragiten dituen sekularizazio eta berpizketa epe bat jartzen da abian. Baina gaur egun, zer nolako jendea doa erritura? Ez da nire xedea giza-geografiaren azterketa zehatza egitea, ezta egitura sozialaren analisisan sakontzea ere, baina aktore sozialen, hau da, Marijesietara doazen jendearen ezaugarri batzuk aipatzea interesgarria iruditzen zait.

Arestian aipatu dudanez, partaidetza anitza da, bai ikuspuntu erlijiosotik, bai errituari buruz duten kontzepzioari begira. Baina baita ideologikoki, ekonomikoki edo akademikoki ere. Azken hamarkadetan Gernikak jarduera ekonomikoaren terziazazio nabarmena bizi izan du. Horren ondorioz, biztanleriaren erdiak zerbitzuetan dihardu eta beste kopuru handi batek, industrian. Zentzu horretan, errituan parte hartzen dutenen artean denetarik dugu: maisuak, arrain-saltzaileak, lantegietako langileak, ikasleak, seguru

agenteak, eskolazainak, etab. Horrek esan nahi du gehienek gaueko erronda amaitu ostean bere lanpostura joan behar dutela. Gainera, baldintza klimatikoak kontuan izaten badugu, argi gelditzen da zein gogorra den bederatziurren osoa egitea. Hotza, logura, nekea, ibilbidean hartzen dituzten likoreak eta tabakoa, faktore horiek guztiek ekintza erritualetan ohikoa den kontzientziaren aldaketa eta errealtatearen pertzepzio ezberdina errazten dute. Bederatziurrenean nozitzen dituzten logurak eta hotzak, nolabait Turner-ek sinbolo erritualetan buruz esaten zuena gogorarazten digute. Alegia, sinbolo erritualetan zentzu bikoitza dutela (1999: 31): alde batetik, esanahi moral edo sozial bat eta, bestetik, esanahi biologikoa edo indibiduala. Zentzuaren bikoizketa honen bidez, arau etiko eta moralak, eta zentzuak eta norbanako sena eta interesak jartzen dituzte harremanetan. Era berean gizabanakoa taldearen pertaidea egiten dute.

Sinbolo erritualetan, arauak, nahiak eta baloreak kondentsatzeaz gain, alde emozional garrantzitsua dute. Alde emozional honek, beharrezkoa dena desiragarri bihurtzeko gaitasun izugarria du, eta jendea mugiarazteko gaitasun nabarmena ere ematen die. Kasu honetan mobilizazioa, komunitatearekiko eta tradizioarekiko konpromisoaren ideien inguruan ematen da. Bizitza sozialaren beste arlotan gertatzen den bezala (euskarekin esate baterako), permanentzia, erresistentzia eta iraunkortasunaren ideien inguruan, hain zuzen. Zentzu honetan taldearen bakarlari esanguratsuenetarikoa batek zera dio, joateko derrigorrezkotasunari buruz: "Nire kasuan, ardura bat da eta, era berean, gorputzak eskatu ere egiten dit. Gabonak orduko, bederatziurrena orduko, gorputzak badaki marijesietara joan behar duela. Behar bat da, azken batean"²⁵.

Tradizioz gizonek baino ez dute parte hartu errituan, baina 70eko hamarkadatik aurrera lehenengo emakumeak eta, aldi berean, ikasleak gehitzen dira; beraz, partehartzaileen adina nabarmenki jaisten da. Horrela, gaur egun sarritan aurkitzen dugu emakumeen kopurua erdia baino gehiago izaten dela. Baina, nahiz eta emakumeen partehartzea normaltasun erlatibo batekin jazo (bidezkoa da esatea ahoz mailako konfliktua eragin zuela)²⁶ eta gaur egun arazorik ez sortu arren, esan ere egin behar da, eguneroko ekintza publikoetan eta etxekoetan gertatzen den bezala, bere unibertso sinbolikoaren esanahien ekoizpen sistema gizonen kontrolpean dagoela. Esate baterako, gizonek dute bakarlariarena egiteko lehentasuna.

Hau oso adierazle interesgarria iruditzen zait, kargu horren egoera errituala oso mirestua baita, eta sozialki errekonozimenduz eta ohorez gozatzen du. Marijesietan parte hartzeak tokiko komunitatearen mailan ohore ematen duen ekintza horietako bat da. Bestalde, aurreratua joateak, bananduta hain zuzen, nolabait sakralizatutako karakterra ematen dio

25. D. Azkarate, Busturialdeko Hitzan. 2005eko abenduaren 15, eguna.

26. M. Bullen (1997); T. del Valle (1985; 1996). Emakumeak errituan partehartzeak suposatzen duen ahoz mailako konfliktua interesgarria iruditzen zait hausnarketarako, baina nahiago dut lan hipotesi moduan uztea beste egoera egokiagorako, lan honen mugak gainditzeko baititu.

bakarlariaren irudiari. Zentzu honetan, irudi sakratuaren trasposizio bat bezala agertzen da, taldearen eta irudi horren arteko bitartekari bat legez, hain zuzen. Erritu honetan koadrila eta familia desagertzen dira eta, banatuaren irudi horren bitartez, sakratuarekin kontaktuan dagoen *communitas* berria sortzen da²⁷.

Emakumeen partehartzearen aurkakoez zera argudiatzen zuten: hauen ahotsen tonua altuagoa zela eta horrek kantuen beheko tonuen aldaketa eragiten zuela, gizonen ahotsak indarra eta sendotasuna adierazten zituztelako. Honi buruz esan behar da gizonen ahotsen tonu beheko hori kantuek eragiten zuten emoziora lotua izan dela denbora luzez, eta performatibitatearen oinarri bat izan dela. Gaur egun, tonu biak egokitze aldez aurreko entseiuak egiten dira²⁸.

Bestalde, partehartzeari dagokionez, lehengo garaiko taldea oso murriztua zen eta gaur egun baino askoz hermetikoagoa, batez ere, bildutako dirua euren artean banatzen zelako. Gaur egun, aldiz, adina nabarmenki zabaldu da, batez ere, larunbata eta igandearen artean eta baita azken egunean ere, neska eta mutil asko joaten direlako. Aldiro Marijes izandakoak ere gonbidatzen dituzte eurekin abesteko; beraz, batzuetan hiru belaunaldi ezberdineko pertsonak topa ditzakegu elkarrekin batera.

Gaur eguneko protagonistek errituaren etnografoarena egiten dutela aipagarria iruditzen zait, egunero datuak biltzen baitituzte sistematikoki, esate baterako: ibilbideak, partehartzea, ordutegiak, tenperaturak, partehartzaileen izenak, etab. Erakusketak ere antolatu dute material guztiarekin (argazkiak, grabaketak, kartelak etab). Joera hau tradizioa bizitzeko duten moduaren adierazle da. Esan behar da, bederatziurrenaren berria emateko agertzen diren komunikabideen zerrenda ere osatzen dutela, urtero pare bat telebista etortzen baitira (erkidegokoa, probintziala, tokikoa, nazionala), baita idatz prentsarako erreportariak ere. Batzuetan goizeko bostetan irratirako zuzeneko elkarrizketak ere egin izan dituzte²⁹. Telebistek, irratiek eta egunkariek adierazpenerako testuinguru berriak dakartzate.

3.2.3. Aktorearen ikuspuntutik emandako azalpen bat

Deskribapenari dagokion puntu hau aberastu nahian, Juan Antonio Sagredo Quintanak, gerra ostean ohitura mantendu izan zuen José Antonio Oar bakarlari ohiari egindako elkarrizketa aurkeztzen dut. Juan Antonio, gaur eguneko

27. Baztertuaren irudiari buruz ikusi M. Douglas (1973) edo M. Eliade (1999).

28. K. Fernández de Larrinoa irakasleak komunikazio pertsonal batean, Zuberoako Altzükü herriko Pastoralean ere antzeko zerbait gertatu zela esaten dit. Taldean gizonak eta emakumeak batera abesten zutenean, antolatzaile batek gizonari ohartarazten zien ez uzteko emakumeei tonua markatzen.

29. 2005 urte honetan hurrengo komunikabideak agertu izan dira: 16ko gauean Urdaibai Telebista UTB; 20an Tele5 eta RTVE Telenorte; 21an El Correo Español eta RTVE Telenorte. Beste urtetan ETB eta Canal Bizkaia ere agertu dira.

Marijesia da eta 70eko hamarkadan txanda hartu zuen taldearen partaidea. Aldi berean, taldearen artxiberoarena egiten ari da gogotsu eta berriemaile garrantzitsua izan da nire ikerlanean.

Nahiz eta ez jakin elkarrikketa zein egoeratan egin eta transkribatu zen, *emic* ikuspuntua azaltzeko nahian dakart hona. Uste dut interesgarria dela aktoreek beraiek egiten duten errituaren interpretazioaren gutxi gora-beherako ideia bat ematen digulako. Elkarrikketa *Aldaba aldizkarian* argitaratu zen, herriko berriak eta pasadizoak ezagutzeko erreferente garrantzitsua den aldizkaria eta gernikarren memoria kolektiboa eraikitzen eragin nabarmena duena³⁰. Tokiko klabe sozio-geografiko batean eginda dagoenez, tartean ohar batzuk sartu ditut, azaltzen diren alde ilunak argitu nahian. Euskarazko itzulpena nirea da, jatorrian erdaraz argitaratu baitzen.

- **Elkarrikketaren izenburua:** “Marijesiak”. Entrevista a José Antonio Oar, 23 años dirigiendo el Coro³¹ de los Marijeses como solista.

Autorea: *Juan Antonio Sagredo Quintana*.

– *Nola hasi zinen Marijesietan bakarlari moduan abesten?*

– Meazaren heriotzarekin Marijesiak amaituko zirela esaten omen zen. Hau gertatu zenean, taldearen gainontzekoek zera planteatu genuen, pena izugarria zela hain polita den tradizio bat bukatzea, lehendik beste bakarlari batzuk ere hil zirela eta halere Marijesiek aurrera egin izan zutela. Beraz erabaki bat hartu genuen. Nik jarraituko nuela bakarlari moduan eta besteak koruan beti bezala. Eta horrela egin genuen.

– *Tradizionalki Marijesien partaide asko Musika Bandan ere jotzen zuten. Zer zela eta lotura hau?*

– Uste genuen euren zirela gehien lagunduko ahal gintuztenak, besteei planteatu ezkerro inork ez zuen nahi horrelako ardurarik hartu eta ez ziren ausartzen. Eta aldiz bandakoak bai. Baina izan dira Bandan ibili ez direnak ere, esaterako Jesus Zelaia, Jose Antonio Aldana, Oscar Alvarez.

– *Herriaren hazkundera dela eta, lehen egiten zenituzten ibilerak eta gaur egiten direnak ezberdinak izango direla suposatzen dut. Orain bezala, Andra Mari elizaren atzean hasten zineten. Zehaztuko zenuke ibilbidea kalez-kale?*

– Ohitura denez Andra Mari elizaren atzeko apirikuan hasten ginen, Juntetxeari buelta eman eta, Sta. Klaratik behera joaten ginen Gurutz Gorriarte. Bertan geldialditxo bat egin eta jarraian Zalloraino abiatzen ginen handik atzera etortzeko. Arrienetik pasatzen ginen Alhondigaraino eta handik Pequeña Velocidad, Fernando el Catolico, Arte kale, Boliña Nuevo, Estacion, Iparraguirre, eta atzera Labakoara,

30. 1991ko azaroa eta abenduan, Aldaba aldizkarian argitaratutako elkarrikketa, 54. zenbakia. Juan Antonio Sagredo Quintanak, José Antonio Oari egindakoa. Lehena Marijesia da gaur egun, 70eko hamarkadan txanda hartu zuen taldearen kidea. Bestea, gerra ostean ohitura mantendu zuen taldearen bakarlaria. Aldizkaria tokiko mailakoa da eta hilerio irteten da. Transkripzio literala egin dut izenen grafia eta jatorriaren ortografia errespetatuz.

31. “Coro” hitzaren erabilpenak badu bere arrazoa. Alde batetik, bai tonuak, bai ahotsak asko zaintzen direlako. Bestetik, lehen taldea gaur baino askoz itxiagoa zelako, arestian azaldu dudanez.

bertan trago bat hartzera gonbidatzen genuen okinei. Handik irten eta merkatura buelta ematen genuen San Roke kaletik Don Tello kalera irteteko berriro, gero San Juan, Karmelitak, Txorroburu, Toñaren Txaleta, Anbulatorioa eta Goienkaletik Andra Mariko eskaileretara, eta han amaitzen genuen.

– *Ez zineten gaur egun moduan Erreteriatik pasatzen?*

– Lantzean behin bai, baita Lorategietatik ere. Eta bestalde, batzuetan Josefinetara eta Santanapera ere heltzen ginen. Zapatuak eta jai bezperak, egunero heltzen ez ginen urrutiko auzo hoietara joateko aproposak ziren.

– *Auzo Txinatarrera ere sartzen omen zineten?*³²

– Bai, horrela da, kaletxo hori aipatzea ahaztu egin zait. Bertan Nikolas Gainza zenari ahapaldi pare bat abesten genion. Argiarekin keinua egiten zigun eta aurrera jarraitzen ginen ibilbide normalarekin.

– *Pentsetan dot Gernikako erdialdea egunero ibiliko zinetela. Ez al da horrela?*

– Bai, egunero. Laurak puntu puntuan hasten ginen, eta gutxi gora-behera ordu eta hiru laurden beranduago amaitzen genuen, geldialdiak, tragoak eta zigarroak kontuan izanik.

– *BRISAS GUERNIQUESAS aldizkariaren arabera, urte batean Marijesien hasiera ordu bete beranduago egin zenuten. Zer zela eta aldaketa hura?*

– Hori urte batean baino ez zen gertatu, lanera jarraian joan ahal izateko. Baina gero pentsatu genuen tradizioarekin apurtzea zela, beraz, hurrengo urtean berriz aldatu genuen.

– *Gabon Eguneke goizean, zazpitan, txistularien diana egoten da. Zuek ere horrela egiten zenuten?*

– Bai, gure taldean txistulari bat zegoenez berak jotzen zuen. Koruko batek bakarlariarena egiten zuen eta Meaza eta Egia txistua eta danbolina jotzen zituzten.

– *Azken eguneke herriko partaidetza, handia omen zen?*

– Ez pentsa, jendeak ez zuen askorik laguntzen. Agate Deuna bezperan bai, baina Marijesiekin ez zen horrela gertatzen. Batzuetan lotsa dezente jasaten genuen, bost baino ez izanik eta horietako bi edo hiru etxeetatik dirua biltzen ibili, beraz, abesten bi baino ez ginen gelditzen eta askotan jendea begira gelditzen zen, baina horiek zer demontre ari dira hemen abesten esanez.

– *Abesten zenuten garaia zela eta, erakunde ofizialekin arazorik eduki al zenuten?*

– Noizbait bai, tradizioa ez baitzuten ezagutzen. Orduan zera egiten genuen, udalari bederatziaurrena abesteko baimena eskatu. Udalak baimena ematen zigun eta horrela ez genuen beste oztoporik edukitzen. Beste batzuetan, nahiz eta gutxitan izan, norbait leihora irten eta isilik egoteko oihukatzen zigun loak hartu ezinik zebilela eta. Ziur aski, tradizioa ezagutzen ez zuen norbaitek.

32. Izen horrekin ezaguna zen gaur eguneke Uribitarte kalea. Bertan egon zen 70eko hamarkada arte Guardia Zibilen kuartela.

–Hori guri ere gertatu zaigu eta orain dela gutxi. Orokorrean, koruaren partaideak gemikarrak ziren ala auzoko beste herrietatik ere etortzen ziren?

–Gehienak gernikarrak ginen, baina bazegoen Bilboko Jose Iturbe izeneko gizon bat, Iturbe familiaren senidea, Marijesietan oso interesaturik eta urte batetik aurrera sarritan etortzen zena, urtero gau bat edo bi gutxienez guri laguntzera. Gustukoa zuen gurekin solasean egotea hainbat istorio eta pasadizo kontatzen. Oso gizon jatorra. Barrenkale-Barrena kalean ferreteri bat zuen.

–Entsaioak egiten al zenituzten?

–Normalki ez. Norbait berria etortzen zenean orduan bai, orduan entsaio txiki bat egiten genuen ahotsak egokitzeko. Genuen zaletasunarekin nahiko izaten zen.

*–Noiz utzi zenuten abesteari talde tradizionalak?*³³

–Zehazki ezin dizut esan, uste dut 79an edo horrela.

–Eta abesteari utzi zenutenean, pentsatu zenuten tradizioa bertan behera geratuko zela edo norbaitek jarraituko zuela?

–Ez, baziren lekukoa hartzeko prest ziren ordezkioak eta.

–Entzun dudanez, Marijesiak ez omen ziren bi urtetan irten, bakarlaria bonbardaketan hil zelako.

–Bai, horrela da, herriaren bonbardaketa eta gero, Marijesiak bi urte egon ziren abestu barik, orduko bakarlaria Estebanillo zena bertan hil baitzen. Gero, Meazak hartu zuen agintea eta hor ibili zen urte askotan. Neuk ordezkatu nuen bakarlaria moduan eta koruan, Doroteo Pertika, Urkidi izeneko bat (goitizenez Markinatxu), Jose Martín Meaza, Arbolatxu eta Egia joaten ziren. Urte bat beranduago uste dot Elorrio ere etorri zela. Dena dela aldatzen joan ziren, heriotzak zirela eta aurrera jarraitzeko ezinagatik. Jendea aldatzea behar zen, ez zegoen beste erremediorik. Enrike Salegi ere pare bat urte etorri zen. Ni egon nintzenean taldea hauexek osatzen genuen: Doroteo Pertika, Egia, Oscar Alvarez, Jesus Zelaia, Jose Antonio Aldana eta Sixto Gorindo. Alberto Zubiaurrek ere interes handia zuen Marijesiengan eta oso lan ona egin zuen udalaren laguntza lortuz. Horiexek izan ginen urte askotan trikili-trakala Marijesiak abesten ibili ginenok. Gero 1979an taldearen gehienok behin betiko utzi genuen, gogorra egiten baitzitzaigun gaueko 4etan abesten ibiltzea eta segituan lanera joatea. Bestalde, laguntza estimagarria eduki genuen ere nire semearen koadrilaren partetik, Sagredo, Jabi Garcia, Zabaleta...gurekin etortzen baitziren. Egia esan, ez zitzaigun arduratzen gauez etortzen baziren, baina azken egunean aldiz bai. Gozamena izaten zen 50 pertsonako talde bat ikustea, eta ez ni koruan sartu nintzenean bezala, bakarrik joaten ginen eta.

–Koruaren partaideak gizonak izan dira betidanik. Noizbait emakumeren bat joan da abestera?

–Noizbait bai. Bizpahiru neska gazte, baina ez zen arrunta.

–Galdera hau, Marijesiak ohitura matxista omen dela esaten delako egiten dizut, tradizioz gizonak bakarrik joaten ziren eta.

33. Talde tradizionala, Oar-en taldea da. Abeslarien komunitate barnean, badago “tradizionalaren” kontzeptu zehatza.

– Nik ibilitako hogeita hainbat urtetan ez nuen sekula ezagutu emakumerik abesten, azken urteko larunbatetan etortzen ziren bizpahiru neska izan ezik. Gerora, egunero etortzen zen emakume talde bat osatu zen. Celiaren alabak eta Bidagurenekoak (lagunak baitziren), Mila Katxirena ere. Azken egunean bai, batzen zen jende asko gizon eta emakumeen artean, azken ibilbidea egiteko laguntzen gintuen taldea osatuz.

– *Gaia aldatuz, abesten zenituzten ahapaldien artean, erdarazko bat ere baze-
goen, ezta?*³⁴

– Bat baino ez, “Corrían los pastores dejando su ganado, y daban grandes voces, Jesús sea adorado”. Ahapaldi hau doinu biekina abesten zen.

– *Marijesietan bezalako tradizio herrikoi batean, herriko pertsonaia ugari sortu
behar izan du, ez?*

– Bai, batez ere batzuetan etortzen zen bat gogoratzen dut. Boni Sangroniz zen. Emazteari eta Errenteriako lagun bati abestea gustatzen zitzaion. Beti eskatzen zidan pare bat ahapaldi abesteko baimena eta nik utzi, gurekin oso ondo portatzen baitzen, eta Marijesiak maite zituelako.

– *Bederatzi egun abesten ibili ondoren azkenean ahotsa ez zen egongo egoera
oso egokian. Noizbait gertatu zaizu ahots barik gelditzea abestu ezinik?*

– Bai, urte batean afoniko xamar nenbilen eta seigarren gauean nire ordezt Jose Antonio Uriguen irten zen.

– *Aldaketarik sartu al zenuen Marijesien doinuean?*

– Ez dut uste, beti saiatu naiz doinua berdina mantentzen. Dena dela, bakar-lari batetik bestera beti izaten dira ezberdintasunak. Baten batek beti sartzen du “burpilladita”³⁵ bat, esaten den moduan. Nik “burpilladita” hori neukan eta jendeari asko gustatzen zitzaion. Estebanilloren antza hartzen nindutela esaten zidaten.

– *Meazaren tradizioarekin jarraitzen zenuen, alegia, taldetik apur bat aurrera-
tuta joatearena?*

– Bai, aurreratuta joaten nintzen. Taldearekin joaten banintz, besteen zurrumurrua entzuten nuen eta abesteko ahapaldia ahaztu egiten nuen. Beraz bost bat metro aurretik joaten nintzen.

– *Diapasoia erabilti izan duzu noizbait?*³⁶

– Bai, erabili nuen bai. Leku batetik bestera tonua galtzen nuen eta horretarako erabiltzen nuen. Gainera, abesten zoazenean, ahapaldirik ahapaldira ere tonua igotzeko joera izaten duzu eta.

– *Azken egunean, gaur egun egiten den moduan, elizaren barruan, mezan
abesten zenuten?*

34. Kopla hau oraindik abesten da.

35. Abesterakoan egiten den falsetea izendatzeko hitza. Uste dut “gurpil” hitzati datorrela.

36. Ahotsaren tonuak finkatzeko erabiltzen den tresna. Urkulu tankerako altzairuzko xafila bat izaten da eta joz gero *La nota* ematen du.

– Bai, 7etako mezan abesten genuen. Partaide guztiak joaten ginen, lehenengo bankuetan jesarri eta “Abendu”ren ahapaldi batzuk abesten genituen.

– Azken eguneko ibilaldia, 24ekoa, zer ordutan hasten zineten eta zenbat irauten zuen?

– Lehenengo bira, beti bezala 4retan hasten genuen eta bigarrena 7etan. Betiko lekuan elkartu, hau da, elizaren apirikuan, eta aurretik txistulariak zortzikoa jotzen joaten ziren, taldea berriz atzetik.

– Ba al dakizu tradizio hau, beste herritan ere jarraitzen al den?

– Bai, badakit Muxikan, Arteagan eta Ean antzeko zerbait egiten dutela, Agate Deuna bezperan bezalaarratsaldeko 8retanirteten makilekin. Baina uste dut egun bakarra egiten dutela. Muxikan eta Ariatzako auzoan esaterako baserriz baserri abesten zuten, abestu eta dirua bildu aldi berean. Leku horietan ahapaldiak berdinak dira, edo behintzat Gernikakoen oso antzekoak, baina doinua aldi ez.


Elkarriketa honek hausnarketarako zenbait kontu eskaintzen dizkigu. Alde batetik, 60ko hamarkadan txanda hartu zuen taldeak tradizioaren galeraren ardura zeukala ikusten dugu (Oar-en taldea). Dena dela, tradizioa mantentzeak suposatzen duen konpromisoa izan arren, gauza berriak saiatzeko orduan ez da eragozpen handirik egon (hasteko ordua atzeratzea, esate baterako). Ikusi ahal izan dugun legez, saiakera horiek guztiak onartu egiten dira emaitzen arabera.

Arestian aipatu dudanez, Marijesien eta herriko hainbat talde kulturalen arteko harremana oso estua izan da (Andra Mari Korala, Musika Banda, etab.). Baina interesgarriago iruditzen zait errituan erabiltzen den talde barnerako solidaritatearen nozioa. Batez ere, Marijes ohien etxeen azpian gelditzen direnean, kopia zehatz bat eskaintzeko ekintza horretan, horrela, aspaldiko abeslariak, entzuleak eta taldearen artean osatutako komunitate bat eraikitzen baita. Marijes izatea gemikarra izatea da. Halere, gernikar ez den (bilbotarra baino) edo Gernikan bizi ez den norbaitek parte har dezake naturaltasun osoz, eraikitzen den komunitate hori ez dela inolaz ere baztertzaila erakutsiz. Taldeak, komunitatearen ideia hau, mahaikidetzako geldialdietan tragoak edanez eta zigarroak errez sendotu egiten du. Hauek errituetoako ezaugarri bereziak dira eta loarekin, nekearekin eta hotzarekin batera kontzientzia aldaketa txiki bat eragiten dute.

Elkarriketatuak aitortzen duen inbisibilitate sozialaren sentimendu hura ere aipagarri iruditzen zait, bere garaian errituak eduki zuen erakargarritasun eskasa adieraziz. Lehenengo talde honek egokitzen jotzen du denborak ekarri zuen parte-hartzearen hazkundera, baita emakumearen parte-hartzea ere, nahiz eta hau elkarriketan adierazten den naturaltasunarekin ez izan.

Errituak kristautasunarekin duen harremana bistakoa da, eta, batez ere, Jesukristoren jaiotzarekin; beraz, oso normala da auzoko herrietan antzeko ospakizunak topatzea. Baina elkarriketan, Gernikako Marijesien berezitasuna azpimarratzen duen ezberdintasuneko nozioa argi ikusten da, beste herrietan egiten diren Marijesietatik bereiztuz, bakoitzak berezko inpronta baitu.

4. GERNIKAKO MARIJESIAK IRUDIETAN



Belaunikazioa Andra Mari-n. Autorea: J. A. Arana Martija.
Iturria V. del Palacio.

Marijesien gaueko errondak puntu puntuan hasten dira, bederatziruareneko egun guztietan Andra Mari elizaren apirikuan egiten den belaunikazioarekin. Aldi berean, agurraren kopla abesten da (*Sakramentu santu jauna...*). Bakarlaria taldetik aurreratuta argazkian agertzen den moduan.



Ibilbidean, bakarlaria aurreratuta. Iturria: I. Olano.

Andra Mari elizako agurraren ostean Marijesiek ibilbidea hasten dute herritik zehar. Bakarlariak kopla bakoitzaren lehenengo bi bertsoak botatzen ditu eta, taldeak erantzuten du gainontzeko biak osatuz. Ibilbidean geldialdi batzuk egiten dituzte eta auzotarrak leihotara irten edo taldea agurtzen dute argiak iziotuz eta amatatuz.




Auzotarrak leihotetan. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.



Abesten etxe baten aurrean. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.

Taldeak, Marijesiak izandakoen etxe azpian gelditu eta kopla bat eskaintzen die. Hauek balkoieta irteten dira taldea entzutera (91/12/18).



Etetik entzuten. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.



Barrenkaleko geldialdia, antzinako babeslekuaren aurrean. Iturria: I. Olano.

Barrenkale eta Barrenkale Barrena bidegurutzea, Andra Mari Plaza. Taldea San Juan kaletik dator Barrenkale zeharkatuz. Bidegurutzean gelditu egiten dira. Bakarlariak (I. Olanok) kale gurutzagunean abesten du eta taldeak itxaroten du plazara sartu baino lehen. Hemen, bakarlari izandako Estebanilloren omenez abesten da, herriaren bonbardaketa zela eta, hil zen babestokia seinalatuz. Bakarlariak aurreko geldialditik kalkulatu egiten du geldialdi honetan 20. kopia kantatzeko (*Nor eta nor bizi da, etxetxu zahar honetan....*), hau omen zen haren gustukoena (02/12/23).

Ekintza honetan badago espazio borobil honen sakralizazio antzeko bat, eta borobilaren zentrotik bakarlariak ausentearen oroitzapena dakar, kasu honetan, tradizioa bizirik mantendu zuenaren oroimena, harekin denboran baitan iraupena marrazten duen hari sinboliko bat jarritz. Atzekaldean “Todo a 100” denda bat, globalizazio prozesuen sinboloa (1995).



Barrenkaleko geldialdia, antzinako babeslekuaren aurrean (2). Iturria: I. Olano.



Marijes ohiak euri azpian. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa. Autorea: M. Estebanez.

Urte batzuetan egungo taldeak Marijes ohiak gonbidatu egin ditu. Hauek gonbidapena onartu dute, nahiz eta baldintza meteorologikoak egokienak ez izan. Hotzari eta euriari aurre egiteko eta barneak berotzeko kafea eta pattarra banatzen den geldialdiak egiten dira, komentsalitateko edo mahaikidetzako geldialdiak alegia (1986).




Kafe beroa eta *pattarra*. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa. Autorea: M. Estebanez.



La Merced aurrean belaunikatuz. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.

Mesedetako elizaren aurrean belaunikatuz (2002). Horrela, elizen arteko sekuentzia ixten da. Argazkian emakumeen presentzia gero eta garrantzitsuagoa dela nabaria da (batzuetan taldearen erdia baino gehiago). Marijesiek azken eguneko bigarren errondaren kantua Andra Mari elizaren barruan hasten dute. Aspaldian ekintza honetan elizaren aurreko bankuetan jezartzen ziren (lutubankuetan) (1989).



Andra Mari elizan barruan. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.



Marijesien plaza. Autorea: D. Rementeria.

Udalak errituaren garrantziaz jabetuz, plaza bat eskaini zien, bederatziurren osteko afarirako dirulaguntza bat emateaz gain. Inaugurazioa 1989ko bederatziurrenaren azken egunean izan zen. Goiz hartan taldeari laguntzen zuen txistulariak dantzariarentzako jotzen.

Udal korporazioak, Marijesien Lagunen Elkartea sortzea ere iradokitu zien, Identifikazio Zenbaki Fiskala eduki dezaten. Honek konfliktu bat sortu zuen taldearen barruan, sektore batek “instituzionalizaziorako” urrats bat bezala bizi izan baitzuen.



Plazaren inaugurazioa. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.



1962ko Marijesiak. Iturria: V. del Palacio.

Goian, 1962ko Marijesiak, gizonez osatutako taldea. Benetan abesten zutenak sei baino ez ziren, beste guztiak lagunak ziren. Gaur egun, aldiz, emakumeen partaidetza gizonezkoena baino handiagoa da. Halere, bakarlariaren lana gizonen ardura da oraindik. Behean, XXI. mende honen hasierako lau bakarlariak.



Mende honen hasierako bakarlariak. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.



Bai Euskarari. Iturria: I. Olano.

Arrien tabernako eskaileratan (El ferial Plaza). Marijesiek, “Bai Euskarari: XXI. mendeko akordioa” euskararen aldeko kanpainaren alde egin zuten. Azken eguneko goiza da. Eskumean, bakarlari baten seme-alabak tradizioan hasten. Azken egun honetan, asteburuetan gertatzen den bezala, partaideen adina nabarmen zabaltzen da. Behean, erabiltzen ohi duten, logoa, Markos Estebanez-ek egindakoa.



Marijesien logoa. Autorea: M. Estebanez.



Oar-tarrak. Aita eta semea elkarrekin abesten. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.

Gurasoek tradizioa semeei transmititzen diete.



Bederatziurren osteko afaria, 1991. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.

Argazkian, emakume asko agertzeaz gain, afarira gonbidatutako Marijes ohiak ere agertzen dira (1991/12/28).



Marijes ohiak bederatziurren osteko afarian, 1986. Iturria: J. A. Sagredo, Marijesien artxiboa.

5. AURREKO IKERKETAK

Marcelo– En efecto, desapareció al cantar el gallo. Dicen que cada vez que se aproxima el tiempo en que se celebra el nacimiento de nuestro Salvador, el ave del alba pasa cantando la noche entera, y entonces según aseguran, ningún espíritu se atreve a salir de su morada, las noches son saludables, ningún planeta ejerce entonces maleficio, ninguna hada ni hechicera tiene poder para encantar: ¡Tan sagrado y lleno de gracia es aquel tiempo! (Hamlet)

Bosgarren puntu honetan, Gernikako Marijesien aspektu ezberdinak ikertu dituzten autoreen lanak aurkeztuko ditut. Autore horiek hartutako ikuspuntuak eta errituari emandako esanahiak ugariak izan dira: 1) Ikuspuntu sailkatzaile batetik abiatzen direnak, erritua urtaroko zikloan kokaturik eta denbora sozialaren ordenamendurako tresna bat izango baltz bezala ulerturik; 2) Ikuspuntu filologiko etimologiko batetik testuak ikertu dituztenak; 3) Erdi Aroko antzerki erlijiosoarekin lotzen dutenak eta ebanjelizazio tresna bat bezala hartzen dutenak; 4) Azkenik, liminalitatearen kontzeptutik abiatuz, erritua igarotze-erritu bat bezala hartzen dutenak.

Ikerketa horien aipamenek, nire ikerketarako interesgarri diren errituaren ezaugarri batzuk azaltzeko aukera emango didate, azterketa unitateak bezala erabiliko baititut, eta, aurrerantzean, erakutsiko dudanez, berreraiketa identitarioan erabiliak izango direlako. Esate baterako, bederatziurren ezaguer, gau-gauekotasuna, seriotasuna, janzkera, auzoko herriekiko duten ezberdintasun eta berezitasuna.

5.1. Gernikan abestutako koplak

Dakigunez, Gernikako Marijesiek abesten dituzten koplak lehen argitarapena Pedro Bidaguren “Garratza”³⁷ egin zuen, 1919 urtearen inguruan Goitia eta Cía. argitaletxean argitaratzen baitu “Canta Barriac Gaboneracuac bederatzi egunian cantateco-Marijesiac burus euquiteco direnac” izeneko liburua. Hiru zatitan banaturik, 76 koplako testua da: lehenengo 32 koplak, aurreko lau gauetan abesteko dira; beste 31 hurrengo lau gauetan abesteko eta gainontzekoak azken egunerako. Testuaren amaieran autoreak bere ardura edo egiletasuna adierazteko koplak bat eransten du.

Ordurako R. M^a de Azkue³⁸ 1898ko, *Semanario Euskalzale*-n argitaratu zituen Lekeition errondetan abestu eta Marijesiak izenarekin ezagunak ziren testu batzuk, eta ondoren 1925 urteko *Cancionero Popular Vasco*-n

37. Pedro Bidaguren Barayazarrek, gernikarra, “Garratza” izengoitz ezaguna, Gernikan abestutako testuak 1915ean idatzi zituen eta 1919an argitaratzea agindu zuen Goitia y Cía argitaletxean.

38. Resurrección Maria de Azkue, teologo, filologo eta folklorista. Euskaltzaindiaren lehen lehendakaria izana.

Gernikako Marijesien zati batzuk ere argitaratu zituen. Barandiaranek ere 1922ko *Anuario de Eusko Folklore*-n, Canciones de Nochebuena izenpean, Gernikan eta Mendatan bildutako testuak argitaratzen ditu. Urteak geroago, Lekuonak³⁹ 1933ko *Anuario de Eusko Folklore*-n, 75 kopia bilduko ditu, Pedro Bidaguren “Garratza”ren testua jarraituz, nahiz eta haren egiletasuna adierazten zuen azken kopia hura ez bildu⁴⁰. Badaude argitaratu izan ez diren hainbat eskuizkribu ere, esatebaterako *Gernikazaharra* taldekoek Arteagan aurkitu berri izan duten 1914 urtekoa⁴¹, edota J. A. Arana Martijak argitaratu zuen 1891. eko eta Sagastietxebarri baserriko testuak⁴².

Bestalde, XX. mendearen hasieran Marijesiei buruzko lehen prentsako aipamenak aurki ditzakegu. Horren adibide, 1924an “Aiko” goitzenarekin *La Gaceta del Norte* egunkarian sinatzen zituen kronikak:

Los Mari jesés: Desde tiempo inmemorial las madrugadas de los nueve días que preceden al del nacimiento del Redentor acostumbran a cantar las sentidas estrofas que vulgarmente denominamos Mari-jeses. [...] Los encargados de cantarlas este año y que dicho sea de paso lo hacen inmejorablemente, son: solista Daniel Ibarzábal y coristas Santiago Mochobe, Eugenio Zautúa, Juan Campillo y Juan Esteban⁴³.

V. Gaubekak⁴⁴ 1951n, Garratzaren testua osoa argitaratzen du berriz 76 koplarekin eta 1981ean J. A. Arana Martijak entseiu txiki bat plazaratzen du, ordurako abesten ziren 28 kopia bakarrak bilduz. Beraz, Gernikako eta hainbeste herritako Marijesien testuen argitalpenak, besteak beste, hurrengo testuetan aurkituko ditugu⁴⁵:

- AZKUE, Resurrección M^a de. “Eguberri kantak”. In: *Semanario Euskalzale*. Lotazillaren 22an, 1898; 400-408 or.
- AZKUE, Resurrección M^a de. “Canciones de ronda”. In: *Cancionero Popular Vasco*, Tomo II. Bilbo: Euskaltzaindia, (1925) 1990; 1067-1125 or.
- BIDAGUREN, Pedro (Garratza). *Canta Barriak Gaboneracuac bederatzi egunian cantateco - Marijesiac burus euquiteco direnac*. 1915.
- BARANDIARAN, José Miguel. “Fiestas Populares”. In: *Anuario de Eusko Folklore*, 1922; 81-93 or.

39. Manuel Lekuona, filologo eta folklorista.

40. Ikusi V. del Palacio (1996-7). Lekuonak egiten duen, P. Bidaguren koplen traskripzioa ez da zuzena eta zehatza. Bidagurenek idatzitakoak bizkaieraz baitaude eta Lekuonak, berriz, gipuzkeraz idatzi zituen.

41. 1914 urteko testuaren autorea M^a Isabel Bekoetxea anderea da. Gernikazaharra taldekoek Aldaba aldizkarian aurkeztu dute, 138 zbk., 23. urtea, azaroa/abendua 2005.

42. J. Antonio Arana Martija, filologo eta historialari gernikarra. Euskaltzaina. Ikusi, Arana Martija (2004).

43. *La Gaceta del Norte*. 1924ko abenduaren 24an, 5. orr. Aiko izenarekin sinatzen zuena Jose Maria Lasagabaster kronista gernikarra zen.

44. Victor Gaubeka, gernikar impresorea.

45. Ikusi V. del Palacio (1997).

- LEKUONA, Manuel. "Cantares de Adviento y Navidad". In: *Anuario de Eusko Folklore*, 1933; 37-53 or.
- GAUBEKA, Víctor. *Villancicos de Navidad (en vascuence) como se cantaban en Guernica y sus alrededores*. Recopilados por Víctor Gaubeca y Duo. Gernika-Lumo: Imprenta Gaubeca, 1951.
- ARANA MARTIJA, José Antonio. *Canciones de Navidad*. Bilbo: Ed. Caja de Ahorros Vizcaína: Colección Temas Vizcaínos. VII. urtea, 84 zkia; Serie Azul, 1981; 60 or.
- PALACIO, Vicente del. "Dossier de Marijeses". In: *Aldaba aldizkaria*, 84-90-108 zbk. Gernika: 1996-1997-2000.
- ARANA MARTIJA, José Antonio. "Marijesiak". In: *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca*, 1, 48. liburukia (2. aldia), 2003, Bilbo: Euskaltzaindia. Herri literatura, 2004; 69-109 or.

Gaur egun, Gernikazaharra taldeko kideak, V. del Palacio-k, *Aldaba* aldizkarian plazaratutako dossier etnografiko interesgarriaz gain, badaude Gernikako kantuak biltzen dituzten hainbat argitalpen, adibidez BBK-k (Bilbao Bizkaia Kutzak, gaur egun Kutxabank) plazaratutako poltsikorako triptikoak edota Gernikako Udalak Gabonetako jaiak iragartzeko argitaratzen dituen liburuxkak.

5.2. "Marijes" hitzaren polisemia

XX. mende hasierako euskal etnografo eta folklorista zen Resurrección Maria de Azkuek, bere *Cancionero Popular Vasco* lan zabalean, "Canciones de ronda" izeneko XI. kapituluari hain zuzen ere, Marijes hitzaren jatorria eta etimologiaren azalpena ematen digu: "De aquí viene Maria - Jeseak, lit. los Maria y Jese aplicado como nombre a canciones de ronda de Navidad" (R. M. de Azkue, 1925: 1120).

Horren arabera, kantu hauetan jo eta ke errepikatzen den "Maria, José" lelotik etorriko litzateke. Baina hainbat erabilpen ezberdin ditu eta, zentzu honetan, esanahi anitzeko berba bat da, hots, hitz polisemikoa, erabileraren testuinguruaren arabera, esanahi ezberdinak hartzen baititu. Ikus dezagun zeintzuk diren esanahi horiek.

Maiz, kantua bera izendatzeko erabiltzen da, hau da, egun horietan abesten diren koplak, hain zuzen. Testu batzuetan, Gabonetako erronda guztiak izendatzeko ere erabilia izan da. Era berean, abeslaria izendatzeko ere erabiltzen da, egoera konkretu batean abesten dituenari. Marijes hitzak erritua bera ere izendatzen du, hau da, bederatziurrena osoa.

Baina aktoreek eman didaten ahozko informazioa kontuan harturik, gaueko kopia hauek bere ohetik entzuten dituen ere Marijes da. Era honetan, Marijes, gernikar ere esan nahi du. Beraz, eskematikoki:

- Marijesiak = Koplak edo abestiak.
- Marijesiak = Gabonetako errondak orokorrean.
- Marijesiak = Abeslariak.
- Marijesiak = Erritua bera, bederatziurrena osoa.
- Marijesiak = Gernikarrak, bai abesten dutenak, bai entzuten dutenak.

Hasieran aipatu dudan legez, Marijes(iak) hitza, batez ere, erritua bera izendatzeko erabiliko dut, hau da, Gernikan izaten dena hain zuzen, baina argi zehaztuz beste herrietako Marijesiei edo hitzaren beste edozein esanahiri buruz aritzen naizen bakoitzean.

5.3. “Kopla-zaarrak”. Manuel Lekuona. Marijesien kantuen ikerketa filologikoak

Euskal folklore eta ahozko literaturaren adituen ustez, Gernikako Marijesietan abesten diren kantuak kopla-zaharrak dira. M. Lekuonaren hitzetan, herriak genero hau bertso berrien generoarekin ezberdintzeko horrela ezagutzen du (M. Lekuona, 1977: 79). Kopla zaharrak gehien bat eske edo postulazio errondetan erabiltzen dira (Gabonak, Urte berri, Ageda Deuna, Inauteriak eta Deun lone), eta pandereteroaren dantzan eta horrelakoetan, eta gehienetan buruz abesten dira. Kopla hauek, azken finean, Erdi Aroko erromantzetegiarekin loturik daude, eta mendeetan errondak egiteko orduan erabilitako paradigmak izan dira.

Kopla dugu, bertsoan erabiltzen den oinarritzko modua. Argudioa, bertso berrietan erabiltzen dena baino askoz zatituagoa izaten du, eta koplen arteko lotura eta zentzua askoz inkoherenteagoa eta zentzugabekoa izaten da. Gainera, zentzugabekeria hau ez da soilik koplen artean ikusten, baizik eta barnean ere, lehen eta bigarren zatien artean, hain zuzen (1977: 80-89). Lekuonak, teknika laburbiltzeko hurrengo ezaugarri nagusia azpimarratzen du: lehen bi bertsoen funtzioa ideia poetiko edo pintoresko bat adieraztea da, eta azken bietan, alderantziz, ideia askoz arruntagoa adierazten ohi da. Lehen bi bertso eta azken bien artean sortzen den etena eta zentzuko elipsi horretan oinarritzen da irudiek duten botere adierazkorra. Bertsoen kopuruari begiratuz gero, gehienetan labur edo luzeagoak izaten dira, baina puntuko silabetan berdinak eta baita erriman ere, hau binakako bertsoetan izaten baita. Kopla bakoitzak lau bertso izaten ohi ditu: A-B-A-B silabak (kopla). Horrela izendatzen dira bi errimako ahapaldiak. Beraz, errimaren arabera, bi kopla mota ditugu: handiak (10-8*-10-8*) eta txikiak (7-6*-7-6*). Abesten duten hau adierazgarria da zentzu honetan:

Eguzkia zelan doan ... A-7
kristalaren artetik B-6
semia jaio halan A-7
amaren sabeletik B-6

Koblariak, lehendik idatzitako bertsoak abesten ditu gehien bat (Marijesiek eta beste eske-errondak kasu), nahiz eta egon badaude inprobisaziorako beta ematen duten egoerak, baina ez da ohikoa izaten.

Arestian aipatu dudanez, kopla-zaharrak Gabonetako eske-errondetan erabiltzen ziren. Gabonetako Misterioari buruz Lekuonak, Pedro Ignacio de Barrutia y Salinas dakarkigu gogora. *Zalgo de Aramayona*-n jaioa 1682an eta 1759an hila, Mondragoiko eskribaua izan zenaren lumatik sortutako Gabonetako antzerki lantxo bati buruz aritzen da, “Acto para la Noche Buena” izenekoa, hain zuzen. Erdi Aroko misterioekin loturik dagoen mila erdi bat bertsoz osatutako lan hau, hamalau kantutan banaturik dago eta garatzen dituen gaiak hauexek dira: Ama Birjinaren esposarioak, Deikundea, Jose Deunaren angustia, Zesarren ediktua, Belenengo bidean, Ostatua bilatuz (tabernako eszena), Salbadoriaren jaiotzaren aurrean infernuko erreakzioa, Grazioso baten interbentzioa, Grazioso eta bere emaztea, Artzainen kantu eta dantza, Aingeruren agerpena eta artzainen eta graziosoaren komentarioak, Ama Birjina eta Jose Deunaren adorazioa, Artzainen adorazioa, Artzainen kantuak eta opariak, eta Azkeneko kantua. Horren atzean Errege Magoei buruzko kuarteto bakarra.

Lekuonaren ustez, Zuberoko Pastoralarekin konparatuz, biak genero berekoak izango lirakeke, ez edukieran bakarrik, baizik eta prozedura metrikari ere dituzten antzekotasunak direla eta: bietan binakako errima kontsonantea erabiltzen da, baina silaben kopurua ez da oso zehatza izaten, ezta gutxiago ere. Autorearen arabera, Pedro Ignacio de Barrutiaren ahozko eta herriko lan hau ez zen izango genero horretako bakarra bere garaian (XVIII. mendean), galdu diren antzeko beste lanetan edukiko zituen bere aitzindariak eta ondorengoak (M. Lekuona, 1977: 117-119).

Dena dela, bai konposizioaren itxuran, bai gai nagusian antzekotasunak esleitzen dizkien arren, Europa osoan oso arruntak izan diren Erdi Aroko antzerki mota hauek, denboraren poderioz ekintza erritualistiko anitz bihurtu dira.

5.4. Gabonetako zikloa: beste Marijesiak. Gernikarren berezitasuna tokiko identitatea ezberdintzeko indize bat bezala. Aspektu kronologikoak

Folkloristek Gabonak izenarekin ezagutzen duten zikloaren barnean koka ditzakegu Marijesiak. Euskal Herriko neguaren jai-zikloan bi zati handi bereizten dira: alde batetik, iraulketa errituz osatutako Inauteri edo Aratusteen zikloa; bestalde, Gabonetako jai eta errituak, gehienak erronda eta eske-kantu herrikoiak direnak (Gabonak, Urte barri, Erregeak datoz) (J. M. Satrustegi, 1974).

Orokorrean, bi gertaera mota izaten dira ekintza erritualen helburu. Alde batetik, ustekabekoak, hondamendi ekologikoak, meteorologikoak, gudak, etab. Bestetik, aldizkakoak, hots, egutegiari loturik daudenak eta ordenamendu kosmologiko eta soziala gordetzera zuzendurik daudenak. Tradizionalki europar nekazal gizarte tradizionaletan, kosmosa eta izadiaren arteko harremanak

markatzen zituzten indizeak ziren, eta komunitatearen denbora soziala eta produktiboa ordenatzen zuten. Jaia, kosmosaren aldizkako birsortzearen zikloan integraturiko denbora izaten zen, eta horrela, ia gehienak solstizioen inguruan topatzen ditugu, kasu honetan, neguko solstizioan, hain zuzen (E. Leach, 1971; J. Caro Baroja, 1984).

Gaur egun, komunitateen industrializazioa dela medio, eta lurraren zikloei loturik dauden nekazal lanen beharra gero eta gutxiago denez, ezin dugu askotan bizitza produktiboaren erregulatzaile modura hartu (Fernandez de Larrinoa, 1993). Dena dela, ekintza hauek alde identitario nabarmen hartu dute (Martinez Montoya, 2002), Marijesietan ikusiko dugun bezala.

Abenduaren 24an, Gabon gauean, Euskal Herriko herri askotan ohikoa zen eta da errondan irtetea Gabonetako misterioak eta Jesukristoren Jaiotza abestera. Kantu hauek “Marijesiak” izen generikoarekin ezagunak dira, nahiz eta leku batzuetan beste izen batzuk hartu, esate baterako, Larrabetzun “Joenikuek” (Josenekuak) edo “Abenduko umiek” (Niños de Adviento) Ean. Tradizioz, Gernikan abesten dira, baina baita Bizkaiko beste herri askotan ere: Ea, Muxika, Gautegiz-Arteaga, Durango, Markina-Xemein, etab. (J. A. Arana Martija, 1981).

Nire ikerketan Gernikakoei lehentasuna emateak baditu zenbait arrazoi, batez ere, joan den mende osoan ohitura bizirik mantendu izan duten bakarrak izan direlako eta besteetatik bereizten duten ezaugarri kronologiko eta formal aipagarri batzuk dituelako. Alde batetik, beste herrietan egun bateko kontua den bitartean, alegia, Gabon bezperako ospakizuna, Gernikako erritua bederatziurren bat da, hots, bederatzi gauean jarraian abesten dira. Bestalde, Gernikan errondak gauez egiten dira, goizaldeko lauretan, hain zuzen, eta beste leku guztietan arratsean izaten dira, nahiz eta Muxikan, adibidez, gau osoa iraun. Itxurari dagokionez, leku batzuetan kantariak era tradizionalen irteten dira, hau da, nekazariz jantzita eta kantuari jarraitzeko lurra astinduz makilekin, esate baterako, Agate Deunaren bezperan egiten den bezala. Gernikako Marijesiek, aldiz, kaleko jantziak erabiltzen dituzte (negukoak) eta ez dute makilarik eramaten. Gainera, aurrerago aipatuko dudanez, seriotasuna eta urritasuna dute ezaugarri nagusienak.

Anekdotak hutsak izan beharrean, ezaugarri bi horiek (bederatziurrena izatea eta gauez izatea) oinarritzkoak dira erritu honetan, indize bereizgarriak bezala funtzionatzen baitute eta komunitatearen tokiko identitatea eraikitzeko erabiliak izango baitira.

Arana Martijak, bederatziurrenaren ezaugarri hau azaltzeko, alde batetik, erromatar nobedialekin lotzen du eta, bestetik, Durangoko tan-ti-ki-tanekin, “Gabonetako jai alaiak iragartzeko” bederatzi eguneko kanpai deiak (Arana Martija, 1979: 11-40). Euskal Herriko sinesmen tradizionalen, bederatziurrenako denborazko kontzeptu hau hileta errituekin loturik agertzen zaigu, urtean behin hildakoen senideek haren oroimenez agintzen zuten “Bederatziurrenak” izeneko, bederatzi mezaz osaturiko zikloa (W. Douglass, 1973: 78). Hemen, bizitza eta heriotzaren artean igarotzeko une liminal bat

legez agertzen da, eta hauek definizioz arriskutsuak direnez, erritualizazioa arrisku horretatik babesteko erabilgarria da. Era berean, goiza heldu arte, Marijesiei komunitatearen babeslearenak egitea egokitzen zaie. Horrela, erritualki eguzkiaren izpiei bizkarra ematen dien *communitas* bat bezala gelditu dira. Hau da, solstizioaren une gogortsuena heldu orduko (urte osoko gau luzeenak diren unean), gaueko arriskuen eta urteko zikloaren amaieraren aurrean joera konjurtzaile batean, kausetik ordena eraikitzen. Abeslariak eguna/gaua arteko muga marrazten dute. C. Gaignebet-ek⁴⁶ esaten duen bezala, denbora kronologiko arruntetik at dagoen bukle bat osatzen du jai-denborak. Mitoaren denbora da eta, M. Elíade-ren ustez, denbora arruntaren norabidearen aurka doa.

Para el hombre religioso de las culturas arcaicas, el mundo se renovaba anualmente a través de fiestas y rituales periódicos que suponían la recreación del momento primordial de creación de orden. En otros términos, reencontraba en cada año nuevo la santidad original que tenía el mundo cuando salió de las manos del Creador... La significación de esta regresión periódica del mundo a una modalidad caótica era que, todos los pecados del año, todo lo que el tiempo había mancillado y desgastado, quedaba aniquilado en el sentido físico del término. Al participar simbólicamente en la aniquilación y en la recreación del mundo, el hombre era a su vez creado de nuevo, renacía. (M. Elíade, 1999: 58-61).

Mitoaren aldizkako birgaurkotze horren azpian, europar nekazal gizarte tradizionalak zuten denboraren kontzepzio ziklikoa eta ahistorikoa ageri zaigu. Erlijio kosmikoarena, hain zuzen. Erdi Aroan, denboraren kontzepzio hau kristautasunak ekarri zuen kontzepzio linealarekin uztartu behar izan zen, non denborak hasiera eta bukaera zehatzak zituen. Halere, kristautasun "historiko" eta moralak, nekazari europarrek bizitzeko zuten era zela eta, ez zuen lortu guztiz erakartzea. Nekazal biztanleriaren berezko bizipen erlijiosoaren oinarria, kristautasun kosmiko delako bat izango litzateke, horregatik dio Ch. Guignebert-ek mendebaldarrak ez garela inoiz zehatz kristauak izan⁴⁷. Sinismen paganoetatik kristautasunera emandako urratsak, Erdi Aroko denboraren irudikazioaren berrantolaketa bat egitera behartzen du. Baina denborarekiko zuten antzinako harreman ziklikoa ez da desagertuko, baizik eta bigarren maila batera bultzatua izango da, herri kontzientziaren azpiko estratua izango balitz bezala.

Erdi Aroko kronotropoan Guriévich-ek dio (A. Guriévich, 1990: 125-126), Kristoren bizitza markatzen zuten gertaeren oroitzen jaiek, urte osoko denbora sailkatzen zuten, eta horrela, adibidez, urteko denbora kalkulatzeko Gabonetatik aurrera eta atzera zenbait aste zirela kontuan hartzen zuten. Era berean, egunekoa neurtzeko abestutako salmoen bidez egiten zen, ordu bakoitzak bere errezo eta otoitz bereziak zituen eta, edo baita kanpai deien bidez ere.

46. Claude Gaignebet, IV. Encuentros de Arte y Cultura-n, Bilbo, 2003.

47. Ikusi J. Aranzadi (2000: 268).

5.5. Juan de Irigoyen. Marijesiak, “Las Posadas” mexikarrak eta Onbiderako Antzerkia (*Teatro edificante*)

J. de Irigoyenek⁴⁸ bere garaian, errituari buruz ikuspuntu difusionista batetik idatzi zuen eta Mexikon izaten diren “Las Posadas de San José y la Virgen” izeneko ohitura eta Marijesien arteko harremanari buruz aritzen da XX. mendearen erdian idatzitako artikulu batean. Horrela idazten zuen “La Gaceta del Norte” egunkarian:

Ingenuos “belenes”, que se oponen a los “Noeles” exóticos de relumbrón y fantasía, se acogen a muchas casas; y en algunos pueblos son paseados por las calles en comparsas de niños. Quedan todavía reminiscencias de una vieja costumbre de rondas nocturnas cantando los episodios de la expectación del Nacimiento del Hijo de Dios. Costumbre que perdida o debilitada en España continua pujante en los pueblos Hispano-Americanos; en Méjico, más concretamente e intensamente, con el nombre propio de “Las Posadas de San José y la Virgen”.

En Vizcaya, Guernica conserva vivas esta rondas nocturnas en el novenario de la Expectación del Nacimiento; Y sus cantos, y sobre todo sus letrillas (distintas según avanzan los días), tienen un sabor único: arcaico, ingenuo y entrañable como el de un viejo romance o retablo de primitivos⁴⁹.

Ez da lan honen xedea Marijesien eta “Las Posadas”en arteko jatorrizko harremanik jartzea, ezta bien arteko ikerketa konparatiborik egitea, ezta gutxiagorik ere ohitura horien jatorrian miatzea. Baina era berean, jakinez erritu honetan identitatea berreraikitzeke erabiltzen diren adierazleak Marijesien berezitasuna eta bakartasuna direla, interesgarri iruditu zait, alde batetik, ikerlari mexikarrek ohitura honen jatorria azaltzeko planteatzen dituzten teoria difusionistak gogora ekartzea (M. E. Ravicz, 1970), eta bestetik, “Las Posadas” ohitura mexikarraren ezaugarri batzuk aipatzea, Gernikako Marijesiekin izugarrizko antza dutelako.

Hurrengo azterketa egiteko, UNAM-eko Zientzia Politiko eta Sozialen Fakultateko G. Casas Cabrera ikerleak idatzitako “Las Posadas en México” izeneko lana hartu dut oinarri. Era berean, lan horren oinarria, 1942. urtean German Andrade Labastidak ikerlari eta teniente koronelak idatzitako testua izan da⁵⁰.

Herriko jai bihurtu izan diren beste hainbat ekintzekin gertatu izan zen bezala, “Las Posadas”, XVI. mendean europar misiolariak Mexikon sartutako Gabon aurreko bederatziurrena izan zen. Bertako elementu asko atxikitu, eta bizirik dirau oso izaera sinkretikoa batekin. Bederatzi egunetan eta ordu eta erdi irauten duten gaueko prozesiotan (askotan Marijesiek egiten duten ordu

48. Juan de Irigoyen, euskaltzaina izan zen Franco garaian, eta kirol (batez ere pilota), gastronomia eta historiari buruz idazten zuen *La Gaceta del Norte* egunkarian.

49. 1952an abenduaren 25eko, *La Gaceta del Norte*-n; Bromatología popular atala; Artikulua: La Navidad hogareña. “La “Intxaursaltza” y el “Zurrapote”. Juan de Irigoyen. (lehen zutabearen amaieran).

50. <http://morgan.iiia.unam.mx/usr/humanidades/154/Columnas154/Casas.html> web orrian.

berean, gaueko 4retan, alegia), Ama Birjina eta San Jose, testu biblikoaren arabera, Nazaret eta Belen-en artean egindako bidaia eta hara heldu eta nola ostatu eskean ibili ziren irudikatzen dute.

Pasarte hau, Pedro Bidaguren “Garratza”k 1915ean bildutako Gernikako kopletan ere agertzen zaigu. Gaur egun, baten bat abesten bada ere, pasarte osatzen duten koplak hauexek dira:


47. Biac Belenera
dute caminatu
ara eldusiria nian
ostatuaren itandu
48. Esquepe etze chubaten
dagos atiac jotén
guisona bentanara
chito neques urtatzen
49. Guisonac bentanatik
gau deu erantzuten
norda ordu onetan
atiac jotén
50. Nor eta nor bisida
etzechu sar orretan
nor eta ser gurasenduque
Jaunaren ordu onetan
51. Ara or etzechu sar bat
uriaren acabuan
abiriac eta baño
estira sartzen barruan

Germán Andrade Labastidaren iritziz, aztekek sakratutzat zuten San Agustín Acolman herrian sortu ziren, bertan Teotihuacan-eko piramideen azpian abenduko hilean Huitzilopochtli-ren jaiotza ospatzen baitzuten. Bertako ohituraz baliatuz, 1528. urtean lehenengo aldiz kristau ohitura berri bat ospatu zen. Fray Pedro de Gante misiolariak bertakoak gonbidatu zituen abestera eta prozesioak egitera Jesukristoren jaiotza eta erromes santuek Nazaret eta Belenen arteko egindako bidaiaaren oroimenez. Horretarako, Jesusen jaiotzaren aurreko bederatzi egunak hartu ziren. Dena dela, ez ziren jai erlijioso legez sendotu 1587 arte, Fray Diego de Soria errektoreak bultzatuta, San Agustín Acolman komentuan ospakizuna urtero egiten hasi zenean.

Sixto V. Aita Santuak 1587an, Fray Diego de Soriari Aginaldo izeneko meza batzuk Nueva Españan ospatzeko eskubidea eman zion. Abenduaren 16 eta 24 bitartean elizaurrean ospatzen zirenak, “Las Posadas”en aitzindariak izan ziren. Gabonetako pasarteak irudikatzeaz gain, kantak atseginagoak egitearren, bengala suteak eta koheteak ere erabiltzen omen zituzten. Gero, ekintza hauek elizetatik auzoetara zabaldu ziren eta, bertan, frutaz egindako pontxe ospetsua erantsi zieten. Beraz, hasiera batean ospakizun erlijiosoak izan zirenak,

denboraren poderioz, jai herrikoi bihurtu ziren, eta auzoetan egiten ziren, frutak, gozokiak, piñatak, paperezko faroltxoak, eta gainontzeko apaingarri guztiak erosteko auzolanetan antolatuz.

Jainkoaren legea eta fedeari buruzko kantak konposatu zituen lehena Fray Pedro de Gante izan zen. Kantu horietan azaltzen zuen nola Jainkoa gizaki egin zen giza leinua askatzeko eta nola Ama Birjina orbanik gabe erditu zen. Dena dela 1530 urterako Fray Juan de Zumarragak lurralde konkistatu berrietan ospatzeko ziren lehen Gabonetan, “Farsa de la Natividad gozosa de Nuestro Salvador” izeneko antzezlan erlijiosoa antzezteko agindu zuen. Horrela, Eliza, dotrina irakasteko antzerki ebanjeliko bat sortzen hasi zen. Urte gutxiren buruan, Fray Andrés de Olmos-ek, “Venida y Adoración de los Reyes Magos” izeneko lantxoak idatzi omen zuen. Antzeztutako pertsonaiak hauexek izan ziren: Jesus Haurra, Ama Birjina, San Jose, Meltxor, Gaspar, Baltasar, mezulari bat, aingerua, Herodes erregea, maizterra eta hiru abade judutar. Hauexek dira, normalki antzezten diren pertsonaiak aldaketa batzuk salbu.



Nine days to Christmas (Iturria: on line).

Abenduaren 16an hasi eta 24an bukatzen diren ohitura hauek Mexiko osoko herri eta hiri askotan antzezten dira oraindik (Oaxaca, Xochimilco, Michoacan, Celaya, Axochiapan, Queretaro, Puerto Vallarta, Tocuaro, Patzcuaro, Ihuatzio, esate baterako). Batzuetan, “La Posada”ri sarrera emateko Pastorela bat antzezten da. Gehienetan erromesen irudiak (Maria eta Jose) prozesioaren aurrealdean jartzen dira ohol baten gainean, nahiz eta leku batzuetan irudi horiek bertako lagun batzuek antzeztu, eta horrela joaten dira faroltxoekin apaindutako kaleetan barrena. Jendeak kantuak abestuz eta kandelak edo faroltxoak eskuetan eramanez, erromesak laguntzen ditu etxez etxe ostatu

eskean. Etxeetan dauden lagunek uko egiten diote eskeari bizpahiru aldiz, eta, ondoren, erromesek bidea jarraitzen dute eskaera hurrengo etxean errepikatzen. Azkenik, etxe batean onartu egiten da eskaera eta ostatua lortzen dute. Kantuak amaitu ahala etxeko atea ireki, argiak piztu eta hasten da jaia. Hausteko piñatak, jateko frutak (jikama, tejokoteak edo kaña) eta ronez bustitako pontxea edateko.

Ziur aski, mota honetako antzerkitxoak, Mundu Berriko indigenen ebanjelizazio prozesuan oinarrituko tresnak izan ziren. Eta horrela, beste hainbat ohiturekin gertatu zen bezala, hango lurraldeen kolonizazioan erabiltzeko eramanak izan ziren (A. Warman, 1972). Baina tresna horiek Europako nekazal komunitateetan ere erabiliak izan ziren zentzu berean, izadiaren zikloak isladatzen zuen jentilen egutegiaren gainean kristau egutegia jarritz. Denboraren kontzepzio arkaikoaren aurrean, kristautasunak ekarri zuen kontzepzio linealak, iragana, oraina eta etorkizunaren kontzeptuen birlaborazio bat suposatu zuen. Arestian esan dudanez, Gabonak ziren denbora kalkulatzeko erabiltzen ziren erreferente berriak. Baina hasiera batean, urtea ez zen aldi berean hasten lurralde ezberdinetan. Batzuetan Gabonekin hasten zen, beste batzuetan, aldiz, Aste Santuarekin. Esate baterako, teologoak urte berria urtarrilaren 1ean hastearen aurka izan ziren luzez, jai jentiltzat jotzen zutelako.

5.6. José Antonio Arana Martija. Marijesien antzezkiak

Gernikako Marijesiak ikertzeko orduan erreferente bat egotekotan, hori J. A. Arana Martijaren lana da, gainera, eragin nabarmena izan du errituari buruz eraiki izan den memoria kolektiboan.

Filologo eta historialari gernikarrak, hainbat lan egin ditu etnomusikologia ikuspuntutik, bederatziurrenako ekintzaren antzezkiak, keinuketa eta kantuen ezaugarri filologikoak ikertuz. Autore honek, gabon kantak bi talde handitan sailkatzen ditu: alde batetik, senideen artean abesten direnak (bai erlijiosoak, bai gastronomikoak); bestetik, errondak edo eskelarienak (Azkuek horrela esaten zion postulaziokoei). Azken hauek, Gabonetako misterioa, Urte berria, Erregeen etorrera, Kandelaria edo Agate Deuna dute aitzaki (Arana Martija, 1981: 28).

Batez ere, jatorrizko data bilatzeko aitortutako xede nagusiarekin abestutako testuen ikerketari ekiten dio, melodia alde batera utziz, testua buruz jakiteko laguntza bat baino ez delako, nahiz eta aldaketa ugari izan (Arana Martija, 2004: 70-71). Halere, bere lan batzuetan, Gernikan abesten diren hiru melodien transkripzioa eskaintzen digu. Horretaz gain, Muxikako, Larrabetzuko edo Zeanuriko melodien konparaketa bat ere aurki dezakegu (Arana Martija, 1981; 2004). Gainera, 1903an Seber Altubek⁵¹ lau behe

51. Seber Altube Lertxundi (Arrasate), Gernikako Musika Bandaren zuzendaria eta Gernikako Orfeoaren egilea.

ahotsentzako egindako moldaketa ere bilakatzen du, zeinek 1905ean Bergaran izandako Lore Jokoetako musika konposaketen lehiaketan parte hartu zuen. Gero, Azkuek bere Cancionero-an pilatu zuen (Arana Martija, 1981: 41-43). Seber Altubek berak, Gernikako Orfeoia 1922ko Eusko Ikaskuntzako Kongresuan abestutako ahots mistoentzako harmonizazioa prestatu zuen (Arana Martija, 1977: 107). Horren ondoren, bere ikaslea izandako Segundo Olaetak, Elai-Alaiko umeen koroentzako moldatu zuen eskenatokietara eramateko. Lehenengo emanaldia Bilboko Buenos Aires antzokian izan zen 1930eko abuztuaren 21ean (J. A. Arana Martija, 1977: 103; V. del Palacio, 1996: 40).

J. A. Arana Martijaren tesiak planteatzen du ez gaudela gabon-kanta arrunt baten aurrean, baizik eta bederatziurreneko luzerako Gabonetako poema musikal eta herrikoi baten aurrean eta hipotesi moduan, Erdi Aro berantiarreko Auto eta Pastoralen antzerki erlijiosoarekin lotzen du, Marijesien hasiera edo jatorria XVII. mendean kokatuz. Ikerlari honen iritziz, Marijesien aurrekari legeztatuak ditzakegun hainbat lan literario eta testu daude, antzekotasun nabarmenak baitituzte. Tartean hurrengo hauek⁵²:

- Nicolas de Zubia Araoz: 1691, Catecismo en San Sebastian. “De las Coplas a la Encarnación y Nacimiento de Nuestro señor Jesu christo”. Mitxelena, Luis (1964) “*Textos Arcaicos Vascos*”. Minotauro: 138-9.
- Jose de Lezamiz: 1699, Vida del Apostol Santiago (Mexiko). Biblioteca Nacional de Mexico eta Euskaltzaindia.
- Sebastian de la Gandara: Gabon canta de Gernika. 1757.
- Escribano Barrutia (Mondragon) “Acto para la Nochebuena”. In: “*Euskera*”, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak, Bilbo: 1960; 275 orr.
- Sor Luisa de la Misericordia (Conde de Peñafloredaren goitzena) Azkoitia “Gabon Sariak”. XVIII mendearen erdialdean.
- Cancion navideña guerniquesa anonima de 1801. Adolfo Arejita, 1993.

Gernikako errondetan abesten den testuak, beste testu hauekin guztiekin zerikusirik eduki dezake Arana Martijaren ustean, baina autore honek, batez ere, Zubia eta Lezamiz erlijiosoek euskaraz idatzitako Doctrina Christiana azpimarratzen du. Mexikon aurkitutako testu hau XVII. mendekoa da (1699), eta bertan agertzen diren lehenengo sei koplak, eta gaur egun Gernikako Marijesietan abesten direnak berdinak dira. Zentzu horretan, autore honen hipotesiak badu nolabait ikuspegi difusionista bat.

52. Ikusi J. A. Arana Martija (1981; 2004) edo V. del Palacio (1997; 2000).



Zubia eta Lezamiz ek argitaratutako testuaren azala. *Coplas a la Encarnación y Nacimiento de Nuestro Señor Jesu-christo*. Iturria: Euskaltzaindia.

Argudio horiekin erantzun zuen Arana Martijak, J. Gómez Tejedorek 1965ean prentsan eta irratian argitaratu zuen artikulu bati, non azken hau poemaren jatorriaz eta edukiaz aritzen zen gaztelako erromantzetegiarekin lotuz. Arana Martijak, aldiz, euskal ahozko literaturaren gai bat zela argudiatzen zuen⁵³. Argi dago literatura biak harremanetan izan zirela eta eztabaida honen zergatia trantsizio politikoaren testuinguruan identitatearen berreraiketarako erabiltzen ziren hainbat aspektuekin lotuta dagoela.

Azken finean, koroa eta bakarlariaren arteko solasa, ibilera eta belau-nikazioaren antzekizuna, errondaren denbora mugatua (ordu eta erdi), eta antzerki lan bateko hiru ekitaldi ematen duten hiru melodia ezberdinak dira, autore honek erabiltzen dituen argudio nagusiak euskal erromantzean idatzitako lehendabiziko lan eszenikoaren hondakinen aurrean gaudela planteatzeko:

Con lo dicho creo poder afirmar que los Marijeses de Gernika constituyen un resto de una pieza teatral que con el tiempo fue perdiendo su primitiva factura escénica para convertirse en una ronda callejera. (Arana Martija, 79d: 39).

Baina Arana Martijak planteatutako hipotesiaren azpian beste ideia bat dago. Hau da, Erdi Aroko biztanleria *illiterati* ebanjelizatzeke tresna pedagogiko baten aurrean gaudela. Erdi Aroko kultura horretan askoz gehiago ziren

53. 1965ean *Brisas Guerniquesas* izeneko parrokiako publikazioan.

errezitatuko testuak idatzitakoak baino, eta autoreak entzuleengana zuzentzen ziren, ez irakurleengana (Guriévich, 1990: 48). Zentzu honetan, gogora dezagun, 1919ean Pedro Bidagurenek argitaratutako Marijesien testuaren azpitituluak zera dio: “Marijesiac: Burus euquiteco direnac”.

Publikoan egindako errezitazio horretan, keinuaz gain, Marijesien kantuen ezaugarria den errepikatutako hitzak oso garrantzi handia du. Zentzu honetan, errituaren estetika, antzekizunak eta irudikarioak, harreman zuzena dute Erdi Aroko *Ars memorativa*-rekin edo Memoriaren artearekin⁵⁴. Alegia, mnemotekniarekin. Honek bi helburu nagusi zituen: alde batetik, Historia Sakratuaren pertsonaiak ezagutaraztea; bestetik, leku eta gertaera sakratuak gizaklen gogoan finkatzea. Errepikakorra eta mnemoteknikoa den eskenografia horrek, garai horretako ideia sozialak eta erlijiosoak adierazten dituen kontakizun moral, pedagogiko eta doktrinal baten aurrean kokatzen gaitu.

Indar eta edertasun hunkigarriak izan arren, kantuetan erabilitako melodien urritasunak testuaren memorizazioa errazten du. Horrela, errituari eraginkortasun performatiboa ematen dioten ezaugarriak hauek izango lirake: alde batetik, keinua (ibiltzea, gelditzea, belaunikatzea), errepikatutako hitza (aspertu arte errepikatutako leloak) eta nahiz hunkigarriak izan, tonubako melodiak.

Ikerlari honek, Marijesien antzekizuna antzerkiaren kontzeptu klasikoak erabiliz aztertzen du, hau da, testuaren filologia eta antzekizuna abiapuntutzat hartuz. Baina performantzaren ikuspuntutik errituak hartzen duen tratamendua haratago doa, eta horretarako etengabeko begirada sor zaio ekintzaren testuinguruan egiten den keinuari.

5.7. Vicente del Palacio, Gernikazaharra eta mikrohistoria

V. del Palacio-k, Gernikazaharra taldearen partaideak burututako lan historiko eta etnografikoek, bidai bat proposatzen digute errituaren mikrohistoriaren barne. Aldaba izeneko tokiko aldizkarian argitaratutako hiru txostenetan, autore honek lan etnografiko interesgarri bat egiten du.

Alde batetik argitaratutako testu eta melodia guztiak biltzen ditu, baita prentsan agertutako informazioa ere. Baina batez ere, errituaren mikrohistoria bat idazten du, hau da, barneko historian izandako pertsonai xeble eta herrikoien berri ematen digu, XX. mendean zehar Marijesiak izandakoen izenak eta biografia, haien egoera laboral, sozial, erlijioso eta ekonomikoa ikertuz. Horretarako hiru denbora tarte ezberdintzen ditu. Lehenengoa, Gerra Zibila gertatu arte, bigarrena gerra ostekoa, eta hirugarren bat, 70. hamarkadan hasi eta gaur egun arte.

54. *Ars memorativi* buruz ikusi: Flor, Fernando R. de la (1996).

5.8. Xabier Icobalceta. Berreskuratze, sekularizazioa eta politizazioa

F. J. Icobalcetak, 1994an, Pariseko Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-en, “Le sens politique des fêtes á Gernika-Pays Basque” izeneko tesia aurkeztu zuen. Bertan, Gernikako urte osoko jaietako zikloaren ikerketa antropologiko bat egiten du ikuspuntu estrukturo-funtzionalista batetik, bi ziklo handitan sailkatuz, udakoak eta negukoak, eta Marijesiak neguko zikloan sartuz.

Autore honek igarotze-erritutzat jotzen ditu. Beraz, A. van Gennepen segregazioa, liminal unea eta agregazioaren eskema aplikatzen du eta baita V. Turnerren prozesu erritualaren teoriak ere. Paradigma horren babesean, Franko erregimenaren ondoko trantsizio politikoarekin batera, errituaren sekularizazioaren garapena planteatzen du eta, aldi berean, erregimen horretan klandestinitatean izandako euskal kulturaren berreskurapen prozesu handiago batean koka dezakegun berpizketa prozesu bat. Errituak oinarritzko aldaketak jasaten ditu. Alde batetik, nahiz eta betidanik gizonen ardura izan, ordutik hona emakumeak hasi ziren parte hartzen. Bestalde, parte hartzen duten gehienak ez dira sinestunak, ez eta gutxiagorik ere praktikanteak, ezaugarri erlijioso hain nabarmenak dituen erritu bati dagokion bezala.

70eko hamarkadaren erdian, marko sozio-politikoaren aldaketarekin batera, abesten diren koplei, politiko kutsuko hiru kopla berri erantsiko dizkiete (gehi postulaziorako beste laugarren bat, “Bederatzi gau tristetan...”). Kopla laiko horiek, trikiti-kopla dira edo sasi-soinuko tankerako kopla (Hor goian ...hor behean ...) bertsotan sarri erabilitako formatua. Baina kopla horiek errituaren sekularizazioaren ondorio izan arren, gernikar irudikarioa osatzen duten muga eta harreman geo-politikoaren indizeak bezala ere ikus ditzakegu, bai Gernika auzoko herriekin (Errigoiti esate baterako), bai Euskal Herria, Espainia eta Frantzia estatuekin. Indize horiek tokiko identitatea indartzeaz gain, euskaldun esparru zabalago batera luzatzen dute. Era berean erakusten digute nola erabiltzen den irudikarioan, komunitatearen gu maiestatiko hori axis mundi-an kokatzen dela, guztiaren erdian, goitik eta behetik inguratutik, alegia.

Hor goiko landetan
eperrak dabiltz kantetan
Errigoitiko alkatari
Kaka ein`tziela praketan

Hor goian Juaniko
hemen behean Periko
eta bien bitartean dago
Martzelino Polanko

Hor goian Frantzia
Hor behean Espainia
eta bien bitartean dago
Gora Euskadi Askatuta

Berreskuraketa edo berpizketa prozesu horretan errituak esanahi berriak hartzen ditu eta, aldi berean, ordura arte erabilitako erreferenteak baino zabalagoak bilatzen duen dimentsio identitario sendo bat ere. Zehazki, trantsizioko irudikazio abertzalean oinarritutako dimentsio politikoak dituzten erreferente publikoak.

Ildo honi jarraituz, hurrengo puntuetan garatzen saiatuko naizen galderak hauexek dira: zeintzuk diren esanahi berri horiek; nola hedatzen diren; eta nortzuk diren esanahi horien eta identitate berreraiketaren eragileak.

6. TOKIKO IDENTITATEAREN BERRERAIKETA

6.1. Ondare kulturalaren berreskurapena Gernikan

Antropologiak ondare kulturalaren berreskurapena ikertu du, batez ere, maila lokalean jazotzen diren garapen-proiektuen bultzatzaile modura hartuta. Hain zuzen ere, ondare horren garrantzia oinarritzat aipatzen du, zeren eta oinarri horren gainean, alde ekonomikoari dagokionez, herriak berpizten baitira eta, halaber, giza-taldeek berariazko identitatea eta komunitate-sentimendua birsortzen baitute⁵⁵.

Gernikan eta bere inguruan, Urdaibai Biosfera-Erreserba deritzon inguru horretan alegia, berreskurapen-fenomeno horrek hainbat aurpegi ditu. Azken hamarkadetan, euskal administrazioek eta beste instituzio batzuek arreta turistikoa berezia ipini dute gune horretan, bertan dauden hiriguneen jarduera industrialak alde batera utzita⁵⁶. Garapen ekonomikoa bultzatzeko bideratuta dagoen turismoaren gaineko interes horrek arreta berezia jartzen dio ondare kulturalari. Ildo horretan, denbora-tarte laburrean Gernikako Udalak bi museo ireki ditu: *Euskal Herria Museoa* eta *Gernika Museoa (Bakearen Museoa)*⁵⁷.

Bestalde, Administrazioetik bultzatzen diren ekimenetatik kanpo, eskualdeko erakunde, giza-mugimendu eta kultura-taldeen partez, beste batzuk ere sortu dira. Dirudenez, garapen ekonomikoari begira egon barik eta nortasun-ikusuntu bati jarraituz.

Alde batetik, bertako ondare arkeologikoari buruz lan egiten duten “Agiri” bezalako elkarteak ditugu. Aldi berean, “Urdaibaiko Galtzagorriak” bolondres-taldea aipatuko nuke. Talde horrek, ondare kulturalaren (karobien, trikuharrien, haremuinen, bertako hazien eta abarren) berreskurapenaren alde burutzen

55. Moira G. Simpson (1996); L. Karp y Kraemer (1992); Kepa Fernandez de Larrinoa (1999; 2003).

56. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Turismo Egitamua Sektoriala (1998ko urrian; 14-29 orr.).

57. Euskal Herriko aspektu politiko, ekonomiko eta linguistikoak eta euskaldunon historiako zenbait pertsonaia ospetsu biltzen dituena; *Gernikako historiari buruzko Museoa*, erakusteko bideratuta. Bertako bisita-triptikoan ipintzen duen moduan, “Gernikak bere historian zehar adierazi edo adierazten duenaren ikuspegi orokorra eskaintzen digute euskaldun guztiontzako (demokrazia, foruak, askatasuna...) eta gaur egun mundialki sinbolizatzen duena (giza-eskubideak, bakea...)”.

ditu ekintzak, hots, biodibertsitatea, etnografia-, arkeologia- eta natura-arloak lantzen ditu. Instituzioen eta erakundeen interes edo inplikazio falta dela-eta, galtzeko zorian dauden aztarna kultural eta ekologikoen berreskurapenari lehentasuna ematen diote, batez ere. Ekintza horiek garapen jasangarrian⁵⁸ eta ahaztuak gelditu diren produkzio-ereduetan dute oinarri. “Erromantizismo kaletar”etik bultzatutako ekintzak direla pentsa daitekeen arren, garrantzi handikoak dira identitate-berreskurapenaren aldetik.

Bestetik, ahozketasunaren arloan, Elai-Alai dantza taldearen 75. urtemuga zela-eta, abian ipini zuen “Gure ohiturak suspertuz” kanpaina dugu. Herriko ahozko ondare eta folkloreak berreskurapenari zuzenduta, neguan ospatzen diren jai, erritu eta dantzen berpiztea izan zuen xede nagusia: “Gabon gaba”ko Marijesiak, Erregeak datoz, Kandelerio, Agate Deuna, Eguen Zuri edota gernikarrak propio diren hainbat dantza: Erregelak edo Uriko aureskua, esate baterako. Herri osoan ipini ziren kartelen bidez, gonbidapen berezia luzatzen zitzairen biztanle guztiei parte har zezaten (“Erdi danok”). Beste aldetik, abesten diren kantak, beraien ezaugarri bereziak eta guzti, herritik sakabanatu zen CD batean argitaratu ziren “herrian zabal daitezen”.

Ekimen hau abian ipini zen gazteen partaidetza gutxitzen zihoalako horrelako ekintzetan, eta batik bat, ondare horren galeraren sentimendua nabaria zelako biztanleen artean. Lan honen helburua, jai-gertakari horien artean, jai zehatz baten berpizketa-prozesua aztertzea da. Gernikarrentzako ohitura esanguratsu bat balego, hori Marijesiena litzateke ezbairik barik. Horien gauezkotasun eta klandestinitateari esker “begi turistiko”aren interes eta irizpidetik at gelditu dira. Ezaugarri hoiei ezker, makina bat turistentzako edo “beraneante-udatiar”entzako espektakulu bihurtzea saihestu du. Baliteke, tokian tokiko mailan, hain markatuta dagoen identitate-karakterra horregatik hartu izatea. Jarraian ikusiko dugunez, prozesu horretan Elai-Alai taldeak garrantzi handia izan du.

6.2. ELAI-ALAI taldea

J. A. Arana Martija euskaltzain eta historialari gernikarraren hitzetan “Euskal Herriko lehenbiziko koreografia-taldea Elai-Alai da” (1977: 10). Nahiz eta taldearen bataio ofiziala Elai-Alai izenarekin 1930eko apirilaren 5ean izan, lehenengo agerpen publikoa 1927ko uztailaren 30ean izan zen.

Elai Alai taldea, Herriko Musika-Bandako eta Akademiako zuzendaria zenaren (Segundo Olaetaren) eskutik sortu zen. 1927ko hasieran, Segundok, Seber Altuberen ikasleak, egiten zuen lana bandarekin aldizkatuz, umeen dantza-taldeak antolatzen hasi zen euskal musika-ohiturak eta antzerkitxoak plazaratzeko asmoz (dantzak, abestiak eta eszena). Olaetak, Gernikako tradizio

⁵⁸. Jarduera sozioekonomikoen egokitzapen eta garapenerako egitaraua: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Tokiko 21 Agenda”; 1999, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 64-67; 123-126 orr.

musikalak aintzat hartuta prestatu zituen antzerkitxoaren artean Kandelario edo Marijesiak ditugu. Horiek, Gerra Zibilak sorrarazitako derrigorrezko erbestean, koru modura antzeztu ziren Frantzian barrena. Adibidez, *PTT Nord de Paris* irratian, 1938ko Gabonetan egindako emanaldia, hainbeste gernikarrek hunkiturik entzun zuten, euren belarrietara heldu baitzen uhinen bitartez⁵⁹.

Une horretan, ohitura horiek jatorrizko edo berezko “locus”etik mugiarazi ziren, hau da, Gernikako kaleetatik eskenatokietara eraman ziren. Hots, Lorejokoen unean koka daitekeen testuinguru-aldaketa izaten da⁶⁰.

Gerra amaitu ondoren, taldeko partaideak etxera bueltatu ziren; halere, taldea beranduago berrantolatu zen. Taldea, Tx. Unzaluren eskutik, 1965eko maiatzean birsortu zen eta gaur egun arte jardun du gernikarren artean dantza tradizionalak mantentzen (Arana Martija, 1977: 67). Bitartean, Gernikak 1937 urtean jaso zuen bonbardaketaren osteko hondamendia oraindik bero egonda, 1940 urtean hain zuzen, Marijesiek ohiturari eutsi zioten. Antza denez, bonbardaketa eta gero, soilik bi urtez egin zioten kale ohiturari, “Estebanillo” bakarlari ospetsuaren heriotzaren ondorioz. Dena dela, hauxe izango da gerra ostean Gernikako jai-egutegian bizirik iraungo duen ohitura bakarra.

Garai berri honetan, 1965etik aurrera alegia, gerra ostean galduz joan diren ohiturak berreskuratzen eta bizirik iraun zuen bakarra berpizten saiatu zen. Horrela, dantza-talde soil bat baino gehiago bihurtuko da, galdu ziren ohiturak berreskuratzeari, berpizteari eta ikertzeari ekiten baitio; eta eurek dioten legez: “Elai-Alairen asmoa ohiturak bizimodu bihurtzea izango da”⁶¹.

Ildo honetan, bere burua talde kultural eta dinamiko modura ikusten dute. Euskal Herriko kulturaren dantzek izan duten garrantziaren eskutik sortzen delako, eta dantza tradizionalak hedatzeaz gain, beharrezkoa denean, ikertzen eta berreskuratzen ere saiatzen baita. Gainera, arestian ikusi dugunez, berreskurapen-lana herriko jai egutegi osora hedatzen da. 70eko (XX. m.) hamarkadak dakarren marko historiko, politiko eta sozial berrian, ohituren bultzakadak arrakasta lortzen du neurri batean.

Hala eta guztiz ere, hiru hamarkada igaro eta gero, bultzakada berria emateko beharra sortu zen, herriko kultur ondarearen galera gertatzen zebilela uste baitzen; horregatik, bere 75. urteurrena ospatzeko “*Gure ohiturak suspertuz: Elai-Alai 1927-2002*” izenpean kanpaina bat abian ipini zuen.

59. Ikusi: J. A. Arana Martija (1977: 58); F. J. Icobalceta (1994: 55); V. del Palacio (1996: 40).

60. “Fiestas Euscaras” izenpean ezagunak ere. Antoine D`Abbadiek bultzatuta, 1853 urtean hasi eta XX. mendearen bigarren hamarkada arte iraun zuten. Funtsean topaketa literarioak bertsoan eta prosan, abesbatzen ekitaldiak, bertsolariak, txistulariak, herri kirolak eta abar izaten ziren. Jai horien funtsezko izaera kulturala izan ere, alde politiko garrantzitsua ere bazuten garaiko egoera zela eta, Euskal kulturaren ezaugarriak goraipatzeko eta gordetzeko tresna bihurtu ziren. Foruen derogazioaren ondorioz, 1839an, krisi larrian zegoen euskal identitatea isladatzen baitzuten.

61. *Busturialdean Bagabiz* aldizkariaren 3. zenbakia, M. Oruek sinatua (11. orr.). Izenburua, “Elai-Alai: Herriari dagokiona itzultzen 75 urtez”.

Dantzei buruz, taldearen partaide batek beste ohiturei luzatu ahal zaien honako hausnarketa hau egiten zuen:

Orain ez da egoten ia inor, bakarrik mezatara joaten direnak. Lehen ekitaldiak ordu eta erdikoak izaten ziren, orain askoz laburragoak izan behar dira, bestela jendeak alde egiten dau. Beste giro bat egoten zan, folklorea izaten zan euskaldun izaera indartuteko eta danak parte hartuten gendun. [...] Orain jende gitxi batuten da beste gauza batzuk daukazalako buruan: gimnasio batera joan egunero eta itxura zaindu. [...] Gazteak musika eta martxa gurago dabe eta jantzak ez hainbeste⁶².

Argi dago industrializazio- eta modernizazio-prozesuekin inposatzen diren bizimoduek edo bizi-arauek aldaketa garrantzitsua dakartela tradizioetik datozen adierazpen erritualistikoak bizitzeko eran (V. Turner, 1986; 1988). Baina ez nuke esango bizi-arau horiek adierazpen horien desagerpena nahitaez baldintzatuko dutenik. Jarraian ikusiko dugunez, tokian tokikoaren esnatze-prozesua eta tradizioen berreskurapen-fenomenoa, identitatearen ikuspuntutik, oso joera orokorra da (K. Fernández de Larrinoa, 2000).

6.3. Marijesien berpizketa 70eko hamarkadan: errituaren berritzaileak edo identitatearen egileak

Nahiz eta Elai-Alai taldearen kanpainaren helburuen artean Marijesien ohitura egon, hauek beraien aldetik erritua zabaltzeko eta sendotzeko ekimenak planteatzen dituzte. Gaur egun bizirik dirauen Marijesien berpizte-prozesua, gerra zibilaren ostean hasi zela esan dezakegu (eta lehenago ere esango nuke, gerra baino lehen egon ziren testuinguru aldaketak kontuan hartuz gero). Halere, aipatu beharko genuke 70eko hamarkada garrantzi handiko une modura prozesu horretan. Gerra osteko lekukoa hartu zuen gernikar talde txiki hura zahartzen ari zen. Horregatik, garai hartako egoera sozio-politikoaren laguntzaz, belaunaldi berri bati lekukoa hartzeko bidea erraztu zitzaion, eta erritua zabalduz eta sendotuz joan zen.

Hamarkada horretan, gaueko errondan parte hartzen zuen jendearen kopurua nabarmen handitu zen. Ricardo Zalloren bitartez, Gernikako Batxilergo Institutuko ikasleak eta, ondoren, Arana Martijak zuzenduko zukeen Andra Mari Koraleko kideak parte hartu zuten. Lehengo belaunaldiaren motibazioa azken egunean batzen zen dirua bazen ere, belaunaldi berriak beste motibazio batzuk ditu⁶³. Esate baterako, egoera politikoaren eraginez, lorpen politikoei lotzen zen tradizioa mantentzeko nahia edota, besterik gabe, gauez ibiltzearen gau-pasa eginez (gogora dezagun gehienak 15/16 urteko gazteak zirela). Hurrengo hamarkadan, larunbat gaueko errondan 120 partaide ei ziren, denak ez abestu arren. Gaur egun, asteburuko gauetan makina bat gazte azaltzen dira, aste barruko egunetan joaten diren kopurua 60 eta 70 lagunen artekoa izan arren.

62. Txebi Arriaga, Elai-Alai taldeko partaidea, *Busturialdean Bagabiz* aldizkariaren 3. zenbakian, 7. orr.

63. Ikusi: del Palacio (2000: 40).



Entsaioetako kartela. Iturria: J. A. Sagredo-ren artxiboa.

Beraz, 70eko hamarkadan urrats esanguratsua ematen da errituaren berpizteari dagokionez. Baina erritua zabaltzeko eta sendotzeko beharraren sentimenduak bizirik darrai gaur egun. Soilik ikusi behar da gernikarrei aurreko batzarrean, entseiuetan, edo errondetan parte hartzeko luzatzen zaien kartelen bidezko gonbidapena (“kantatzen jakin ala ez jakin”). Buruz abesten diren Marijesien koplak eta errituaren zatien azalpenak biltzen dituen eta argitaratu berria den disko konpaktua ere, ardura honen beste adibide bat dela uste dut.

Gaur egunari begirada etnografiko bat botatzen badiogu, erritu honen partaideak mozorroturik joan beharrean, kalez jantzita doazela ikus dezakegu. Ildo honetan eta lehen aipatu dudak “folklorismo”aren definizio zehatza kontuan harturik, ezin dezakegu esan folklorizatu denik, beste ohiturekin gertatu ei den moduan (Olentzero, Agate Deuna). Beraz, bizi izan duten esanahien eta testuinguruen birlaboraziotik aparte, Marijesiek bizirik dirauten ohitura izango litzateke.

6.4. Birkontestualizazioa eta esanahi berria

Tokian tokiarekiko, komunitarioarekiko, erritualizazioarekiko edota erlijio-soarekiko (beste esparru batzuetara zabaltzen den sakralitatearen ildoan) sortzen doan interesak, berba baten, sinbolikoaren susperraldiak, Europako antropologia-munduan ustekabeen harrapatu zuen (Boissevain, 1982: 7). Gaur egun, aldiz, aurrerapenak ekarri dituen joerekin desenkantaturik dagoen gizarte honetan,

agerian den errealitate bat bezala ikusten da. Ildo horretan, positibismoak eta irrazionalaren ukapenak eragindako hustuketa-hamarkaden ostean, komunitate organikoak nolabaiteko garrantzia hartuko luke gizabanakoaren aurrean. Hau argi gelditzen da egunerokotasunean agertzen diren gizarte tradizionalaren arauak isladatzen dituzten jarrera komunitario horietan. J. Martínez-ek honelaxe dio: “la sociedad habría buscado otros recursos de subsistencia simbólica, recurriendo en los intentos de su redefinición a la capacidad generadora de identidad de los rituales” (2002: 143).

60ko hamarkadatik aurrera, Franco garaian klandestinitatean egon zen kultura oso batek, berdefiniziorako espazioak zabaltzen ditu. Hasiera batean dimentsio kulturean adierazten zen berreraiketa-prozesu bat sortzen da. Elai Alai taldeko partaidearen esanak adierazten duen moduan, kultura, erresistentzia eta birsortzerako bide bihurtzen da. Euskal identitatearen oinarriaren berreskuraketa-prozesu hau, denbora pasa ahala, politizatuz joango da⁶⁴. Horren emaitza, lokalaren mugen eta identitatearen kontzientzia hazkorra dugu, eta historia, tradizio eta ohituretan gero eta interes handiagoa.

70eko hamarkadatik aurrera lekukoa hartzen duen belaunaldi berriak, testuinguru sozio-politiko berriari egokitzen diren esanahi berriak ematen dizkio, kapital sinbolikoa pilatuz eta identitatearen egileak bilakatuz. Berkontestualizazio bat izaten da lehengo zentzua galduz eta identitate politikoa adierazteko eskenatokia bilakatuz. Hots, agertzen ziren muga sinbolikoek beste dimentsio bat hartzen dute, lokalarenak baino zabalagoak, baina tokian tokikoaren idiosinkrasia horri eutsita.

Berreraikuntza identitarioak, muga sinbolikoak ezartzea dakar, barru eta kanpo artean (barneraketa eta bazterketa, nahitaez sortzen diren joerak ditugu). Eta espazioaren murrizketarekin batera beste murrizketa garrantzitsuagoa dugu, soziala alegia. Hau 16. koplaren⁶⁵ bidez egiten da. Kopla hau erdaraz abesten da eta tradizionalki Guardia Zibilei eta Ertzaintzari eskaintzen zaie, herriko “arrotzak” irudikatzen baitute. Erritualek “garen” horren bizimoldeak finkatzen dituzte, markatu eta identifikatu egiten den arrotzaren aurrean.

Zentzu honetan, esanahi berri horien adibiderik argiena 70eko hamarkadan testuari erantsi zizkieten kopla laikoena⁶⁶ izango litzateke. Erritua erabilia izan zen adierazpen politikorako leku bat bezala. Ordura arte, frankismoaren debekuaren ondorioz, baimendutako espresio publikoaren bidetik at gelditu ziren adierazpen politikoak, hain zuzen.

Kutsu politiko argia duten kopla horiek, ematen zaion esanahi berriaren arrastoa erakusten digute eta, agian paradoxikoki, jende gehien joaten den garaian berpizketa-beharra bizirik jarraitzearena ulertzen lagunduko digute

64. Fernández de Larinoa (1991); Martínez Montoya (2002).

65. Erdaraz abesten den kopla 16.a da, eta aintzinan herrigunean zegoen Guardia Zibilaren koartelaren aurrean abesten zen (Uribitarte kalean). Gero, Astra armen lantegian zegoen garitaren aurrean ere abesten zen, eta, Ertzaintzaren koartelaren aurrean ere bai.

66. Kopla hauek ikusteko begiratu aurreko puntuan.

ere. Gainera, azken finean, hausnarketa hau Elai-Alai taldearen “Gure ohituak suspertuz” kanpainaren helburu diren ohituren berreskuraketa-edota berpizketa-prozesuei luza diezaiokegu: Marijesiak, Erregeak datoz, Kandelerio, Agate Deuna, Eguen Zuri, edota Erregelak eta Uriko aureskua, etab. Marijesien tradizioak beste ohituren aurrean berezko berezitasunak eduki arren.

7. ESPAZIOA IBILIZ ETA ERABILIZ

El lugar antropológico, es al mismo tiempo principio de sentido
para aquellos que lo habitan y principio de inteligibilidad
para aquel que observa.
(M. Augé, 2002: 58)

7.1. Erritualizatutako tokian tokiko espazioak. Lekuak

Azaltzeko gelditzen zitzaidan hirugarren galdera zera zen: nola hedatzen diren gainontzeko komunitateari, errituari erantsitako esanahi berri horiek. Horretarako, uste dut espazioaren erritualizazioaren azterketa batek arazo hau ulertzeko argitasun apur bat ekar lezakeela.

Komunitate askok, beraien identitateak definitzeko garaian, lurraldearekin duten lokarrien arabera egiten dute. Hau da Euskal Herriaren kasua, non lurraldearekiko atxikimenduek garrantzi handia duten zentzu honetan. Iraganean, bitzta soziala egituratzeko erabiltzen ziren espazioak berriz aktibatzen dira esanguratsuki erritu tradizional horietan, identitate kontzientzia sortzeko ahalmena duten leku bilakatuz.

“Leku” kontzeptua, kulturalki antzemandako eta eraikitako kategoria bat bezala ulertzen da. Leku horretan, komunitate batek bere inguruari zentzua emateko, ekimen sozialak eta kosmologikoak txertatzen ditu. M. Augén iritziz, espazio bat leku bat bezala ulertuta izateak, bertako biztanleei ematen dien zentzuan datza. Beraz, bere aspektu identifikatorioen, errelazionalen eta historikoen arabera definitzen da, “ez leku”etatik ezberdinduz, non gizakiak ez duen bere indibidualitatea gainditzeko lokarririk (M. Augé, 2002: 58).

Ibilitako eta erritualizatutako espazioari ordenamendu bat ematen zaio, europar nekazal gizarteetan ordena kosmologiko biribila irudikatzea bilatzen zuen ordenamendua hain zuzen ere, eta, aldi berean, sozial mailan, auzotarren arteko eskubide eta betebeharren elkarrikotasun kateen bitartez irudikatzen zen ordenamendua⁶⁷. Hortik dator literatura antropologikoan, horrelako gizarteak izendatzeko “komunitate holistiko”en kontzeptua, zeren eta dena egituratuta

67. *Renque*, aldizkatzia, üngüru, eta horrelako kontzeptuen gainean ikusi S. Ott (1981) edo J. Martínez Montoya-ren lanak (1996).

zegoen logika amankomuna jarraituz, nahiz eta logika hau, Augék berak aipatzen duen moduan, antropologoaren “osotasuneko tentazioa”ren emaitza izan (M. Augé, 2002: 54).

La idea de círculo es típica de las sociedades campesinas. La vida social y cultural así como la cósmica y productiva se basan en el principio de circularidad. La cadena de obligaciones y deberes de la vida social se hace cognición, se ritualiza y se mitologiza dando lugar a lo que se conoce como renque, *aldizkatzi*, adra, vecera, etc. (J. Martínez Montoya, 2002: 104).

Espazioa eta denbora erritualki antolatzen dira bertan elkar daitezen iragana eta gaurkotasuna, bizirik daudenek eta hildakoek. Baina gaur egun bizitzen, erabiltzen eta ibiltzen dituztenak aktibatutako eta birlaboratutako memoriako espazio hauek, tradizioaren berrulertze berria faboratzen duten esanahi berriak hartzen dituzte. Hau izaten da berreskuratutako edo berpiztutako ohitura eta erritu hauetako askotan erabiltzen den eredua.

7.2. Espazioak ibiliz eta erabiliz

Gaueko erronda hauetan egiten dituzten ibilbideek Gernika osoa hartzen dute. Egítez, abeslariak badute herriko azken txokoetara heltzeko interes berezia. Horrela, herriaren hazkundera egokitu dituzte ibilbideak, beraz erdialdeko txangoari egunero eta txandaka, herriko hiru norabideetan hazi diren auzoetatik beste bat eransten zaio: Erretereria, Lurgorri eta Landaberde-Los Tilos. Bisitaldien frekuentzia auzoen tamainaren arabera egiten da proportzionalki; horrela, batek besteak baino handiagoa denez, lau bisita izaten ditu eta, txikienak, aldiz, bi baino ez.

Beraz, bederatzi gauetatik 1.a, 4.a, 6.a, eta 9.a, lehen aipatutako hiru auzoetatik batera joaten dira; 2.a, 5.a, eta 8.a, bigarren auzo batera, eta 3. eta 7. gauak hirugarren auzora. Auzoak bisitatzen diren ordena aldakorra izaten da, baina honela laburbildu liteke:

- Lurgorri (Hegoaldeko norabidean): abenduaren 16, 18, 21 eta 24ko gauak
- Erretereria (Ekialdeko norabidean): abenduaren 17, 20 eta 23ko gauak
- Landaberde-Los Tilos (Iparraldeko norabidean): ... abenduaren 19 eta 22ko gauak

Gernika osora iristeko interesa ez da soilik abeslariena, baizik eta auzo horietako bizilagunena ere. Berriemaile batek esaten zidan moduan, Marijesiek sarritan telefonoz jasotzen zituzten auzotar horien deiak euren etxeen azpitik pasatzeko eskatuz, eta, horrela, kantuak entzun ahal izateko neguko gau hotzetan. Bestalde, interes hau bada Gernikaren irudikazio baten funtzionamenduaren indikadorea, osotasun itxi eta mugatu bat osatzen duen espazio komunitario bat bezala. Bizi eta ibili egiten duen komunitate horren metafora espaziala den lurraldetasun unitate bat bezala, hain zuzen.

Nolabait, espazio horretan egiten diren geldialdiak, keinuak eta jarrerak, komunitatearen egiturari buruz, errituak esanahiak transmititzeko erabiltzen dituen funtsezko sinboloak bilakatzen dira. Zentzu honetan, egiten duten

ibilbidea geosinbolo⁶⁸ bat da. Hots, gernikarren iritzian, identitate komunitarioa elikatzen duen dimentsio sinbolika duen ibilbide bat, hain zuzen. Ondorioz, horrela ibilitako espazioa, komunitatearen sinbolo metonimikoa bilakatzen da.

7.2.1. Elizen arteko ibileraren sekuentzia estrukturala; elizaurrea eta esparru publikoa; herriko elizaren espazioa

Sekuentzia estrukturalaren kontzeptua, ekintzaren garapenean agertzen diren sekuentziak izendatzeko erabiliko dut, P. Jimeno Salvatierrak (2002: 72) proposatzen duen *sintagma erritualaren* zentzuan, hain zuzen. Hauek baitira errituaren egitura osatzen duten oinarritzko elementuak.

Ibilbide hauetan, gauero bizpahiru aldiz errepikatzen den sekuentzia erritual bat ikus dezakegu. Hau, elizaurrean egiten den belaunikazio batekin hasten da, komunitatearen baloreei eta tradizioei umilazioa eta sumisioa adierazten duen keinu batekin. Horren ondoren, ibilbidea hasten da, eta jarraituko du herriko hurrengo eliza aurkitu arte, non keinua eta agurraren kopia errepikatu egingo diren.

Aurrerago aipatuko dudanez, espazio horien arteko ibilbidean, taldeak belaunikazio keinu hau egiten ez den beste hainbat leku ezberdinetan gelditzen da. Beraz, oinarritzko sekuentzia errituala elizen artean izango litzateke, edo hobe esanda, elizaurretik elizaurrera, komunitateari, tradizioari eta arau moralei loturiko espazio horien nolabaiteko jabetzea adierazi nahian. Iraganean elizaurreko espazioa, auto-erregulazio politikoaren espazioa zen, hau da, publikoaren espazioa eta, beraz, maskulinoa. T. del Valle horrela azaltzen du:

Me parece importante esta diferenciación entre iglesia y atrio, entendiéndose por la primera el recinto cerrado. Aquí se da un contraste entre recinto cerrado, sagrado asociado a las mujeres, y el atrio, espacio abierto, político, propio de los hombres. Ha sido en los atrios donde tradicionalmente se realizaban reuniones en las que se trataban y decidían asuntos relativos a la comunidad. En estas reuniones sociales estaban solamente presentes los hombres. (T. del Valle, 1996: 20).

Marijesiak azken eguneko errondan baino ez dira elizan sartzen (24an goizeko 7etan), eta, orduan, barruan hasten dira abesten. Aspaldian meza honetara sartzen zirenean, aurrean izaten diren “lutu-bankuek” izeneko lekuetan esertzen omen ziren.

Beraz, erritu honetan, elizaren espazioak ainguraketa deitiko bat legeztuntzian du, ordena zentralizatu bat emanez, orientazio erritual eskatuz eta orientazioko eremu bat kontrolatuz. Sakralizatu eta erritualizatu egiten den elizen espazio hori, bizirik daudenak (jaia) eta hildakoak (hileta) osatzen

68. J. Bonnemaison-ek horrela azaltzen du geosinboloaren kontzeptua: “un lugar, un itinerario, una extensión o un accidente geográfico que por razones políticas, religiosas y culturales reviste a los ojos de ciertos pueblos o grupos sociales una dimensión simbólica que alimenta y conforma su identidad”(1981: 256).

duten komunitatearen batasunaren sinboloa da. J. Arpal-ek (1979: 74) dioskun legez, euskal gizarte tradizionalan eta konkretuki elizateetan, batez ere, Hiriko Hermandadiak elizak bereganatu zituztenetik erregimen zaharreko azken egunetan, elizaren espazioa topagunea dugu, amankomuneko bizitzaren ordenurako gunea eta komunitatearen egitura sozialaren sinboloa. XVI. mendetik aurrera, lehengo prozesu horren parean, iraultza sozial garrantzitsu bat ere gertatzen da. Orduan, bizitza soziala arautzeko lurraldetasunera jotzen dute, ordura arte erabilitako solidaritate agnatikoaren (leinuen) ordezt. Arbasoak lurraldetasun bitartez definitzen ziren eta lokarria ez da ahaidetasuna izango, baizik eta lurraldetasuna⁶⁹.

Garai honetan ere, Elizak antzerki horietarako ezarri zuen araudia zela eta, antzerkietan eta Auto Sakramentaletan apaizteriarren parte hartzeak debekatu zituen, horien kudeaketa eta antolaketa hiriko hermandadien eskuetan utziz. Aldi berean, ekintzak eliz barruan egitea ere debekatu eta eliz aurrera ateratzen ziren, antzerkizunaren testuinguru espazialaren lehenengo aldaketa emanez⁷⁰.

7.2.2. Geldialdiak. Etxeen azpian. Mahaikidetzaren geldialdiak

7.2.2.1. Etxeen azpian

Elizen artean garatzen den sekuentzia, beraz, geldialdi batzuk egiten dira. Horien artean bereiztuko nituzke, alde batetik, aurrerago aztertuko ditudan mahaikidetzakoak, eta bestetik, etxeen azpian egiten direnak.

Azken hauek abeslari ohien etxeen azpian egiten dira, edota errituarekin nolabaiteko loturaren bat duten etxeetan. Nahiz eta arestian aipatu dudan legez erronda gaueko 4ak eta 5:30en artean izan, hauek leihotara irteten dira, batzuetan dotore jantzirik eta jarrera ereduakoa eta solemnean; beste batzuetan beraiei senitartekoei. Balkoiko barandan eutsirik eskainitako kopia entzuten dute. Orokorrean, abeslari ohi bakoitzak kopia bat izaten du gogoko eta abesten dituenak badaki zein den. Kopia amaituta, agurtu egiten dute abian jartzen den taldea.

Eskaintza bat legez interpretagarri den keinu honek, hau da, gaurko abeslariak beraiei aurrekoei egindako errekonozimendu bat izango litzatekeen keinua, badu, nire ustez, kontrako norabidean beste interpretazio bat, erritualaren gaurko aktoreei legitimitatea ematen dieten onespene eta autoritate ordezkariaren keinu bat bezala. Horrela, errituak eragin sinboliko eta performatiboa hartzen du (P. Bourdieu, 1985: 73). Hemen tradizioa, indar legitimitzaile eta konsagratzaile moduan aritzen da. Tradizioaren ordezkari diren aspaldiko abeslari horien

69. Ikusi J. Aranzadi (1981: 337).

70. Zentzu honetan sakontzeko ikusi: Icobalceta (1994); Arana Martija (1979); Camacho (2004); Foster (1985).

etxeen azpian geldituz, parte hartzen dutenek identitatea ematen duen denbora estrukturaletik at dagoen *communitas*⁷¹ bat eraikitzen dute, iraganarekin lotuta.

Ibilbidearen sekuentzia honetan badira beste geldialdi esanguratsu batzuk. Aipatzekotan, Andra Mari eta Barrenkale kaleen bidegurutzean egiten dena. Bertan, gerra aurretik Marijesien bakarlari ospetsua izan zen Daniel Ibarzabal Sunsunaga, “Estebanillo” hila gertatu zen herriaren bonbardaketan, eta, leku honetan, taldeak gelditu eta haren omenez kopla bat abesten du. Estebanillo hil eta gero, hildako berri bat izandako etxeen azpian egiten ziren geldialdietan Lekeitioko Marijesiek egiten zuten otoitzeko ohitura hartu zen. Ohitura honen erabilera 60ko hamarkadan utzi omen zen (F. J. Icobalceta, 1994: 55). Horietako beste geldialdi bat, gaztetan hil zen J. Aldecoceta Marijes ohiaren etxean egiten dena. Oso gazte izanik bere aitarekin hasi zen azken eguneko errondara joaten. Aitarekin joatearen ohitura honek badu konnotazio inizatikoa, eta ikuspuntu honetatik lantzen du F. J. Icobalcetak (1994).

G. Bengoa bizi izan zen etxearen azpian, norbaitek bere ezizena oihukatzen du “Karrak!” haren ohituraren oroimenez, abeslariak bero zitezen botilak uzten baitzituen eta. Gainera, ibilbide osoan Gernikako bizilagunek leihoetara irtenez edota argiak piztuz eta itzaliz, abeslariarekin sortzen den sekuentzia komunikazionala betetzen dute. Horrela, auzotarrek abeslariengan delegaturiko autoritatea aintzat hartzen eta onesten dute.

7.2.2.2. Mahaikidetzaren geldialdiak

Honela izendatu ditut, abenduko gau hotz hauetan barneak berotzeko kafea eta likoreak taldean banatzeko egiten diren horiek. Batzuetan elizaurrean egiten diren geldialdiak aprobetxatzen dira horretarako, hurrengo eliza arte egingo duten sekuentzia hasi baino lehen. Ildo honi jarraituz, Europan egindako nekazal antropologiako ikerketek, jai guztietan garatzen den eskema tradizional bat dagoela azpimarratzen dute. S. Tax Freeman-ek (1968) izendutako *mass-feast-meeting* edo ospakizun-jaigiro-mahaikidetza konplexuetan datzan eskema, hain zuzen, non mahaikidetzak eragin integratzaile bat izaten duen. Jakiak eta edariak konpartitzeak lokarri komunitarioak eraikitzen ditu (Homobono, 1986-87).

Bestalde, beste leku batzuetan ere gelditzen dira, bertan aurkitzen baitira kontsumitzen dituzten edariak (kafe termoak eta patxarra). Herriko okindegi bateko labeetara (Labakoa) ere sartzen dira kopla bat abestera eta trukean gosaltzeko ogiak hartuz. Errondetan gertatzen den horrelako beste episodio bat, azken eguneko hirugarren erronda hasi baino lehen, kalean egiten duten “Tortimortxi-Txokolatada” (odolosteko tortillak eta txokolatez osatutako gosaria) dugu, bertan parte hartzeko gonbitea herri osoari luzatzen baitzaio.

71. *Communitas* kontzeptua 1. puntuan azaltzen da. V. Turner (1988).

Mahaikidetzako izenpean batu izan ditudan geldialdi guzti hauek, sekuentzia estruktural tinko eta zurrunean txertatzen diren araugabeko jokaera askeko uneak dira (ez da horrela gertatzen Marijes ohien etxeen azpian egiten direnekin), baina denboraren poderioz, nolabait, estereotipaturik bukatu dira.

7.3. Gelditu, espazioa mugatu, ausenteak gogora ekarri

Curiosamente, una serie de rupturas y de discontinuidades en el espacio es lo que representa la continuidad temporal.
(M. Augé, 2002: 66)

Denborarekin erritualizatuz joan diren geldialdi hauen, eta itxuraz bakar-lariek espontaneoki egiten dituztenen bitartez, leku esanguratsuak markatzen dira espazioan igarotzen diren beste lekuetatik bereiztuz.

Ohituraren eta lokarri komunitarioen transmisioaren garrantzia adierazten dituzten markak dira, eta identitatea eraikitzeke erabiliko diren tradizioa eta baloreak irudikatzen dituztenak ekartzen dizkigute gogora, baina baita ausente daudenak ere. Markazio hauen bitartez, ausente dauden horiek erritualaren martxara, azken finean komunitatera, eransten dira. T. del Vallek “presencia de la ausencia” (1988: 234) esaten dio honi, Korrikan Santi Brouarden etxearen azpian egiten diren geldialdiak adibidetzat jarritz.

Beraz, konpartitzen den espazioa sinbolikoki baieztatzen da, nolabait sakralizatuz ausenteen eta lurraldearen etengabeko oroipenaren bidez, eta existentziari eta komunitateari konfiantza eta zentzua eraginez. Eta hau ikusgai dugu errituaren sekuentzia estruktural deitu izan dudana horretan. Ibilbidea, espazioaren markazio sinboliko eta mugimendu honi esleia daitekeen okupazio eta inklusio esanahiak, erritu honen ezaugarrietariko batzuk dira. Marijesiek espazioa erritualizatu, markatu, mugatu, itxi eta bereiztu egiten dute, eguneroko espazioaren ordeztu, espazio liminal bat eraikituz.

En korrika tenemos esta misma característica de cerrar, rodear, encerrar un recorrido estableciendo así sus límites y reclamándolo, aislándolo, creando a través de ello un espacio liminar en el que el tiempo ordinario desaparece, las actividades diarias se transforman y en donde a la acción de encerrar se la dota de un simbolismo actualizado. Se trasciende la realidad que se encierra. Es a mi entender un ejemplo de la acción de cerrar (ertsí) de la que habla Zulaika. (T. del Valle, 1988: 186).

J. Zulaikak (1987: 27-28), euskal kulturaren muga kontzeptualaren ideia azaltzeko, “ertsí” kontzeptua proposatzen du, zabalaren eta itxiaren arteko ezberdintasun kategorikoa jartzen baitu. Ertsi-z, mugatutako espazio batek inklusio harremana jartzen du. Gaindituko den espazio estetiko baten formakuntzarako, espazio hori itxia edo mugatzea da lehenengo baldintza.

Bestalde, Marijesiek egiten duten ibilbidearen norabideak, gizarte tradizio-naletan erromeri errituaiek izaten zuten era jarraitzen du, hau da, erloju-orratzen

norabidearen kontra egiten da⁷². Lurraldea, biribiltasunaren logika ezaugarritzat duen logika kosmologiko bat irudikatuz erritualizatzen da, baita ordenamendu kosmologikoa irudikatzen duen ordenamendu sinbolikoa inskribatuz ere.

Ibilerek, erromeriek, prozesioek bizitzaren espazioa markatzen dute eta dimentsio ezberdin bat ematen diote. Lurralde horretan ospatzen diren jai ekintzek, sozial eta erlijiosoek, iraupena islatzen dute. Mugatutako eta sakralizatutako espazio hura komunitatearen izaeraren eta tokian tokiko identitatearen sinbolo bihurtzen da (Martínez Montoya, 2002).

Beraz, identifikatu egiten du. Eta hau, erritualizazio horietan egiten diren lurraldeko mugaketen bitartez lortzen du. Espazio-lekuek, ezaugarritzat dituzten harreman seinaleek komunikazioa inplikatzeko dute, eta, zentzu honetan, erritualizatutako espazioak, komunikaziorako espazioak ere badira. Baina ekintza errituala ez da soilik komunikazio ekintza bat, baizik eta, gainera, ekintza performatiboa ere bada, non botere sinbolikoen harremanak trukatzeko diren.

Así, el acto de institución es un acto de comunicación, pero de un tipo particular: significa a alguien su identidad, pero a la vez en el sentido de que la expresa y la impone expresándola frente a todos (*kategoresthai*, es decir, acusar públicamente) notificándole así con autoridad lo que él es y lo que él tiene que ser. (P. Bourdieu, 1985: 81).

Azken finean, jaiak, ohiturak, errituak, antzinako bizitza tradizional komunitarioaren aldaketen, erritmoen eta denboren markatzaileak, gaur egun identitateak eta komunitateak eraikitzeke tresna erabilgarriak legeazaltzen zaizkigu.

Globalizazioaren homogeneotasunaren aurrean bereizgarritasuna bilatzen da, eta lokala sozial komunitarioa birsortzen den habia bat legeaz aurkezten zaigu. Bilatzen da tokian tokitik komunitariora joatea egiteak ematen duen legitimazioaren bidez. Zentzu honetan, bertan parte hartzeak, iraganeko bizimoduaren dimentsio komunitarioa berreskuratzea suposatzen du, biribila, integratzailea, harreman sozio-espazialen eredutzat harturik.

Tradicionalizar parece que es una necesidad universal. Nuestro mundo actual puede parecer cada vez mas un mundo de tecnología y mezcla de culturas, en el que lo tradicional ocupa cada vez menos espacio. El sentimiento de dicho mundo afecta sin duda los esfuerzos hacia el pluralismo, hacia el mantenimiento de la identidad⁷³.

Horrela, tokiak iraganean izandako komunitate tradizionala ordezkatzeko du, bizitza sozialaren habia baita. Eta aldi berean fluxu globalak eta tokiarekiko interesa elkartzen dituzten komunitate translokal berriak bertradizionalizatzeko duten moduan, bilakatuko da.

72. Martínez Montoya (2002: 16).

73. D. Hymes; Sanchez Carretero, C. eta Noyes, D. (Eds.)-en (2000: 68).

8. EMAITZA MODURA. ERRITUALAREN ESTETIKA, *ETHOS*-AREN PERFORMANTZA

Orain arte ikusi duguna kontuan harturik, azken hamarkadetan errituak jaso izan dituen aldaketen mapa bat margotu dezakegu laburpen gisa. 70eko (XX. m.) hamarkadatik aurrera, trantsizio politikoarekin sekularizazio garrantzitsu bat gertatzen da. Partaidetza nabarmen igotzen da eta parte hartzeko motibazioak ere ezberdinak dira. Tradizioari eusteko interesarekin lotuta beste motibazio batzuk agertzen dira, banatzen zen diruarena alde batera utziz. Eta barnean erabiltzen zen solidaritate nozioa, taldetik at erabiltzen hasten da; horrela, adibidez, bildutako dirua taldearen dinamikatik at dauden beste helburuetarako bideratzen da.

Gainera, emakumea poliki-poliki parte hartuz doa, eta prozesu hau nola edo hala normalizatuz doa. Baina nik ez nuke bukatutzat emango, orain arte ez baitugu ikusi bakarlariren leku pribilegiatuetan, esate baterako.

Administrazioarekin duten harremanetan gero eta dependentzia handiagoa sortuz joan da, batez ere, udalarekin. Honek, taldeak urtero erritua egiteko aurkezten duen eskaerari baimen sinbolikoa emateaz gain, diru kopuru bat ere ematen du bederatziurren osteko afaria ordaintzeko. Gastu hau nolabait zurtzeko, udalak taldeari identifikazio fiskalaren zenbakia eskatu zion, eta horren ondorioz sortu zen Marijesien Lagunen Elkartea. Eskaera honek konfliktu txiki bat eragin zuen taldearen barnean, sektore batek errituak duen kapital sinbolikoaren pilatzeko saiakera bat bezala bizi izan baitzuen.

Arestian irakurritako elkarriketan islatzen zen ikusezin soziala eta gutxiengo sentimenduaren aldean, urtero-urtero hedabideen presentzia gehituz doa eta ikuspen gehiago ematen dio. Erritua, gauekoa izanda, eta egoera klimatologikoak direla eta, espektakulutik edo turisten begiradatik urrun mantendu da, baina mass-mediaren bitartez parte hartzeko espazio berrietara zabaltzen ari da. Nik neuk entzun ahal izan ditut iratiaren bitartez, etxearen azpitik pasatu baino pare bat minutu lehenago.

Esanahi berria ere eman zaio. Errituan parte hartzeak, lurraldeari egokitasun sentimendua dramatizatzen du, konpromiso politiko, kultural eta identitarioaren neurrian. Marijes izatea, gernikar izatea bezala ulertzen baitute errituan parte hartzen duten aktoreek, eta identitate kontzientzia hori entzulearengana zabaltzan da, hau da, Gabon aurreko gauetan abeslariaren etorrera itxaroten dugun guztiongana. Taldeko bakarlari batek dioen bezala, Marijesiak ez dira soilik gauez abesten dutenak, baizik eta entzuten dutenak ere bai. Barneratze ideia sortzen duen “Gu” bezalako plural maiestatikoaren erabilerak, partaideen komunitatea eraikitzen du.

Ikusi dugunaren antzeko erritualen eraginkortasun performatiboa, identitatearen kontzientzi bereizgarriaren sormenean zehazten da. Zentzu honetan, Bourdieu-ren arabera, efektu nabarmenena oharkabe igarotzen da “...*el rito consagra la diferencia, la instituye...*” (P. Bourdieu, 1982: 79). Ekintza erritualaren gainean eraikitako esanahi hauek, edo partehartzaileek

esleitutakoak, kontingenteak dira eta, beraz, dauden testuinguru kultural, historiko, politiko eta ekonomikotik ulergarriak. Batez ere, testuinguru horren eraikuntzan eta legitimazioan ekarpen nabarmena egiten dutelako.

Bestalde, bederatziturren osteko kaleko elkarrizketetan sarritan agertzen den gaia zera izaten da: bakarlari honek edo besteak ez duela ondo abesten, ez duela “behar den moduen” entonatzeko. Honek islatzen du, auzotarrek koplen itxuragatik duten ardura, eta adierazten du ontzat ematen den abesteko era bat dagoela eta nolabaiteko zaintza soziala dagoela auzotarren partetik. Era berean, emakumeen partehartzeak eragin zuen abesteko tonuaren aldaketa, eztabaidatzeko aitzakia izan da, bai kalean, bai Gabon mahaian. 70eko eta 80ko hamarkadetan, hiriaren hazkunderaren ondorioz ibilbideetan izan ziren aldaketek, auzotarren kexak eragin zituzten, abeslariak ez baitziren haien etxean azpitik pasatzen egunero.

Beraz, alde batetik, denborak (bederatziturrena), ordutegia (4etatik 5:30etara), espazioak (ibilbideak, geldialdiak), taldearen jarrera (bakarlaria aurreratuta), keinuak (belaunikazioa), kantua (koplak, doinuak, melodiak) eta abar, gordetzeko ardura dago. Beraz, badago kreatibitatea eta aldaketa nekez onartzen duen itxura arkaikoa, tinkoa, eta hunkigarria gordetzeko interesa. Baina bestalde, ukiezina den tradizioa ez da hainbeste grabaketa, deskribapen eta interpretazioaren bitartez gordetzeko egin behar den lana, baizik eta ondoko gizaki eta belaunaldiak, performantza indibidual eta kolektiboetan egindako birkreazioak eta, zentzu honetan, preserbatzeko ahaleginak, birsortzeko ahaleginak ere badira⁷⁴.

Ikuspuntu honetatik, errituala eraginkorra da, zeren eta espresiboa, adierazkorra eta sinbolikoa izateaz gain, egin eta birsortu egiten baitu, eta azken finean eraiki. Partaideek, haien keinuekin parte hartzen dute, hau da, belaunikatuz (onartu, umiliatu, aintzat hartu), altxatuz, ibiliz, abestuz, errezitatuz. Gorputzaren jarrerak ahalmen performatiboa dute, ezarrerek, azturak, ohiturak Bourdiek esango lukeen moduan. Lengoia honek ematen dizkigu transmititzen diren esanahi eraginkorrak. Tambiah-ek ekintza erritualen ezaugarriak definitu zituen, eta erritu honek guztiak betetzen ditu: formalitatea, estereotipia, kondentsazioa eta erredundantzia, eta, aldi berean, baita baldintza estruktural-formalak eta autoritate ordezkapen eta legitimazioaren baldintza sozialak ere.

Horretarako, keinuak, hitzak behar den moduan esanda egon behar dira, baina egoera sozial zehatz batetik mintzatzen den norbaitek esan behar ditu, autoritatea ordezkatzeko duen norbaitek. Beraz, eraginkortasuna hitzetik at dago, eta erritu honen antzeko kasuetan tradizioaren indarrarengatik datorkio. Errituaren sinbolismoak ez du berez eragiten, baizik eta ordezkatzeko duen hori irudikatu egiten duen neurrian.

Hau da, erritua egiterakoan komunitateak zuzenak diren era batzuk antzematen ditu eta beste batzuk aldez ez hain zuzenak. Esan dezakegu

74. Hymes, D.; Sanchez Carretero, C. eta Noyes, D. edk-en (2000: 71).

ebaluazio bat egiten dela balore estetiko batzuekiko atxikimenduen arabera. Beraz, badago estetika desiratu bat. Baina balore estetiko hauek haratago doaz, kultura baten *ethos*-aren zati bat baitira eta munduaren ideia konkretu bat isladatzen dute. Egileek eta ikusleek, ekintzari buruz, esanahi sare berea erabiltzen dute.

Ikerlaria, errituak ospatzen duen *ethos* hori ulertzen saiatzen da, bertan erabiltzen diren esanahiak interpretatuz. Hau da, esanahi batzuen atzean ezkututzen diren balore eta idealak ulertuz, eta baita esanahi horiek, transmititzen den mezu kulturala osatu arte nola antolatzen diren ulertuz ere, estetika munduaren ikuskeraren espresio bat bezala ulertuz, molde edo karakter kultural batean zehazten den mundu ikuskera, alegia.

En la discusión antropológica reciente, los aspectos morales (y estéticos) de una determinada cultura, los elementos de evaluación, han sido generalmente resumidos bajo el término *ethos*,... El *ethos* de un pueblo es el tono, el carácter y la calidad de su vida, su estilo moral y estético, la disposición de su ánimo; se trata de la actitud subyacente que un pueblo tiene ante sí mismo y ante el mundo que la vida refleja. (Geertz, 2003: 118).

Geertz-en arabera, Marijesiak testu bat izango litzateke, non gernikarrek, beraiei buruz hitz egiten diguten. Errituaren estetika, komunitatearen *ethos*ari buruz mintzo da, hau da, desiragarriak diren baloreei buruz (erresistentzia, konpromisoa), jokaera desiragarriari buruzko ikasbide metaforikoak diren keinu eta jarreraren bitartez. Azken finean, bere buruaz duen ideiaz mintzo zaigu, estetika eta estilo konkretu baten zehazten den ideiaz.

9. BIBLIOGRAFIA

- ARANA MARTIJA, José Antonio. *Elai-Alai: Euskal Herriko lehenengo koreografi taldea*. Gernika Kultur Elkarte, 1977.
- . “Marijesiak”. In: *Dantzariak* 8. Bilbo: Euskal Dantzarien Biltzarra, 1979; 31-38 or.
- . *Canciones de Navidad*. Colección Temas Vizcaínos. VII. urtea, 84 zkia.; Serie Azul. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1981.
- . “Marijesiak”. In: *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca*, 1, 48. liburukia (2. aldia), 2003, Bilbo: Euskaltzaindia. Herri literatura, 2004; 69-109 or.
- ARANZADI, Juan. *El milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo*. Madrid: Taurus, 2000.
- AREJITA, Adolfo. “1801.eko Gernikako Gabon-kanta bat”. In: *Litterae Vaconicae: Euskeraren iker atalak*, 6 zkia. Bilbo: Labayru Ikastegia y Bilbao Bizkaia Kutxa, 1993; 9-35 or.
- ARPAL, Jesús. *La sociedad tradicional en el País Vasco*. Donostia: Itxaropena, 1979.
- ARTONI, Ambrogio. “El juego de la tradición, o la refuncionalización de la fiesta campesina de tradición oral en la modernidad tardía”. In: *Antropología*, 11 zkia. Madrid: Grupo Antropología, 1996; 121-134 or.

- AUGÉ, Marc. *Los no lugares: Espacios del anonimato. Una antropología de la modernidad*. Barcelona: Gedisa, 2002. Jatorrizkoa: *Non-lieux. Introduction á une anthropologie de la surmodernité*. Paris: Edition de Seuil, 1992.
- AUSTIN, John Langshaw. *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona: Paidós, 1981. Jatorrizkoa: *How to do things with words: the William James lectures delivered at Harvard University in 1955*. Cambridge, Massachusetts [etab.]: Harvard University, 1975.
- AZKUE, Resurrección M^a de. "Eguberri kantak". In: *Semanario Euskalzale*. Lotazillaren 22an. 1898; 400-408 or.
- . "Canciones de ronda". In: *Cancionero Popular Vasco*, Tomo II. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990 [1925]; 1067-1125 or.
- BARANDIARAN, José Miguel de. "Fiestas Populares". In: *Anuario de Eusko Folklore*. Bilbo: Sociedad de Estudios Vascos, 1922; 81-93 or.
- BATESON, Gregory. *Pasos hacia una ecología de la mente*. Buenos Aires: Grupo Editorial Planeta-Carlos Lohle, 1991. Jatorrizkoa: *Steps to an ecology of mind*. New York: Chandler Publishing Company, 1972.
- BAUMAN, Richard. *Verbal art as performance*. Illinois: Prospect Heights Waveland Press Inc., 1977.
- BERGER, Peter L.; HUNTINGTON, Samuel P. (komp.). *Globalizaciones múltiples. La diversidad cultural en el mundo contemporáneo*. Barcelona: Paidós, 2002.
- BOISSEVAIN, Jeremy (ed.). *Revitalizing European Rituals*. London: Routledge, 1982.
- BONNEMAISON, Joachim. "Voyage autour du territoire". In: *L'espace Géographique*, 4 zkia. 1981; 249-262 or.
- BOURDIEU, Pierre. "Los ritos de institución". In: *Actas de la investigación en Ciencias Sociales*, 43 zkia, ekaina, 1982; 111-123 or.
- BOYER, Pascal. *Tradition as truth and communication*. Cambridge University Press, 1990.
- BROMBERGER, Ch.; CENTLIVES, P.; COLLOMB, G. "Entre le local et le global: les figures de l'identité". In: SEGALIN, M. (ed.). *L'autre et le semblable*. Paris: Presses du CNRS, 1989; 137-145 or.
- BULLEN, Margaret. "Las mujeres y los Alardes de Hondarribia e Irún". In: *Bitarte* 5 urtea, 11 zkia, Apirila. Donostia, 1997.
- CAMACHO MERCADO, Eduardo. *Pasar la palabra. Las Pastorelas de Ayotitlán*. Jalisco: Universidad de Guadalajara, Lagos de Moreno, 2004.
- CARO BAROJA, Julio. *El estío festivo*. Madrid: Taurus, 1984.
- CASTELLS, Manuel. *La Era de la Información. Vol. II: El poder de la identidad*. Madrid: Alianza Editorial, 2002.
- CÁTEDRA TOMÁS, María; BRANDES, Stanley (ed.). *Los españoles vistos por los antropólogos*. Madrid: Júcar Universidad, 1991.
- CHOMSKY, Noam. *El lenguaje y la mente humana*. Barcelona: Ariel, 2002 [1968].
- CLIFFORD, James; MARCUS, George E. *Retóricas de la Antropología*. Madrid: Júcar, 1991. Jatorrizkoa: *Writing culture: The poetics and the politics of Ethnography*. Berkeley: University of California Press, 1986.

- COHEN, Abner. *Two dimensional man: An essay on the Anthropology of power and symbolism in complex society*. University of Carolina Press, 1974.
- CONNERTON, Paul. *How societies remember*. Cambridge: Cambridge University Press, 1989.
- DA MATTA, Roberto. *Carnival rouges and heroes*. Indiana: University of Notre Dame Press, 1979/1991.
- DÍAZ G.-VIANA, Luis. *Los guardianes de la tradición: Ensayos sobre la "invención" de la cultura popular*. Oiartzun: Sendoa, 1999.
- DOUGLAS, Mary. *Pureza y peligro: Un análisis de los conceptos de contaminación y tabú*. Madrid: Siglo XXI, 1973. Jatorrizkoa: *Purity and danger: An Analysis of Concepts of Pollution and Taboo*. London: Routledge and Kegan Paul, 1966.
- . *Símbolos Naturales. Exploraciones en la cosmología*. Madrid: Alianza Editorial, 1988.
- DOUGLASS, William A. *Muerte en Murélagá*. Barcelona: Barral, 1973. Jatorrizkoa: *Death in Murelaga*. Seattle: University of Washington Press, 1969.
- ELÍADE, Mircea. *Lo sagrado y lo profano*. Barcelona: Paidós, 1999. Jatorrizkoa: *Das Heilige und das Profane. Von Wesen des Religiösen*. Hamburg: Roswohlt TaschenbuchVerlag GmbH, 1957.
- FELIÚ CORCUERA, Alfredo. "Marijeses de Gernika". In: *Enciclopedia Gure Herria*, IV. Donostia: Kriselu, 1984; 231-238 or..
- FERNÁNDEZ DE LARRINO, Kepa. *Hitzak, Denbora, Espazioa*. Donostia: Elkar, 1991.
- . "Jendarte hirigodunak eta erritokizunaren ikerketa. Jaigiroko jokaera sozio-kulturalen ikerketez ohar teoriko batzu". In: *Kobie*, serie Antropología Cultural. VI zkia. Bilbo: Diputación Foral de Bizkaia, 1992.
- . *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Pirinioetako haran batean*. Cuadernos de Sección: Antropología-Etnografía, 9 zkia. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993.
- . *Mujer, ritual y fiesta: Género, antropología y teatro de carnaval en el valle de Soule*. Iruña: Pamiela, 1997.
- . "De la revitalización del folklore, las fiestas y las danzas". In: *Sukil*, 3 zkia: *Cuadernos de Cultura Tradicional*. Iruña: Ortizadar Euskal Folklore Taldea, 2000; sarrera, XI-XXVI or.
- . "Pastoralaren gūdika eta jeia". In: *Anuario de Eusko-Folklore*. 43 zkia. Bilbo: José Miguel de Barandiarán Fundazioa, 2001/2002; 7-54 or.
- (ed.). *Sabor de antaño: Notas sobre la identidad local, actualización etnográfica y desarrollo cultural*. Iruña: Pamiela, 2003.
- . *Kultur performatibitatea eta gízarte fetitxegintza*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2010.
- FLOR, Fernando R. de la. *Teatro de la memoria: siete ensayos sobre mnemotecnía española de los siglos XVII y XVIII*. Valladolid: Junta de Castilla y León. Consejería de Educación y Cultura, 1996.
- FOSTER, George M. *Cultura y conquista*. Xalapa: Universidad Veracruzana, 1985.
- FREEMAN, Susan T. "Religious aspects of the social organization of a castilian village". In: *American Anthropologist*, 70 zkia, 1968; 34-49 or.

- GARCÍA CANCLINI, Néstor. *La globalización imaginada*. México: Paidós, 2001.
- GENNEP, Arnold van. *Los ritos de paso*. Madrid: Taurus, 1986. Jatorrizkoa: *Les rites de passage*. Paris: Librairie critique Emile Nourry, 1909.
- GEERTZ, Clifford. *La interpretación de las culturas*. Barcelona: Gedisa, 2003. Jatorrizkoa: *The interpretation of Cultures*, 1973.
- GONZÁLEZ ABRISQUETA, Olatz. *Pelota Vasca. Un ritual, una estética*. Bilbo: Muelle de Uribitarte, 2005.
- GURIEVICH, Arón. *Las categorías de la cultura medieval*. Madrid: Taurus, 1990.
- HOBBSAWM, Eric; RANGER, Terence (ed.). *The invention of tradition*. Cambridge: Cambridge University Press, 1983.
- HOMOBONO, J. Ignacio. "Espacio y fiesta en el País Vasco". In: *Lurralde* 5 zkia, Euskal Geografi Elkargoa (INGEBA), 1982; 91-119 or.
- . "Comensalidad y fiestas en el ámbito arrantzaletar: San Martín, en Bermeo". In: *Bermeo*, 6. zkia, 1986-7; 301-392 or.
- ICOBALCETA, Xabier. *Le sens politique des fêtes á Gernika-Pays basque*. Paris: Tesis en Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales, 1994.
- IRIGOYEN GERRIKABEITIA, Juan de. "La Navidad hogareña. La Intxaurraltza y el Zurrapote". Sekzioa: Bromatologia popular. In: *La Gaceta del Norte*. Bilbao, 1952.
- JIMENO SALVATIERRA, Pilar. *Rituales de identidad revitalizados*. Madrid: Ediciones Universidad Autónoma de Madrid, 2002.
- JULIÁ, Santos. *Historia Social/Sociología Histórica*. Madrid: Siglo XXI, 1989.
- KERTZER D. I. *Rituals, politics and power*. New Haven: Yale University Press, 1988.
- LEACH, Edmund. "El tiempo y las narices postizas". In: *Replanteamientos de la Antropología*. Barcelona: Seix Barral, 1971; 204-211 or.
- LEKUONA, Manuel. "Cantares de Adviento y Navidad". In: *Anuario de Eusko Folklore*, 1933. Bilbo: Sociedad de Estudios Vascos, 1933; 37-53 or.
- . *Literatura oral vasca*. 3. edizioa. Tolosa: Kardaberaz Bilduma, 22-B, 1977.
